


Basilio Pujana

DEABRUAK OSTUTAKO URTEAK



AUSPOA

2240

GAS-128/70

DEABRUAK OSTUTAKO URTEAK

Auspoa
211

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA
Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82


Basilio Pujana

**DEABRUAK
OSTUTAKO URTEAK**

Auspoa Liburutegia

Azalean, Zeanuriko erria.
Juan Ramon Elisbururen marrazkia.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Cometip fotocomposición, s.l. - Pamplona
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-143-4
Depósito Legal: NA. 434-1991



Basilio Pujana Etxeandia, liburu onen egillea.

ZERBAIT EGIN GURA

Au dok, au! Sasoi ederrean oraindik eta bear egitea galazota, jubilatuta gagozalako edo nagolako. Irurogeta amazazpi urte daukadaz. Ori esaten dau nire karnetak edo ni nor nazen diñon txartelak. Baiña nire sasoi eta ilusiñoak ez diño ori. Bear egin gura dot, baiña agintariak edo gobernuak galazo egiten dauste, egiten dodan lan ori dirua irabazteko bada.

Bueno, ori olan bada, lege orreik gobernuak ipiniak badira, esango neuke gobernu orrek ez daukala ez oin eta ez buru, eta oker dagola; bada al dabenari ta egiten ondo dakianari galazo egitea, eta gura ez dabenari ta ez dakianari eragiñazo, astoaren ostikoa-gaz ormea jotearen antzerakoa da. Ganera, orma gogorra, eta ortik ez dator aurrerapen andirik.

Baiña eurak ori gura badabe, or konpon euren jokaera ta jakituriagaz. Guri, zarroi, lan edo bear ez egitearren pagatu egiten deuskuela; eta gazteai, lan gitxi egin ta be, asko pagetan dautsiela, mirariren bat

ete da? Edo guk egin genduzan lanak, eta gure aurrekoak egiñak, neiko ete dira gizaldi batzuetarako?

Bai; orduan neiko edo guri toketan jakuna baiño geiago egin dogu. Ori baleiteke izan, bada gure al-dian, niri beintzat, lan asko egitea, edo gazterik egi-tea beintzat, tokatu jatan.

Bederatzi urtegaz nire anai ta aitagaz joaten nintzan basora, lan gogorretara, naita adin edo edade orretan lan edo bear askorik ezin egin. Baiña an egon bear, bide aldi luzea eginda joan-etorrian.

Esan dodan lez, bear askorik ezin egin. Baiña iturriko ura ckarri, edo eguerdian urdeia erreteko errekiñak topatu edo billatu, edo olako zerbait beintzat aitari laguntzeko.

Esango dozue: bederatzi urtegaz basoan? Eta eskolara?

Bai; baiña eskola ez zan aldi atan lclengo bear izana, bigarrena baiño. Eskola izaten zan, gurasoai curen bearretan lagundu bearrik ez eukienean, eta orduan be ez ardura andikoa.

Orreik guztiokaitik ete da bada galazotea, neiko egin dogula-ta? Irakatsi dauskue zelan bizi lan egin barik? Nor arduratuten da orregaz? Edo gazte denporan, eskolara joateko al-dian, gizon bearrak eragiñazo, orain, gizon garan sasoi-an, bear egiten galazoteko? Zuzendari onak ez ziran lengoak? Eta orain-goak? Edo biak onak edo biak txarrak? Edo munduan bizitea gaur errezagoa ete da?

Or konpon! Gaur egunean ondo edo lenago baiño obeto eta errezago bizi gara, naita guri toketan jaku-

na baiño gitxiago emon. Eskerrak zuzendari edo agintarioi eta Jaungoikoari. Baiña agintariok irakatsi bear euskuen gure gaurko sasoiko denpora au zelan pasatu.

Bada guk, gaurko sasoiko zarrok, orain artekoak beintzat, geuk zuzendu edo geuk erabagi gendun, eta dogu, zer bide artu. Ni neu beintzat, naita aurkitu pulpoa itxas zabalean lez, ez daukala non bere atzamarrak sujetatu, asi nintzan nik aprobetxatu al dodazan orduak banatzen: ordubete irakurri, ordubete idatzi, ordubete edo bi paseatu, eguna osotu eta disfrutatuz.

Neure kontura asi nintzan. Baiña lagunen kontseju barik ezin nebazan ondo zatitu: irakurri, idatzi, mendiz ibili, denkantsatu, lagunakaz egon eta barriketea, familiko batzar ta abar. Ezin nintzan ondo akoplatu.

Nire antzeko egoeran egozan lagunak be. Ez egozan ortara oituratuta edo ortara eginda oraindik.

Bein baten etorri jatan lagun edo ezagun bat, Banko bateko langille edo ez dakit zer. Orrela geure barriketaldi batzuk egiten gengozala lagun artean, esan euskun orain guretzako onena zala lo asko egin, jan ta edan asko ta etzunda egon.

Eta badiño gure arteko batek:

– Ik ez eik emon kontsejurik. Bada geuk, baka-
rrik be, erratuko joguk eta.

Mundu ontatik pasadizuan
egin bear bat daukagu,

ta egiteak izango dira
izatearen testigu.
Bada nai eta batzuek izan
alkarren aurka berdugu,
guk, cuskaldunok, geure bidean
garbi jokatu nai dogu.

Beste batek badiño au: zartzarora aillegatzea oso
tristea dala.

Olan izan leike. Baiña osasuna badogu, aldi guz-
tiak dira onak, zelan datozen, alan artu ezkerok.

Eta guk, jagiten garan bitartean, gogor jokatu
bear dogu. Bada gaurko gazteen arrokeriak uts be
egin leike.

Arrokercitik gauza onikan
iñoz zelan ez datorren,
begira oni: gazte edo zar,
emen zein garan bearren.
Aurretik ezin badogu bere
atzean gagoz gogorren,
atzeak eutsi daion danari
aurreak uts egin arren.

Argia dogun eta al dogun artean, alkar lagundu,
alaitu eta al dogun ondoen igaro; ta, zerbait probe-
txuko egin ezkerok, geroarentzat be obe.

Ortatik edo orregaitik, zarra izatea ez da txarra.
Txarrena da zarra izatea be amaitu egingo dala.

Ikusten dan lez, gaur egin bear doguna da, al

doguzan gauzarik onenak gogoan artu, on aletin dana egin, alkar alaitu, lagundu eta mundutik urteerako jaiok ondo ospatu; eta urte asko iraun dagiala, prisarik ez daukagu ta.

Munduaren ondorena izango da gizonok geuk egin eta itxiten dautsaguna.

Eta, orretan nazela, eta lagunakaz lortu ezin nebana, oso ondo ta errez zuzendu jatan. Bada, alango egun baten, aurkituten naz Aita Antonio Zabalagaz, eta berari esanaz emen idatzi dodan antzerakoa, esan eustan:

– Basilio, zure problema orrek soluziño ona ta erreza dauka. Zuk lenago be bertso liburu bat osotu zendun, lan asko egiñez; ta, gaurko agintariak edo legeak agintzen daben lez, ez zendun artu diru askorik. Olan lege barruan zagoz lan egiteko. Egizu lan beste liburu bat betetan; eta, era orretan, lege barruan guztiok ondo: gobernua, erria, lagunak eta batez be zu zeu.

Eta esan eustan, liburu idazle izateko, izan bear zala diru asko dun gizona edo praillea, idazlariak dirua galdu baiño ez dabela egiten da. Eta orduan, nire egoera edo kasua be sartu leikela zaku edo zorro orretan.

Alan, bertatik jarraitzera noa, bada lege barruan nago: naita lan egin, kobretan ez badot.

Urrengo, bazkari bat egin gendun Abel Muniategi, Antonio Zabala eta irurok. Eta an be nun esaten dausten beste liburu bat egin neikela.

Baiña zer idatzi? Orduan diñotsat nire buruari

onena izango dala idaztea nire bizi aldirik gogorrena,
gerra aldia, sasoirik eta urterik onenetan igaro neba-
na, liburu onen irakurle guztiai eskintzeko biotzez.

Jakin nik ezer egin al badot
gure erriaren alde,
diruagaitik ez ikaratu,
nik egiten dot debalde.
Baiña au bere jakin daiela,
agintari ta abade:
ondo artua izango dala
ezer emoten badabe.

NOLA EDO ZELAN IDATZI

Baiña idazten ez dakian bat, eskolarik ez daukan bat, nola edo zelan ari leiteke zerbait idazten, ez badaki? Nik ez dakit orixe berori be. Gauza ori jakingo dabe liburu asko irakurri dabenak, eta liburu orrein artean zuzterdun libururen bat aurkitu bada-be.

Eta nik, irakurri be zerbait egin arren, oso gitxi irakurri dot. Bada, naita gogoko dodan, liburu bat irakurten asi eta oso astiro irakurri bear, eta sarri askotan iztegiari begiratuta. Era orretan, liburu oso bat irakurteko, ordu asko ta egun asko bear dira.

Irakurle oso eskasa naz, beraz. Nire ustez, sarritan irakurri bear dot berba bat, mami apur bat atarateko. Bada oitura gitxi dot, eta gusto andirik be ez dauset artzen liburu askori, edo guztiz geienari, nire eretxirako, nik irakurten dodan moduan, ez dakidalakako erderaz gitxi baiño; eta, euskeraz, nire Arratiako bizkaiera besterik ez.

Eta zenbat liburu ete dira idatziak, ez liburu ba-

nakak bakarrik esanda, zenbat milla edo, esan leiteke, zenbat barkukada liburu ete dira munduan, onak, erdi onak eta txarrak, guztiak kontatu ezkeru liburu lez?

Orduan bururatu jatan, iñoiz entzunda edo olan, ni lako estudio bakoentzako, orain bertan bizi garan mundu berau dala liburu andi bat, zabal-zabal dagoana, irakurri gura dabenak irakurteko eta ausnartuteko, bakotxak bere erara. Eta, ori sinisturik, or jo neban kolperik eta seguruena niretzako.

Bada gizonak idatzitako liburuetatik, oso gitxi irakurri dodaz gogoz; eta, ganera, ainbat aldiz ondo ausnartu guran. Euskerazkoak, bertsolari lagun bartzuenak.

Erderazkoak, barriz, bata da Luis Castresanaren Iparragirrereren bizitza; baita be Aita Onaindiaren *El Pacto de Santoña*.

Pacto de Santoña'rik etzan izan, nire ustez. Bada, Santoñan ez egoan eperik paktorik egiteko. Bakarrik zan Santoñakoa, al zan ondoen portatu, batez be bertako Francoren aldeko presoakaz eta erri guztiagaz. El Pontarrón eta Guriezokoa bakarrik izan zan pakto ori, gero, istoriaren urrengorik urrengora esanean, bere tokian agertuko danez.

Irakurri dodan beste liburu bat, *Hace falta un muchacho* izan da, erderaz. Baiña zenbat bider begiratu bear iztegiari, dan lez oso-oso ulertzeko? Eta ori egin bear; bada, ostantzean, irakurri eta bere mamia oso-osorik artu ezik, arto lastoa jatearen antzekoa da.

Eta emen atera kontuak. Lelengo, zenbat den-

pora dauka gizonak munduan normalean, batez be baserri txiro baten jaio dan bederatzi neba-arrebatariko batek, orren asko irakurteko eta ikasteko, idazlarien artean sartzeko, naita bere munduko pasadizoan ain argi asko burutik pasatu, eta burutik pasaciran ez badauka era edo erreztasunik paper garbian ipinteko? Zenbat pentsaera eder joan ete dira betiko, naita liburu ederrenetan dagozan besteko argitsuak izan?

Orra or: geure aldiko geure erriko esakera eder aberats asko joan ziran aizetara, liburuetan jarri ez ziranak: Txirrita, Xalbador, Uztapide, geure erriko Zipri Aspe eta Lino Errekarte, eta abar eta abar, gaur egun euren esakera bategaz liburu bat osotu leikena. Bada gaur liburu asko dagoz, *bai* esateko, milla berba edo itz esan da gero, *ez* esaten dabenak. Eta nik neuk, ori esan da gero, zer idatziko dot?

Geurea ez zan etxe baten jaio; zelan edo alan zazpi urteraiño eldu; amairu urterarte eskola eta lan, idazten, irakurten eta *dividir* ikasi arteraiño; erri euskera, erdera motroillo; mundurik ikusi ez; ogerleko bat ezin irabazi; berba baten, Jainkoa lagun aurrera.

Eta orra or non ezagutu neban errazoi andi bat gizonarentzako, eta au da nire bildur gabearen errazoi ori: sufritzen dabenak pentsa egiten dabela; eta, zoritxarrez, pentsetan dabenak, sufritu. Or dago txakurra, bere buztena koiu egin guran, buelta ta buelta, geroago esango dodan lez.

Bada orretzaz da liburu au: gerra zantarra.

Baiña lengoari jarraituz, gizon normalak egin bear asko daukaz munduko bakotxaren arloan, eta

sarri askotan norberak gura ez daben bidetik eroaten dau destinoak. Adibidez, soldaduska, gerra, kartzela eta abar.

Orreik guztiok igaro eta gero, bizimodu normale-ra sartu: ezkondu, lau seme-alaba azi eta jubilatuz; eta, naita jubilazio txikia euki, gu biziteko beste bada. Bada naita gitxi izan, ez dakigu bera gastetan be.

Orain, naita len esan dodan lez, gauza oneik, idazte oneik, oso astiro egin bear, ekin eta ekin, egingo ete dot zerbait?

Nik, bertsozale andi bat izanik, umetxutatik ikasi nebazan bertso asko papeletatik: Santa Agedaren kantik, azken juizioko egunekoak, gerra europeakoak eta abar. Ortik aurrera, zerbait bertso kantari be izan naz; bertso papelak idatzi be bai.

Eta ona emen, Donostiako Aurrezki Kutxak antolatutako bertso papel sariketara, 1963 urtean, bialdu nebazan bertso batzuk; eta orra non saritzen daben nire bertso papel ori be. Orduan itandu neutsan nire buruari:

– Ikasi ete dot bertsoak egiten? Egia ete da gauza andi ori niretzat?

Bertso papel ori idatzi aurretik, banintzan zerbait kantari. Baiña orduan ez egoan magnetofonirik edo alkaueterik, Uztapidek esaten eban antzera, kantetan zana artuteko. Gaur egun beste ardura edo arrisku ez egoan, anka sartze bat egin arren be.

Baiña aldi aretan be idaztea bide labana izaten zan; eta, orregaitik, nire bertso papel ori saritzeak animu andia emon eustan; eta ortik aurrera, neure-

gan arturik arlo orretan egin neikela nik egin al dodan apurra gure erriko kulturaren alde, neuregan dagona, nire garauna iskindu nairik, asmo orregaz idatzi nebazan eundakak bertso; eta orrela betetu eta osotu zan nire lelengo bertso liburua: *Egi batzuek aixetaratzen*.

Nire buruko bertso mordoa naita izan, txukundu eta orraztu bearrezkoak izan ziran lez, agertu jatazan lagun on bi: Aita Antonio Zabala eta Abel Muniategi; eta bertso liburu polit bat argitaratu gendun iruron artean bizkaieraz; edo, obeto esateko, Zeanuri eta Arratieraz, naita bertso kontuan era guztietako euskera sartu.

Lagun argi, jator eta jakitunokaz, iruron artean egin gendun etxe txiki baiña gogor ori. Batek ipini eban enkofraua, besteak burdiña eta besteak zementoa. Etxe txukun ta gogorra benetan.

Idazlari kaskarra naz eta lagun jaun bi onei emon neutsen oso lan gogorra nire idatzien trakeskeria zuzentzeko, batez be Aita Zabalari, bera gipuzkoarra izanik. Baiña, zorionez, eragozpen guztiak menderatu ta orain iru urte argitaratu zan liburutxu ori, *Auspoa*'ren 191'garren zenbakiagaz.

Orreik guztiak igaro ta gero, gogoratu jatan bazkari bat egitea iruron artean, len esan dodan lez; eta, bazkari aretan non diñostien nik liburutxu bat idatzi neikela prosaz be; eta, len esan dodan lez, bururatu jatan, liburu bat idaztekotan, guk igaro gendun gerra ta zarraparrakaz izan leitekela.

Esan eusten nik banekiala bertsoa mamiz beteten; orbelak baztertu ta mami utsezko lana egiten.

Baiña nik garbi ikusten neban, beste liburu au, idatziz bete gura baneban nire ibilera edo istoriagaz, asko kostako jatala orbel guztiak bertan sartuta be osotuten; liburu au beteteko, nire itz geienak, ez orbelagaz apaindu bakarrik, ezpabere ze putzitu be egin bearko nebala, zerbait itxuraztuteko.

Orregaitik, une aretan berean au ez zan nire gogoko, eta ez urrik emon be. Baiña denpora pasatzean esan neban nire barrurako:

– Zergaitik ez? Gure gerra orretzaz euskeraz ez dot ikusi libururik; eta, bestalde, erderazkoak be ez ziran edo ez dira guztiak, nire eretxian, neuk ikusiak, neuk igaroak edo neuk ezagututako antzera. Ezta nire lagun ezagun guztiok ikusiak be. Eta zergaitik ez, bada, nik daukadazan lagun onak eukita, nire trakeskeriak zuzenduteko? Nik ez dot idatziko neuk ziur ez dakidanik, ikusi ez dodanik, ibili ez nazenik edo igaro ez dodanik. Eta orrela, nire lagunok ez dauke besterik egiterik, nik idatzitako letrak zuzendutea baiño. Nik egia esan eta eurak txukundu, papel garbian ipinteko eran.

Guztia ondo egin eta jakin dagiala mundu guztiak, eta batez be gaurko agintari askok, eta gaurko, biar eta etziko gazteak. Bada, ikusten dan lez, ez dakie zer izan zan gerra ori, eta ganera ez dira arduratuten jakiteko be. Bildur ete dira, bada, zer gerra izan zan jakiteko?

Milloi bat baiño geiago il ziran gerran. Ganera, ainbeste ume, neskato ta mutiko, erbestera –Errusiarra, Inglaterrara, Beljikara eta abar eta abar–, guraso ta neba-arrebak, guztiak erriaren alde zerbait egin al izan ebenak, lan ori obeto ta errezago egin egien.

Bildur ete dira, bada, jakitea millaka eta millaka eroe eta martiri izan zirala? Ez dabe jakin gura millaka fusilatuak izan zirala? Nor bere nortasuna salbatzera fusil bategaz mendira joan giñala? Eriotz sententziagaz ainbeste gudari urte ta erdian noiz deituko adi egon zirala, goizalde guztietan fusilatzen aterateko, *pena de muerte*'gaz egon ziranak? Iru, lau ta bost urtean kartzela illunetan abereak baiño era gogorragoan bizi izan zirala?

Gaurko gazteak zergatik ez ete dakie zer jazo zan gure aldiko gerran? Ez jakelako esan? Ez jakelako idatzi? Nire ustez, guztia da argitu al ebenak, agintea eta indarra eukienak, gura ez ebelako gerra orren barri jakin egien, eta nai eben guztia aztu eitela, euren lotsagarri izango litzakelako; euren erruz egia ta errazoa asko zapaldu ziralako.

Gitxi idazten dala? Zergaitik? Gutxi irakurten dala? Zergaitik? Idazle askok idazten dabelako, estudiorik bakoak aditu ezin daben moduan. Estudioduna beti dabil estudio bakoak ulertzen ez dituan berbak billatzen, eta berak idatzia ondo apaintzen. Eta ez dakianak olan egiten dau liburuetatik anka. Orregaitik izan leiteke asko, irakurle gitxi egotea. Ez ete da ba obe izango, gitxi dakientzat gitxi dakienak idaztea?

Nik neuk beintzat mundu ontan ez dot estudiatu ezertxo be. Nire bizitzan ez dot euki erarik, eta denporarik be.

Gure mundutik pasaera laburra da, eta egin bear askotakoa apur bat beintzat argituteko.

Gure gerra nagusi ortan ibili giñanok eta bizi

gareanok, ez jakitunak, edo bildurtiak, edo epelak, edo zer gara? Gerra igaro ta ostean bizi eta geroago il ziranak, eta oraindik bizi gareanok, geuk igarotakoak idatzi edo argitaratuteko gauza ez gareanok, zer gara? Geure istoria idazteko beste ez al gara? Eta zergaitik?

Alan, sinistu ez egitekoa bada be, nik, ezjakin onek, liburutxu bat osotu gura neuke, naita oso txiroa eta txikia izan. Argitaratu gura dodaz nire bizitzako istoria eta mundu onetan gerra denporan egingdako ibilkerak.

Jazoera orreik eta geiago argitaratu gurarik, liburutxo au bete edo osotutea da nire asmoa, idatzi bitarteetan egoki diran bertso batzuk jarrita, orain oneik jarten dodazan lez:

Mundu onetan gauza bat bera
bitan ez dan lez egiten,
idatzi ezik betiko aztu
egiten dira sarriten.
Gerra zatar bat igaro gendun
bizitzako aldi baten,
papel garbian jarri gura dot
egundo aztu ez daiten.

Gizontxu batek arma zituan
mundu ontan ainbat folloi,
nastu nai zitun zeru ta lurrak,
egi garbi ta guzur loi.
Bera zala ta gerra orretan
il ziran pare bat milloi,

ez dautsagu, ez, zorrikan bape
beragaz joan ziranoi,
eurak ziran ta, naita engaiñuz,
gure berduguen morroi.

Gaurko gudari gazte maiteak,
egidazue aditu:
gure erriak, iraun dagian,
indar danak bear ditu.
Gudari zarrok geure sasoian
ezer ez geuntsan ukatu,
geunkan guztia iskindu geuntsan
naita bizia jokatu,
eta gaur bere gerturik gagoz
barriro bear bagaitu.

Gizon batzuen agindu naia
ezin lei ondo azaldu,
erriko nausi izatearren
lagun urkoa zapaldu,
burruka ori galdu baiño len
nai deabruari saldu.
Alkar iltea irabazi ta
alkar maitatzea galdu,
era orretan aginduteak
ezertako balio al du?

Gero ikusi zan lez, era ortako agintze orrek, naita
ainbat urte igaro, oso gitxi balio izan dau jende
orrentzako be, bada gerra irabazi baebe be, erria
galdu eben. Or agiri da, txarto jokutzen dabenak beti

azken txarra daukala. Eta azken txarra daukanak mundu onetan, beste munduan sarrera txarra egingo dau, lotsaz beterik iges egin bearko daualako.

Gure gerra ortako istoriatzaz erderazko liburu bi edo iru irakurten asi nintzan. Baiña ikusi neban neuk ikusitakoak nik ikusitako antzera etzirala liburu orreitan; neuk ikusiak ez egozala zuzen eta izan ziran lez. Eta, nazka arturik, bertan bera itxi nebazan. Bada, naita nik ikusi ez nebazanak egiak izango diran be, nik ortan ezin neike esan ez bai ta ez ez.

Gero, nik ikusitako barruan, Aita Onaindiak *-Padre Olaso'k-* idatzi eban *Pacto de Santoña* liburu ortan dago, nik dakidanetik, nire ibilteetatik errealtate edo egi andiena, naita berak idatzi nik ezagutu edo ikusi ez nebazan gauza batzuk be.

Orregaitik, barriro diñot, ausartu naz liburu au idaztera, nire ibilkerak kontatuz, eta neuk igaro eta ikusi nebazan eran. Au da geien be ni zelan edo alan idaztera bultzatzen nauena; neuk ikusia idatzi beintzat, izan zan legez.

Baiña esan leikie batek baiño geiagok, neuk ikusia bakarrik bada, neuk irakurteko izango dala onena.

Alan da be, gure ondorengoentzat be gauza on bat izango dan ustean, asmo au gogoz arturik, emen asi bear naz, neuk al dodan erarik onenean, istori au azaltzera edo argitaratzera.

Sarri askotan idazlariak,
idazteko euren lanak,

begira dagoz noiz ilgo diran
testigu izan ziranak.

Gero idatzi guzurti eta
fanatikoak esanak,
baiña emen da egi garbia,
esana testigu zanak.

Gudari zarrok geu gara eta
geuk igaroaren jabe,
ori ez dausku iñork kenduko
mingaña ebagita be.

Idazle batzuk au idazteko
danok iltea nai dabe,
ez gaitez an il gudari zarrok
egia argitu gabe.

Gerra ori, Franco ta bere antzerako guztien aurka, espainiatar, alemaniatar, italiatar eta moroen aurka egin genduna, 1936 urtean asi ta 1939'an amaitu zan. Geu galtzailleak izanik, gerrea amaitu ondoren igaro genduzan fusilamentuak, kartzelak, bearrak, biotz bako guardi batzuen azpian ainbat urtean egon giñanok, asko eta asko lau, bost eta geiago urte, bizitzaren sasoirik onenean. Gaur, 1990'ean, nekatze oietatik bizirik urten genduenetatik be, euneko irurogetik gora beste mundura joanda dagoz. Gomutatzen ete da iñor eurakaz eta eurak igaro ebenagaz? Nik, beintzat, ezetz esango neuke.

Zoritxarrez, gaurko gazteak ez dakie olako asko. Ez dalako irakurten? Ez dalako idatzi? Ez daukagualako gogorik? Itxiak garalako? Gure asaben odola otzitu dalako? Arlote garalako?

Orain arteko istoriak, gure erriko jazoerak, zelan edo alan zerbait badakiguz, naita gure asabak ez eben euki erreztasun asko idazteko.

Baiña orain zer? Guk gaur daukaguzan jakitunak, euren begiakaz testigu diran idazlariak, idatzi ete dabe zerbait, batez be euskeraz? Iñoiz entzun da gazteleraz, eta ingleseaz be, batek edo bestek idatzi dabela. Baiña ez gure izkuntzaz, eta batez be berak ikusitakoa, berak igarotakoa, aditzen emoteko zer izan zan, gaurko gure erriko gazteak jakin dagian.

Bat baiño geiago egongo dira istori ori aztu eta len baiño len lurperatu daiten gura dabenak, bada orren kontu emon bear daben edo emon bear leukien gizon asko dagoz oraindik.

Baiña naita mundu onetan egi guztiari lurra bota, egiak gora igongo dau, eta gaizto, guzurti eta kaluniadoreok aurkituko dabe txarto egindako guztien kontua nork artu.

Orregaitik, bada, egia agirian ipinten egin daginez alegin, geure errazoiak eta egiak argitara ataraten, geroak ainbeste sufritu gendula dudan artu ez dagian. Esan dagigun geuk igarotakoa, naita ezin azaldu izan zan lez edo esan gura dogun lez.

Bestalde, geure egin bearra da egia gaur berean esatea, geroari begira barik, izan zan edo ikusi ta igaro gendun lez; zelan edo alan gauzak garbi agertzea, batzuek euren erara edo eurai konbeni jakien lez esan eta egia zapaldu eta aztu ez daiten betiko.

Nire bizitzan, nire bidean, aurkitutako aldi latz eta traba, muturretako artze ta ainbat urte deabruaren egin bearretan igarorik; aurtzaro atzeratua, olan

zan gure denporan da; eskolara mutil andi eginda asi, ta ganera ikasteko eragozpen andiak, zerbait ikasteko bidea oso zaila zalako guretzat, euskera ta erdera nastuak ziralako; orregaitik zan urte gitxi eskolaz eta egun gitxitan joan be eskolara; eskolako denpora igaro, benetan oso gogorra, kinto urteak arte; ondoren soldadutzara, gauza gitxi ikasita, eta baita be mundu gitxi ikusita. Soldaduskan mutilla itxartuten dala? Ni ez asko, beintzat.

Eta or, soldaduskatik etorri ta nire bizimoduaren arlo gogorra batetik, samiña bestetik, ta arrabioa bestetik, eta gizonaren egin bearrak munduan bestetik. Ogerleko bat non irabazi ez. Ama il; samiña. Gerra. Famili bat sortu ta ondorengoak al dan biderik zuzenenean itxitea. Au garrantzitsuena benetan, ainbeste urte galdu ta ganera ondo gertu barik arlo oneri bear dan eran erantzuteko.

Guk, sei anaik serbitu gendun soldaduska. Zarrenak, Afrikako gerra amaieran iru urte. Gazteenak, urte t'erdi; ta au be Afrikan. Beste iruk Espaiñan: batek Bitorian, Gasteizen; beste batek Palentzian; eta nik Zaragozan. Eta laugarrenak, lejiñoan gerra ostean, trabajadoreetan egin gura ez ebalako, gero esango dodan lez.

Gerrak, barriz, zarrena eta gazteena kenduta, lau erdikoak atrapau ginduezan, 21, 23, 25 eta 27 urte-gaz. Orrela, sei anai artean, ogei ta amaika urte bete genduzan deabruarentzat: soldaduska, gerra eta kartzela. Barriz diñot: ogei ta amaika urte! Ez dira euntzaren gaberdiko eztulak. Baiña gauza andia da gizonarentzat, bere izatea zaintzearren bizia jokatu-tea.

Ogei ta amaika urtean, zerbait balioko egin bear gendunean, zein izan zan urteok irunsi euskuzan dragoi edo izerdi txupatzaille ori? Eta, ganera, igaro genduzan urte orreik, piztiak izan bagiñan antzera. Joan ziran denpora orreik. Or konpon, baiña ezin aztu.

Gerra ta istripu guztietatik urten gendun sano ta salbo, esaten dan lez. Lau anaiok burruka gogorretan ibili giñan. Gero aurreragoan esango dot gerra orretan lau anaioi jazotakoa, eta batez be neuri jazoak edo neuk ikusiak.

Baiña mirari antzekoa be bai da: frentean giñan lau anaiok ez gendun euki, laurotatik batek, zauri txiki bat be; ta, bien bitartean, etxean ziran aita ta anai-arreba gazteak bonba bategaz zaurituak izan ziran.

Zer gerra klase ete zan, bada, au, etxean egozarak zaurituteko? Orrek esan gura dau, gure gerra ori ez zala intentzio oneko gerra be.

Dana dala, iñork ezin leike egin berak al daben baiño geiago. Baiña bai berak uste daben baiño geiago. Ori gogoan artuta, aurrera, Basilio! Gauza bat da egiten dakiguna egitea edo al doguna egitea; eta beste bat ez dakiguna egitera ausartzea eta alegintzea.

Bada gizonak, konturatzen danean, bertan egin bear dau berak al daben guztia, probetxurik onena ta andiena atarateko bere izateari mundu onetan, erri, kultura ta lagun urkoaren alde. Au egiten ez dabena, munduari zor dautsana ordaindu barik joango da, eta ori da uts andi bat, gero erarik eukiko ez dabena beteteko.

Bat norbera pasatu edo igaro dan toki eta bide guztietan gomutaki on bat itxi eta elmugara eltzen garanean, atzerantz begiratu ta ibili ta etorri garan bidea probetxuz beterik ikustea, ori izango dala uste dot alaitasunik andiena, eta gauza ori bera izango da zorionik ederrena.

Eta orretzaz nik gura dodana da, ni iñork ezagutu ez arren, nire liburutxu au ezagutu dagiela. Orrela, bada, gizona naita aztu, munduak erriaren istoria ez dagiala aztu.

Aurrera, bada, lengo laguntzailleak badaukadaz-eta oraindiñokoan be. Baiña liburu onetan konponduko al gara? Baietz uste dot eta, laguntza orren itxaropenez, aurrera, Basilio!

LELENGO EGUNAK

Guk, edo nik beintzat ez nekian ezer, eta ez neukan ezeren eritxi edo zurrumurrurik be, gerra zantar ori asiko zanik.

Garagarrillaren 18 edo 19'rarte, lelengo egun areitan, lantegietan izan zan *huelga* edo saltsa antzeko bat, eta lau anaiok etxeratu giñan dudazko egun orreitan: Erremundo, Bizente, ni eta Jesus.

Juanita, neba-arrebetan zarrena, ezkondu ta Zeanuriko plazan bere etxean bizi zan. Markos, anaietan zarrena, Lemoan bizi zan, ori be ezkondata. Beste arreba bat, Madalena; eta danetan gazteena, Luis, amalau urtekoa, etxean.

Aurretik be, gure ama, Maria Dolores Etxeandia, oso geixorik egoan minbiziagaz, eta egun areitan oso txarto. Orregaitik, bada, kanpoan lan egiten gendun anai guztiok, bere ondoan egoteko era edo aukera gendun ezkerro, etxean, Zeanurin, egon giñan.

Zurrumurru batzuk entzuten ziran, bai, ta garagarrillaren 22'an izan zala uste dot, ikusi genduzan



Emeterio Pujana eta Maria Dolores Etxandia, liburu onen egillearen gurasoak.

abioi batzuk be, gure auzo alboetako Ganeta mendi aldetik; eta baita be bonben trunboiak entzun. Abioi orreik Dimako ingurutik egiten eben bueltea, andik Urkiolako tarrotik Otxandiorantza barrero joateko.

Gero jakin zan lez, Otxandio bonbardeatu eben, eta ez dakit zenbat ildakoak, asko beintzat, eta ainbeste eta ainbeste zaurituak, erririk geiena apurtuta.

Orain ille pare bat, Otxandion izan nintzan; eta, bertako bonbardeoa aitaturik, ango lagun batek esan eustan:

– Bonbardeoa izan baiño bi edo iru egun aurretik, beste aldera joan zan erritar batek berba oneik esan ei ebazan: «Iru edo lau egun barru, Otxandio erria bonbardeatu eta apurtu egingo dabe». Eta olan izan zan zoritxarrez.

Guk geure buruan edo geure barruan ez geunkan leku andirik gauza orreik erabilteko, bada gure ama il zorian egoan, eta orrek lotu eta estututen euskun burua pentsamentuak egiteko eta matxinada orreri ardura artzeko.

24'ean il zan gure ama, eta 25'ean obiratu, Santiago egunean.

Santiago egunerako esanda egon giñan Jose Mari Artetxe zana ta ni, Ipiñara bertso kantatzen joateko; eta begira or zer gauzak jazo ziran: okerrak, eragozpenak, ezin egiñak, Otxandiori jazo jakona, amaren eriotza, zurrumurru bildurgarriak, ixiltasuna, mogimenduak... Gizonak proponitu eta Jaungoikoak egin.

Bertakorik ez zan mogitu iñor be. Baiña Asturias edo ortiko komunistak edo ez dakit zer, batzuk ikusten ziran kamionetetan eskopetak eta era guztietako arma zarrakaz, eta sospetxa txarra artzen asi giñan. Bagenkian sublebaziñoa jazo zala; besterik ez. Orreik ikusi ta Otxandion jazo zana gogoratuz, burutik pasa gendun:

– Itxartu egin bearko gara, bada emen ez dago gauza garbirik; ez dago intentziño onik.

Geroago, Gernike erretzeagaz gogoratu jatan bertsoa egingo zan egoki Otxandiotzaz be:

Gerra asi ta Otxandiotxo
apurtu eben lenengo,
ori etzala neikoa eta
birrindu euskun Durungo,
eta Gernike maitagarria
kiskaldu euskun urrengo;
naita etorri Luzifer bera,
Hitler, Franco, nai wikingo,
uste genduan ainbestekorik
iñork etzula egingo.

Bai; ez gendun uste orrenbesteko biotz gogorrik munduan egoanik. Baiña alan izan zan; gure malizi edo txarto pentsatzea oraindik ez zan eldu. Eta egun gitxitan geure buruari buelta asko emonda, fusilak artzera joan giñan.

Baiña ori egin baiño len, lanean be izan giñan bitartean. Nik Bilboko Ituarteren tallerretan egiten neban lan edo bear, eta abuztuaren lelengoetarako militarizatuta egon giñan. Esku-bonbak eta obusak egiten ziran. Asturiasko komandante militar bat izan zan zuzendari militarra; eta zuzendari zibilla, Emilia-no Agirrezabal, aurretik be alan izan zana. Baiña denporarik be ez egoan lez organizatzeko, ez egoan orden andirik be.

Bien bitartean, astegoien guztietan, etxera joaten nintzan, eta jakiten neban Zeanurin be gauzak ge-roago ta illunago ta nastuago joiazala –sublebaziño-ko goraberak–; eta abuztuaren 15'e-an, Andra Marietan, Zeanuriko jai nagusiak, egun batzuk lenago edo ge-roago, barri txarrak polborea lez, eta erabagi bat artu

bear zan, bada jazo ziran gauza batzuk, orduan beintzat sinistu ezin izatekoak, zeanuritarrentzat beintzat.

Jakin gendun batzuk beste aldera joan zirala; beste batzuk, plana okertu egin jakela eta Zeanurin gordeta egon zirala; Gorbaien, Igiriñaon, beste aldera joan ziran batzuk arteko zirala, erreketekak prisionero atrapatu ebezela Arabako abertzale batzuk: Estabillo, Elgezabal eta Kortabitarte, eta geroago frankotarrak fusilatuak. Zeanuriko batzuk be larri libratu zirala, atxetatik eta arrisku andiko tokietatik saltoka; andik egun gutxira, beste geiagok be Zeanuritik beste aldera iges egin ebela; euren lagun ziran batzuk despeditzera joiazala atxaki ipinita, beste aldera eurak be.

– Baiña zer dok au? –esaten gendun, jazoten zana ezin sinistuta.

Egun orreitako baten joan ziran Zeanurira Lemoa ta Bilboko batzuk: euskotarrok alkartu, fusilak artu ta mendira joan bear zala, geure erria ta nortasuna defendiduten; ze Francok eta Molak ekarri edo euki ebezan intentziñoak, gu guztiok zapaltzeko eta apurtzekoak zirala ta.

Oraindik ni aste bi edo iru lanera joan nintzan. Baiña gero, ikusirik konpañia Arratia osotu zala, nire beste iru anai bertan sartu zirala, eta Erremundo tenientea zala, nire lan militarizatu ori bertan bera itxi ta neu be eurakaz joan nintzan, eta olan izan giñan lau anai konpañia baten. Niri ori egiteagaitik zer jazo jatan, geroago esango dot.

Ogei urtetik ogei ta seira
lau anai gazte sasoiko,

gautik goizera biurtu giñan
lau gudari benetako.
Lau izan arren gurea ez zan,
ez, goi mailletan jartzeko,
eskubideak zaintzeko giñan
beste guztien antzeko.

Arratiako konpañia zan
laurok sartu gintzazana,
laurotatik bat autu egiñik
konpañiko kapitana.
Lelengotatik artu genduan
laurok bertan fusil bana,
bere lekuan geldituteko
aurrez agertuten zana.

Eskubidetan bardiñak gara
mundu onetan sortuak,
oker guztiak dira gizonak
bere kontura artuak.
Augaitik gara batzuk lotuak,
beste batzuk askatuak,
lege txar asko jarten ditu ta
indar madarikatuak.

ELGETA

Orrela, urriaren lelengoetan etorri ziran Euskadira fusil mosketoiak; oso gitxi zoritzarrez, danentzako beste ez ziran ta. Baiña guri beintzat tokatu jakuzan eta onak izan ziran. Euren artean fusil mauser luze batzuk be egon ziran.

Pare bat egunean zerbait gertu edo entrenatu, eta urriaren 4'ean Elgetara.

Elgetara arte erreketek paseo antzera etorri ei ziran. Bada Gipuzkoa ia esku utsik atrapatu eben, eta Gipuzkoako anaiok neiko izan eben guztia bertan bera itxi, Bizkaira etorri ta geugaz batera fusilak artzea. Gipuzkoatik etorri ziran famili asko be, eta neiko zer egin zan guztiai bizilekua emon ta zelan edo alan antolatzea.

Or, Elgeta orretan agertu giñan gerra zer zan jakin barik, eta lelengo egunetan borrokarik gogorrena: urriaren 4'ean, 5'ean eta 6'an, uste dot.

Lelengotan ez gendun ezer eta iñor be ikusten. Baiña eurak, erreketek, guganantza botaten ebezan

tiroak, eta guk eurakanantza. Eurak, len esan dodan lez, Elgetara artean errez etorri ziran, eta an be uste eben olan izango zala. Baiña geuk be, estratejia gitxi euki arren, tiroak bota ta bota.

Geu be, soldaduskatik etorri barri egonda, naita fusilaren barri zerbait jakin, a ez zan soldaduska lakoa. Soldaduskan probak egiten genduzan, baiña geu bakarrik giñan tiro botatzen. Ganera, iñor ez egoan lekurantza; eta, iñor ez dagon lekutik, ez dator tiroaren erantzunik. Baiña Intxorta orretan etorri egiten ziran, guk botatzen gendun beste edo geiago, eta ganera kañonazoak. A bai zan, a!

Gure trintxera naturala izan zan: baso burdibide bat, arri losa andi batzuk bazterrean eukazana, batez be beko aldean, guretzako ondo etorri ziranak. Nik, beintzat, iñor ez neban ikusten, baiña bota ta bota.

Zugatzak be baegozan, eta idea be neiko andia; eta naita ideari balak errez pasatu, beintzat zerbait ostondu edo ezkutatzeko balio eben, naita arrisku andikoa izan, bada eurak be botatzen ebezan balak txingorraren antzera.

Intxorta nagusia erreketekok artuta eukien. Baiña aurreratuteko eurentzat ez zan izan egokia-edo, ta gu egon giñan Intxorta txiki ataketan eben. Bada gu egon giñana artu baeben, oso errez eukiko eben aurreratutea. Eta eurak goia geldi euki eta Intxorta-txiki ta Elgeta bitartea nai ebelako, gu egon giñana nai izan eben. Baiña gure estratejia faltea odol beroz beteta, bertan eutsi geuntsien tinko. Tinko ezin esan neike, bada etzunda egon bear zan da. Baiña berriro diñot: bota ta bota.

Lemoako gazte bat, bere kaja munizioa ekarterakoan, gugandik ur jausi zan ilda, ide artetik etorrela. Bada, len esan dodan lez, ideak ez dau gelditzen balarik. Mutil au ez zan gure konpañiakoa.

Ezin zan zutundu. Bear izanak egiteko be, e-tzunda egin bear.

Jarraian, gure aldeko artilleriak Intxorta nagusi ori izurratu eban.

Komunista gudari batzuk be an izan ziran, pañuelo gorriakaz ta abar, panploniken antzera; eta guri esaten euskuen:

– ¡Aupa, muchachos! Gora Euskadi askatuta!

Bertan jazo jakon Olano gure lagunari: bala batek jo mosketoia ren kulata ta apurtu. Beste gudari batek euki eban zaurituta jausi zan gudari baten mosketoia, eta bota eutsan, lan egiteko ori zan gure erreminta ta.

Gure artilleroak Intxorta goia izurratu ebenean, laster egin eben erretirada apur bat erreketekok. Orduan ikusi genduzan galapan; eta orduan, bai, zutundu giñan, da baita be gustora bota tiroak.

Gure bateoa gerran oso gogorra, gogorrenetari-koa, izan zan benetan.

Antxe bertan il jakun gure konpañiako Fernando, Arteakoa, emeretzi urteko mutil gaztea.

Elgetatik, Intxortatik atsedean artzera etorri giñanean, etsaiari geldiketa eragin ondoren, *Euskadi* egunkarian agertu zan kantu au, *Eusko gudariak gara* doiñuan, Algortako edo inguruko batek asmatua:

Agur, Intxorta maite
gomutagarria,
arratiar mutillen
garaitza tokia.

Orren doiñuan, neuk jarriak baziran bat baiño
geiago. Bat beintzat auxe izan zan:

Ez da sartuko iñor,
ez, gure errian,
eusko gudariren bat
zutik dan artian.

Edozer gauza egiten gendun orduan, eta erderaz
au atera neban, beste doiñu baten kantetako:

*Los requetés se creían
que a Bilbao iban a entrar,
pero los arratianos
les han hecho fracasar.*

Beste mutil batek beste au asmatu eban, *la Inter-*
nacional'aren doñuagaz kantetako:

Belarri motz ta maketoakaz
emen ez dago gauz onik,
danok batera ekarri daitsegun
askatasuna Euskadiri.
Goazen, goazen guztiok JEL aldez
uri, baso ta mendi,
guztiok alkarrekin.

Intxortako edo Elgetako borrokaldiaren berrogetamar urtegarrenean, joan giñan bertara iru lagun, konpañia Arratiakoak, eta oso aldatuta aurkitu gendun borroka leku ori, edo esia erreketoei ipini geuntsan mendi ori. Orduan àretxa, pagoa eta olako zugatzak egozan, eta orain piñua.

Baiña an egozan Intxorta biak, andia eta txikia, tinko oraindik, an jazo zanaren testigu.

Oroigarritxo bat be aurkitu gendun, benetan umilla, baiña meritu andikoa. Gu ez giñan enteratu bera nortzuk edo noiz ipini eben. Ostantzean, egingo gendun alegiña egun aretan an egoteko, eta ganera oso atsegiñez. Esan dodan lez, oroigarri txiroa begiarentzat; baiña oso aberatsa, ezin geiagokoa, bertan idatzia, eta onela diño:

«Euskadik emen
geldituazo eutsan
etsaiari
jasarraldia
urriaren 4-ean
1936'ean».

Eta orain, azkenerako, nire bertso bat:

Gure lelengo odolarekin
Intxorta egin zan busti,
an ikusi zan eusko odola,
negar anpulu ta guzti.
Frankotarrakaz alkar tiroka
lau egun, goiz ta arrasti,
pentsa genduan gizon guztiak
biurtu zirala pizti.

IBAIZABAL BATALLOIA

Egun areitan ez egozan batalloiak osotuta. Konpañia banatuak giñan; eta, Intxorta orreitatik atsedean artzera aldatutean, an ezagutu giñan Bilboko Matiko aldeko konpañia *Ibaigane*; Begoña aldeko *Zubiaur*; Galdakao eta Usansoloko *Iñaki San Migel*; *Astarloa*, ametralladorak, Durungo, Abadiño eta Mungikoak; eta –zetan esan be ez?– *Arratia*.

Iñaki San Migel izan zan bederatzi urteko mutil bat, Usansolokoa. Bere etxeko balkoian manifestaziño bat ikusten egoala, sozialisten batek-edo tiroa bota ta il egin ebala esaten eben. Errazoi orretatik eban izen ori Usansoloko konpañiak.

Orduan sortu zan eusko gudaroztea; eta, jakiñik len esan dodazan konpañien alkar ezagutzea, eusko gudarozte orrek bost konpañi orreikaz osotu eban *Ibaizabal* batalloia, amabosgarrena bera.

Orregaz batera jazo zan konpañia Arratiako kaptanaren aldakuntza. Ordura arte, Elgetan be, kaptan izan zan Areatzako bat. Baiña arratiar gudariak

ez egozan konforme: Elgetako burruka orretan ikusi be ez zala egin eta; burruka orretako zuzendaria Erremundo Pujana izan zala, ta kapitan bera izan bear zala. Konpañiak, bere kontura botaziñoa egin ta Erremundo autu eban, kontrako barik.

Baiña eusko gudarozteak ez eban onartu, orretarako konpañia ez zala iñor eta. Baiña, jaoa ikusirik, eusko gudarozteak lengo kapitana beste batalloi batera destinatu eban, eta jarri zan konpañia *Arratia* ori onela: kapitana, Erremundo Pujana, nire anaia; tenienteak, Fernando Egileor, Igorrekoa, Serapio Mimentza, Lemoakoa, eta Manu Artetxe, Arantzazukoa.

Andik egun batzutara, bost konpañia oneik alkartu giñan Durungoko jesuiten etxean, batalloia osotuteko: konpañia *Arratia*, kapitana Raimundo Pujana; konpañia *Iñaki San Migel*, kapitana Sabin Egileor; *Ibaigane*, kapitana Juantxu Bilbao; *Zubiaur*, kapitana Jose Landa; *compañía de ametralladoras*, *Astarloa*, kapitana Goitia. Komandantea, Iñaki Arana. Komandante laguna, Luis Erauskin, *Petxo*. Komandante intendente, Undabarrena. Komandante abadea, kapellaua, Don Juan Aldekoa, gaztea, Igorretako semea, Zeanurin abade egon zana.

Durungoko jesuitetan, Pablo Beldarrainen ondo emonagaz, *Ibaizabal* batalloia tinko eta gertu.

Gure gudarozte orrek, Napoleon eta munduan izan diran mariskal eta jeneral guztiak baiño azkarra-go, bizkorra-go edo denpora gitxiagoan osotu ebazan ainbat batalloi, mundu guztiaren arrigarri izango ziranak, gazte eta zar odol bero dunakaz.

Eta frente edo esi bat egin eben, itxas barrutik Orduña eta Burgos parteraiño, Bizkai eta Araba zear.

Kapellaua, don Juan Aldekoa, oso bildurtia zan tiroentzat. Baiña bere egin bearra zala eta onela esan eban:

– Ni nire erriagaz joan bear naz, eta batez be nire mutillakaz.

Bai; oso kapellau jatorrak izan genduzan guda-riok, eta areintzat doa orain nire bertso au, gudari zar eguneko meza santu baten kantatu nebana:

Kapellau arein jokaera be
txalogarria izan zan:
mendira joan gudariari
laguntzen azken arnasan.
Bizi diranak emen daukaguz
illen omeneko mezan,
il ziñeanok zeruetatik
gure alde meza bat esan,
Jaungoikoari eskatuagaz
danok askatu gaitezan.

Eta orain beste bertso batzuk gudariari:

Egun batean goiko mendian
entzun ziran deiadarrak,
eta dei orreik eiten ebazan
gure aberri bakarrak.

Semeak ama gorde gurarik
joan giñan euskotarrak,
arerioa sartu baiño len,
zaintzen geure lege zarrak.

Bakotxa bere aldetik eta
or gerra negargarria,
biotatik bat oker egola
ta ori zala geuria.
Errua geuri galdu zalako
gure aldeko guztia,
guk txarto egin bagenduan be
guretzat au zan egia.

Mundu guztian aurrean zegon
gure kontzientzi garbia,
guk artu gendun agintariak
agindutako bidia.
Era onetan mendiratu zan
gure eusko gaztedia,
Jaungoikoaren legean zuzen
zaintzen geure aberria.

Umiltasuna igaro eban
geure aberri gaixoak,
baiña bazitun seme-alabak
biotzak gora jasoak.
Amaren alde jagi gintzazan
seme eta gurasoak,
gu gelditzeko ez ziran neiko
bonba ta kañonazoak.

Seme zintzo lez erantzuteko
gure Amaren deiari,
al gendun danok biurtu giñan
gautik goizera gudari.
Gure artean ziran eroe
eta martiri ugari,
orain lupetza bota nai dautse
odolez lortu zanari.

Naita etorri mundu guztiko
zapaltzaille nai berdugu,
jatorriz dogun eskubidea
zaindu bearra daukagu.
Ortan ardura dana artuta
zaintzera jagi giñan gu,
kontzientzia garbi dogula
istoria da testigu.

BILLARREAL

Batalloia osotu ondoren, gerra moduan jarraitzeko, gu geu, gudariok, ondo gerturik gengoan. Laster asi zan zurrumurrua: len Elgetan, Intxortan, etsaia gelditzeko egin zan borroka arrigarri ori, eta orain atakatu egin bear zala; eta atakatu eta artu egin bear zan ori Legutiano edo Billarreal zala, gure batalloiak beintzat; eta San Andres eguna, zemendiaren 30'garrena.

Eldu zan eguna. Otxandioraiño autobusetan, señoritoen batalloi antzera. Andik aurrera ez zan señoritokeria, ez. Jarri giñan bidean oiñez, Otxandiotik Gasteizera doan errekatxo orren bazterretik. Euria goian-bean. Lupetza ta basatza, sasia ta arantza. Eta errekatxo orretan uriola, askatik ganezka egoala. Bigarren linea zala gurea, eta orra or, batetik euria eta bestetik erreka, eldu giñan Ollerias auzoko mendira.

Ez dakit nola edo zelan esan al izango dodazan an, egun bi edo iruan, jazo ziranak. Bigarren linea-koak giñala, bai; baiña lelengo guk aurkitu genduz-

nak, erreketek izan ziran. Neuk nere artean esaten neban:

– Gure gerrak bateoa Intxortan, eta oraingo au konfirmaziñoa ete dau? Au barriro bateoa edo konfirmaziñoa; batalloi moduan bateoa eta gudari moduan konfirmaziñoa.

Errekaxua, len esan dodan lez, bere askatik urten da ganezka, ainbeste euriagaz. Gu joan giñan erreken eskumatik.

Bestaldetik, batalloi bat beintzat, *Loiola* batalloia izan zan, gipuzkoar gudari jator eta odoltsuakaz. Uste dot, Durungotik guk urten baiño len, an egon zirala. Gugaz batera ez ziran joan beintzat.

Gure aurka eguraldia, deabrua ta danak. Gure zuzendari nagusiak, bada, kapoteak be emon eusku-zanak, zuriak edo grisak izan ziran; eta jantzita eroan bear izateko euria egiten eban, olan arerioak obeto ikusi geintezan.

Bestalde, erreka ganezka eta bertatik atakatu bear zala. Bertara aillegatu ta zuzendari nagusiak beste aldera igesi egin ebala, traiziñoa egiñik.

Alan da guztiz be, gure komandanteak eukan ordena, kapitan guztiai emoteko. Alkartu zan eura-kaz. Neu be, nire anai Erremundo kapitan izan zan lez, bere laguntzaille edo atzezain antzera bertan egon nintzan. Orduan ziran arrastiko ordu biak inguru; eta, beste *consigna* batzuen artean, Iñaki Arana komandanteak onela diñotse:

– Ordu bete barru, or arratsaldeko iruretan, en-

tzungo dira iru kañonazoren trunbadak, atze aldeko menditik botata, eta ori izango da Billarrealera asaltoa egiteko seiñalea. Guk alde batetik; eta Albertia mendiaren aldetik, *Loiola* batalloia, Gipuzkoakoa.

Onetan, bost kapitanak baiño bizkorrago erantzun neuntsan komandanteari, anaiaren kerizpean ez neukan bildurrik eta:

– Ori, ezin leiken gauza bat da. Bada erreka ori indartsu dator eta ezin leike pasatu. Agindu ori ezin leike bete, agintzen daben moduan.

Ango ofizial guztiok orretan egozan. Ta komandanteak esan eban, ori baekiela berak be; baiña erreka ondoko zugatz garrazta botata, enbor eta abarrekin sartu egin bear zala, ori zala ordena ta.

Bun! Bun! Bun! abisua. Jarri giñan martxan errekatxurik errekatxura, sasi ta arantza, potzu ta lupetz artetik. Asko kostata eldu giñan erreka ondorra eta *alto*, bertan gelditu bearra. An ez egoan ez trontza bat, ez azkora bat, ez zugatzak bota ta zubirik egiteko ezer. Zauritu bertan ainbat, eta illak be bai.

An il ziran Soloeta Igorrekkoa eta Santi Artetxe Zeanurikkoa. Au oso zauritua izan zan, eta ospitalean, Zornotzan il zan, egun bi edo iru barru. Zaurituak ainbat, eta euren artean Patxi, Areatzako panaderoa.

Gu lau anai joan giñan konpañia baten, Arratian. Zarrena kapitan; ta gazteena, Jesus, ikurriñagaz. Eta ikurriñaren makilla jo tiro edo bala batek, eta ikurriñaren makilla apurtu.

Gau aretan, Soloeta bertan il zan gudariaren gor-

pua, bere jaioterrira, Igorrera, eroan eta goizaldean frentera barriro biurtutean, gure anai kapitana, berak euki eban automobil txiki baten Billarrealera gauzez urreratzean, kotxearen argiak amatau egin bear, eta or non joten daben arbola bat; eta, naita astiro etorri kotxe ori, muturragaz jo parabrisa eta sudur guztia andituta agertu zan anaia, gu gengozan lekura.

Ni egon nintzan lez kamiñotik lelengotariko bat, itandu eustan non da zelan egozan beste guztiak.

Bada beste asko gugandik aparte ziran lez, eta bitartean deskubierta bat egon zan lez, esan neutsan ez nekiala gauza andirik, aparte egon zirala ta.

Orduan esan eustan lo apur bat egin gura ebala, gau guztian ez ebala begirik itxi ta. Eulki-eperdi bat neukan neuk, neu egoteko, lupetzagaitik; eta berari itxi neutsan, bertan burukada bat lo egin egian.

Au zan goiz partean, deskubierta ori bitarte zala, ta deskubierta orretara apuntatzen eukiezan erreke-teok ametralladorak kanpantorretik eta kanposantu zarretik. Eta kapitan zan anai orrek, ordu lauren bat lo zorromorro eginda, non diñostan beste lagunak zelan dagozan ikustera doala, ta besotik eldu ta esan neutsan:

– Ez adi joan, bada doazan eta datozen guztiak botaten jabezak.

Bada ordu aretara arte an ez egoan tiro bakorik. Lurra be jaso egiten eben. An zauritu ziran ainbat.

Antxe jazo zan, bada: oillotxuenak edo baliente-ztat ez egozanak ipinten ziran kamillero. Olan, nire ondoan egoan Benito Zabaleko deitzen geuntsan

mutilla, gure senidea, Zeanurikoa, kamilleroa. Zarata gitxikoa, baiña mutil zintzoa. Eta, zauritu bat deskubiarta orretan jausi zanean, Elorrioko mutilla bera, *Iñaki San Migel* konpañiakoa, nik esan neutsan:

– Ea, Benito: ori eure egin bearra dok eta ekarri zauritu ori.

Eta, txitik egin barik, artu esku bategaz kamilla eta etzun, da tarras joan bere ondora; buelta erdi emonaz, kamillan jarri; etzun da tarras, gure ondoraiño ekarri, eta anbulantzian ospitalera. Orra or ze baliente portetan ziran gizon edo mutil gixajo antzekoak.

Bada ortik, deskubiartatik, pasa zan nire anai kapitana, nire esanai eta indarrai jaramonik egin barik; eta orra or mirari antzeko bat: bere pausu normalean joan eta tiro bat be ez eutsen bota. Ardao tragoren bat artzean egongo zan ametralladoreko erreketek edo tiratzaille ori; edo kandelaren bat baegoan biztuta nonbaiten.

Egun ori igaro zan zelan edo alan. Bururik ezin altzatu iñork. Gaba eldu zanean, erreleboa menditxobaten atzeko aldera, Ollerias aldera.

Baiña eguraldia eurietatik pasa zan edurretara, ta an ez egoan ezer legortetarako. Ez egoan ez zulo bat, ez gaztaiña arro bat, burua edurretik salbetako, naita edurtza andirik ez izan.

Eta au bai zan, au! Injenieroak esamiñatzeko epe barik, non agertzen diran naturalezako injenieroak, atxur ta azkora pare bategaz, *Makana*, Bizente Sargarna, Zeanurikoa, Gorbaieko pastorea, buru zala.

Ez metrorik, ez plomadarik ta ez eskuadrarik, eta

irurogei lagunentzako jauregi bat ordu bi inguruan jaso, eta au ez zan txantxetakoa. Balio eban gure batalloiko beste konpañientzat be. Erreleboak egin ziran orduan. Txabola nola egin ez ekien bilbotarrak ezer be. Baiña areintzat be ondo etorri zan.

Beste gauza andi bat: lelengo sua nolan edo zelan biztu, edurragaz estalduta dagon lur baten? Orretan be, an egozan Makanaren antzera pastore mendian izan ziranak, eta Markonik baiño errezago biztu eben sua.

Edur azpiko ota ta kiñerraren azpitik ataratako errekin sikuagaz, eta kartutxo bat apurtu eta bere polboreagaz, su ederrak egin ziran konortatzeko.

Txabol ori egindakoan, guztiok otzak illik eta erdi bustirik egon giñan lez, suaren ondora inguratu giñan. Makana orrek, berriz, ez eukala tokirik suaren ondoan egoteko eta onela esaten eban indarragaz:

– Txabola neuk egin dot, baiña danontzako lekurik ez dagoan lez, kanpora neuk urten bear ko dot.

Bera bernautsik eta mangutsik egoan, arkando-reagaz bakarrik, eta su ondoan ainbeste jende ikusiagaz, esaten eban:

– Jakin gura neuke otz ori zer dan!

Edurra, alde batetik, gogorra da. Baiña edurra botateko laiñoa bear da. Eta, orregaitik, suak egiten eban keia abioiak edo abiadoreak ez eben ikusten.

Alan ta guttiz be, alkauete deitzen geuntsan abioia ibili egiten zan; eta alako laiño bitarte baten ikusi be egin zan. Baiña fusil ametralladora on bi geunkazan konpañian. Pitarke deitzen geuntsan areatzatar bat izan zan baten arduradun, eta gora-

txuago igon ta *danba-danba* beste fusilero batzuekaz. Alan, jiro zelebren bat egin ta ez zan agertu geiago alkauete ori.

Bertan, mendi larra orretan, egin gendun alako esploraziño edo deskubierta bat, gu gengoan inguruak zeaztuteko. Alako baten, asko ibili baiño len, aurkitu gendun, ez dakit nork edo nortzuk eginda, baiña zugatz batetik eskegita, asto edo beor bat, narrua erantsita eta guzti. Il barri egoan itxuraz, ta ganera eguraldia izotzezkoa, kamararen antzerakoa; eta aragia fresko-fresko, eta ganera ondo gobernatuta edo itxura ederrean. Eta naita ez euki iñork ez gatzik eta ez ezer, bera utsean erre ta zati eder batzuk jan genduzan, eta sabela beteteko ederto etorri jakun.

Esaten eben lagun batzuek beorraren okela oso ona edo gozoa dala. Baiña ez dakit nik gozoa edo gosea zan. Kustiñoa da gustora jan gendula, ta sarri askotan ez lakoa, alkarri «on egin» esanda.

Gero, egun bi barru, Otxandioko Mekoletara erretiratu giñan. Mekoleta orretan be oso ondo konpondu giñan, batez be gu Pujanatarrok, gure lagun batzuk geugaz zirala. Bada bertako famili bat gure bigarren lengusu edo olan ziran, eta batalloi guztia naita neiko ondo izan, gu apur bat seiñalatuak, eskerrek senide oiri. Beintzat, arrantxotik aparte ez jakun faltetan taloa eta esnea. Eskerrik asko senide oiri be.

Gero Durungora, atsedan artzen. Egun bi edo iru barru, Elosu eta Nafarrate, Billarreal ondoko erritxu bira.

Baiña batalloia Durungotik joan baiño lenago, ni gelditu nintzan Durungon, jesuitetan, armerian. Bada orduan egon ziran zurrumurruak, lau anai gudari egon ezkerok, lautatik bat joan leikela etxera ta zarraparra; eta orduan be izan genduzan geure goraberak anai kapitanak eta nik. Bada berak ez eban gura jakin be olangorik.

Bestalde, orduan esaten zan, lau anai, batera laurak joan ezkerok, laurak batera jausi leikezala ta abar. Baiña, bestalde, zauritu bat-edo izan ezkerok, olan alkar zaindu be obeto. Azkenez erabagi gendun lau anaiok bat egiñik jokatutea.

Baiña jazo zan, anai gazteena, Jesus, maisu tituluduna zala, ta arek joan bear ebalatente kadete egiteko esamiñatzerat; eta orduan, ez egoan lez denpora andirik ofizial egiteko ta abar, anai gazte ori, akademiara joan da lasterrean, ez dakit zenbagarren brigadan sartu zan, *Plana Mayor*'ean edo olan, ez dakit zer erresponsabilidadeagaz.

Asi giñan banatzen. Baiña, alan ta guztiz be, noizean beñean ikusten giñan, eta oraindik mantenduten gendun laurok alkarrekin jarraitzeko asmoa, azkenean be.

ERMUA

Gabon inguruan, 36'an, joan giñan Durungoko kuarteletik Ermura batalloia. Iru illabete, egun batzuk gora-bera, an egon giñan, erreketek atakerako prepartan, eta gu atsedena artzean edo ez dakit zer. Ori izan zan guretzat udaro edo opor on baten antzerakoa.

Bertakoa zan nire lagun on Emilio Areitio, Durungoko armerian ezagutu nebana; eta bere gurasoentzat beste seme bat lez izan nintzan. Ederto igaro genduzan iru illabeteok, eta ganera asko ikasi armeritzan. Baiña bai, euki neban aldi aretan disgustuko jazoera bat, len aitatu dodan lez.

Ermun egon giñan martiaren azkenerarte, eta batlloi osoa egon be; eta, naita iru illabete bake antzean egon, beti egin bear izaten genduzan instruziño ta maniobrak, eta baita armerian giñanok be, batlloiagaz batera, ametralladorakaz, bonbakaz eta abar.

Bada, gure batalloia naita izan zortzigarren brigadakoa, brigadatik aparte be eukiten genduzan geure

armamentu eta tallerra. Brigadako zuzendariagandik aparte, ixillean, eukiten genduzan bonbak, esku-koak. Geuk, lau armeruok, kargatu edo bete ta espoletak ipinten geuntsazan. Lau armeruok izan gintzazan, ori kontu guzti ori ixillean erabilten gendunok, komandante eta kapitan guztien jakiñez.

Lau armeruok giñan: Juan Aseginolaza, semez Zegamakoa eta Plasentzian (Soraluzen) bizi zana gerrara arte. Geroztik, norlean, ipar aldean, gerra amaitu zanetik, ez dot jakin bere barririk. Ez dot uste gerra ondoren zigor edo kartzela askorik izango ebanik. Bada orduan be ainbat urte eukazan; eta, ganera, gizon zintzoa eta oso ona zan. Aldi aretan baeukazan seme-alabak, ogei urte edo goragokoak.

Bigarren zarrena, Jose Arzelai, Bizkaikoa, Etxebarrikoa. Au, gero esango dodan lez, Zornotzan, Euban, il jakun, kañonazo baten metrallagaz.

Irugarren zarrena, edo bigarren gazteena, neu nintzan. Ogei ta iru urte, soldaduskatik etorri barri eta armero. Batalloian izan aurretik, len esan dodan lez, lan egiten neban militarizatuta, Bilboko *Fundiciones Ituarte*'ren tallerretan. An egiten ziran bonbak, esku-bonbak eta obusak, bai kañoientzat, morteroentzat eta abioientzat be.

Elgetara joan aurretik, an egon nintzan; eta gero, nire iru anai an joan ziralako, neu be eurakaz batera joan nintzan.

Baiña ori izan zan desertore antzerako uts andibat, eta nondik edo nora, eusko gudaroztean egon zan lez nire fitxa barria *Ibaizabal* batalloian zelan nengon, billatu ninduen; eta, Ermun gengozala, ko-

mandanteak, Iñaki Aranak, dei egin eustan beragana joateko.

An egon ziran komandante laguntzaille esaten geuntsana, Luis Erauskin, *Petxo*; Undabarrena, komandante intendente; baita be komisarioa deitzen geuntsana, Arrinda. Sarritan antzera, ni joan nintzan nire anai Erremundogaz, konpañia Arratiaren kapi-tana.

Lelengo esan eustazan berbak komandante Aranak, izan ziran:

– *Pujana, buen gudari, buen armero. Pero si caes con este caso en un batallón asturiano, tenías castigo de fusilamiento* –profugogaitik edo ez dakit zer–. *Haremos un escrito de tus circunstancias, y que tú ignorabas la responsabilidad por esta falta.*

Eta ez dakit zer geiago.

Etorri nintzan edo joan nintzan *Hotel Carlton*'era, eusko gudaroztera, nire anai Erremundogaz, ea gelditu al banintzan batalloian, armero nintzala ta. Baiña erantzuna, ezin zala ezer egin, goiko ordenak zirala ta.

Alan ta be, papel bat emon euskuen, eta presentatzeko tallerreko zuzendari militarrengana. Au zan komandante militarra, asturiano bat. Baiña beste zuzendari zibilla be baegoan, gerra sortu baiño aurreragokoa. Au zan Emiliano Agirrezabal, ni aurretik ezagutzen ninduna.

Suertez, beronegaz aurkitu nintzan; eta, irakurri-rik eroan geuntsan papel ori, ta anaiak eta nik ipini-tako sentimentu eta errazoiak erantzunez, esan eustan:

– Derrigorra da zu militarizatuta zagozan lanera etortea. Baiña zuen errazoiak onarturik, nik emongo dautsuet emengo baimena badozuela; baiña batalloitik barriro eskatu bear dozue eusko gudaroztera bialduteko; geure komandanteari emon eta berak komuniketako, papel orretan doan lez; eta komandanteari eroan edo emon papel ori.

Ez dakit gero zer izango zan. Bada andik egun gixti barru asi zan, martiaren azkenean, burruka nagusi ori.

Laugarren armeroa izan zan, len be esan dodan lez, Emilio Areitio, Ermuko semea, eta ganera mutil jator, zintzo eta oso abilla. Beragaz ikasi neban pistolaren barri asko.

Bere lagun bat, eta gero nirea be bai, Santi edo Tomas, tallerra eukan mutilzar bat, baiña oso ona era guztietan.

Emilioren aitak be baeukan tallerra, uragaz edo bere indarrez makinak erabilten ebazana, eta antxe egiten genduzan mekanikazko txapuzak. Batez be, fusil ametralladoraren *recámara de gases* esaten geuntsana ez enkaskillatzeko. Bada, tiroaren kedareak diametroa azi eta anditu egiten eutsan, eta indarra galdu egiten eban baleak.

Ermun giñala, batalloiko batzuek jarri eben kantu au, eta ganera barre asko eginez kantetan gendun:

*Somos los gударis del Ibaizabal,
de intendente tenemos a Flemón,*

*y no nos da para engañar un diente,
lo suficiente para poder vivir.
Protestas y siempre protestas
recibe del batallón,
y él siempre nos contesta:
«Son cosas de la revolución».*

Baiña kantua broma zan. Ermun egon gintzazan denporan, janariz be ondo samar izan giñan: barbantzua ta arroza nastuta, ta zerbait aragi ta arrain be izaten gendun. Jatekoagaz ezin zan keجاتu, bada erria, zibilla, gu baiño obeto ez egoan beintzat. Intendentea portatzen zan, eta bai gipuzkoar anai kozi-neroak be.

Bein baten, orduan be aldi aretako demokrazia egoan lez, erdi broma antzera, baiña konpañia Arratiako gudariak euren kapitana zan Erremundori, filan jarri bear zala esan eutsen, arrantxoa artzeko; ta, txitik egin barik, beste guztien artean jarrita, ta lurrean jezarrita, an jan eban beste gudari bat lez, esanik:

– Adarra jo gura daustazue? Bada or daukazue.

Urrengo egunean be, esan eutsien gudarioi kapitán orrek, itxi egioela euren filako arrantxoa artzen, bada ofizialena baiño obeagoa zala ta.

Baiña ori ez zan mendiko konbatea; ori izan zan lar ondo egotearren. Ez; ez geunkan kejarik jatekoagaz.

Nik eta, bertako zan ezkerro, nire lagun armero Emiliok, guk geienetan arrantxo ori artu ta bere gu-

rasoen etxean jaten gendun; eta nik, barriz, lo be bai. Beste seme bat nintzan, len esan dodan lez, Emilio-ren gurasoentzat.

Bertan gengozala, Bermeo aldeko itxasoan ez-bearren bat jazota-edo, itotako batzuk izan zirala-ta, laguntzeko diru apur bat batzeko jai bat antolatu eben bertako batzuk, gure batalloia artuta bertako numerorik geienak egiteko: pelota-partidu, kantari, bertsolari elgoibartar bat eta ni. Ta baita zerbait diru batu be.

An gengozala, egun baten jazo zan kamioi batek jo ta bertan il egin ebala Iturruts'ko *Rubio* deitzen geuntsana, mutil ederra eta jatorra, kanpañia Arratiakoa (G. B.).

Mallabia alderantza be joaten giñan, geienetan zortzi edo amar mutil, gudariak, Errekalde baserrira. Baserri au, jauregi antzekoa, ez zan txantxetakoa. Aldi aretarako baserri aberatsa ganaduz, ortuariz, esnez, artoz eta alaba ederrez. Bertan egiten genduzan talo ta esnez betekada ederrak. Bein baten, talo ta esne larregi janta, solora joan bear izan nintzan arnasa artzera; bada, arnasa artzerakoan, esneak aotik urten egiten eustan.

An be, talogintzaille gendun Bizente Sagarna, *Makana*, Billerleko txabolagintzaille edo injenieroa. Oso talo gozoak, eta artista onak lez egin be. Aidean taloa bota ta emoten eutsan buelta be. Baiña txabolagintzaille ta talogintzalle bakarrik ez; artista bere esaerakaz, ta gudari oso ona tiroa botaten be. Gerra amaitu ta igaroak igarota, Larrabetzun bizi zan eta orain dirala urte batzuk il zan (G. B.).

Gabonak be gure batalloi orrek alai igaro ebazan. Sekulako jai ederrak igaro ebezela ta danok pozez. Gabon jai orreitan ni ez nintzan suertatu; bada ni etxean izan nintzan gure aita ta neba-arrebakaz igarroteko, eta egun batzutan oean gelditu bear izan nintzan kalenturagaz.

Bertso au bialdu neutsen anai ta lagunai:

Gure Ume Jainkoa
munduratutean,
ostatu eske dabil
atean-atean.
Bi milla urte eta
gizonak katean,
ea apurtzen diran
aurtengo urtean.

DURUNGOKO BONBAKETA

Martiko azken egunetan bai egoan zurrumurrua, ofensiba edo burruka gogor andi bat gertuten egoala Bizkaiaren kontra, Mola jenerala buru zala.

Baita be entzuten ziran Molaren intentziño eta gurariak oneik zirala: Euskadi guztia artu kosta ala kosta, gudari ta euskal usaiña eukan guztia ilteko. Zer pentsatzen gendun bakotxak geure barruan? Eutsi azkenerarte! Au da eusko odola.

Eta or, martiaren 31'an uste dot, non agertzen diran abioi alemanak edo italianoak, *Junker* edo arraio: geu Ermun egon gintzazan trokarrotik Zaldibar aurrera, bederatzi edo amar trimotor Durungora, eta bertan asten dira bonba orreik botaten, erri guztia apurtuteko ustez, eta beragaz barruan egon ziran guztiak, naita militarrek edo gudariak ez izan.

Bada egun areitan ez egoan gudari askorik Durungo barruan, gero esango dodan lez. Naita iñoiz irakurri dot *Otxandio* batallioia ta abar egon zirala, guk ez gendun olangorik iñor ikusi.

Goizeko lelengo orduetan izan zan lelengo bonbardeo ori; eta, oraindik Ermun gengozala, artu zan ordena bat eusko guradoztetik, konpañia bat bialdu-teko Durungora, an laguntzeko erriari.

Konpañia ori *Arratia* izan zan, eta andik laster-rean Durungon gengozan.

Gure ordena izan zan *orden público* egitea eta bizirik ziranai bakarrik laguntzea.

Egon gintzazan diñot, bada neu be konpañiaren armero lez joan nintzan, naita kamillero lez lan geia-go egin bear, bada orretan egon zan zer egin andiena.

Beste askotatik, ikusi gendun eliza nagusia guztiz apurtuta, eta ildako asko egozala eskonbro azpian. Baiña orretan, edo eskonbruok kentzen, ez gendun parte artu. Esan dodan lez, zaurituai eta bizirik egozan guztiai laguntzeko ta ordena ipinteko bakarrik zan gure agindua.

Arrigarria zan benetan an ikusten zana. Leku guztietatik, alde guztietatik, etxe guztietatik eta okolu guztietatik deia, negarra eta oiua.

Moja komentuan, mojak il ta zaurituta. Komentua apurtuta. Guztiai laguntzera joan ta entzun bear oraindik:

– *Esos rojos lo han hecho* –mojak.

Bai; gure lekuan asturianoak izan baziran, leku onean egozan moja orreik. Baiña, alan ta guztiz be, gure ordena eta lana guztiai laguntzea izan zan.

Bertako jesuiten aurreko etxe baten jazo zan. Suertez joan giñan aruntza be, eta jausita egon zan etxe baten, lurrean zerbait zarata entzuten zala ta, asi giñan begira zer jazoten ete zan. Urreratu giñanok

izan giñan nire anai Bizente eta Jose Mugarza, gero Santoñan fusilatua izango zana.

Etxe barruko ormaren kontrako eskuadra baten, egurrezko age batzuk okolu edo gela egiten eben. Eskonbro eta egur batzuk kendu eta ara non, ezereen zauririk barik, aurkitzen doguzan aitita bat eta bere illobatxu bi. Sei eta zortzi urte inguru eukiko ebezan orduan.

Aitita, alan dan lez, onezkero ez da biziko. Baiña nortzuk ete ziran areik, mutiko biak? Biziko al dira? Ea, bada, au irakurri ta alkar ikusten garan, eta besarkada andi bat emon alkarri.

Bilbotik Donostira doan trenaren estaziñoan agertu ziran eun da piku milla pezeta; eta, gauza sakratu baten antzera, oso-osoan entregatu geun-tsazan bertako jefeari.

Len esan dodan lez, Otxandio batalloia an egon zala diño e idatzi batzutan. Baiña guk ez gendun ikusi, eta besterik be ez; eta, emen neuk eta geuk ikusia baiño ez diñodan lez, baleike an egotea. Baiña barri-ro diñot: guk ez gendun ikusi.

Andik-ortik, txarto edo ondo, al danetik ondoen gauzak eginda, bazkarira an-or-emen bananduta, arrastirako bai egoan lana egiteko, baiña bazkal ostean dantzan ta etzun egin bearra sortu jakun barri-ro.

Bada badator ostera be inpernuko motorren durundua; eta, iñurriak euren bizimoduko lur tontorra joten jakenean baxotxa bere lekutik asten diran lez, konpañia *Arratia*'ko guztiok, eta an ziran guztiak, zabaldu giñan erreka bazter eta soloetara.

Len esan dodan Jose Mugarza, anai Bizente eta ni solo bateko urbide baten etzun giñan. Tranbi zarrok gane-ganetik pasa ziran, eta badiño Mugarzak:

– Nire Jesukristo Jauna erreztatu bearko joguk, bada oneik gure ganera jatozak!

Gu egon gintzazan baiño apur bat aurrerago asi ta jausi ziran bonba guztiak.

Gure konpañian ez gendun zauritu bat baiño, eta ez zauri andi askorik.

Tranbi zarrok joan edo ondatu ziranean, barriro lanera. Zer egin bear zan? Barriro ordenatu, eta beintzat zaurituak pillatu, anbulantziak eroateko; eta zauritu bakoai lagundu.

Bearbada, au gogorragoa izan zan: zauritu bakoai laguntzea. Askok bai, baiña beste askok ez eben gura alde egin, euren maiteai, euren ondasunai eta baita be erriari laguntzearren.

Al zan guztia al zan ondoen egiñez, etorri zan illuntzea; eta geure agindua al zan ondoen bete gendulakoan barriro Ermura joateko alkartzen gengozala, an agertu zan Telesforo Monzon, eta arratiarrontzat egin eban berbaldi edo arenga txiki-labur bat, eta onela esan euskun: Arratiako konpañiarentzat eskatuko ebala *medalla al mérito militar* edo olango antzeko bat.

Agur Durungo martiriari, eta Ermura.

ZEANURI

Egun areitan, Durungo eta frente guztiko erriak, txikiak eta andiak, geienak bonbardeatu ebezan egazkin eta kañonazo orreik; eta, euren artean, Zeanuri ta Baratzar aldeko frentea be bai.

Ofensiba au asi baiño egun batzuk aurrerago, egon nintzan Zeanurin, geure etxean; eta aita, arreba eta anai gaztea, amalau urtekoa, ondo itxi nebazan.

Baiña ofensiba ori asitakoan, an gure etxe ondoan egon zan ipinita gure aldeko artilleria, *ligera*; ta alboratxuago *pesada*. Gure auzunearen izena da Zulaibar. Gure etxearena, barriz, Ugerkazelai.

Apirillaren lelengoetan, beste frenteetan antzera, izan zan Baratzarko ofensiba be; eta, Ermun gengo zala, egunkarietan irakurri gendun Zeanuri bonbardeatu ebela; ildako bi eta zaurituak izan zirala, zibillak, bonba ta obus artean; eta adierazten eban gure etxeko auzunea, Zulaibar, izan zala.

Anai kapitanak esan eustan, ikusten zanetik, gure errian eta batez be gure auzo eta etxe inguruan gauza

negargarriren bat jazo zala eta ni joateko jakitera. Nire anaiaren agintza au partikularra izan zan.

Apirillaren 5 edo 6'an izango zan. Armerian neukan fusilik eta onena leporatuta, anaia ibilten zan kotxean, Berriozabal Sabino txofer zala, etorri nintzan Durungoraiño; Durungotik Lemora tranbian; eta gero, tranbi, kotxe, oiñezean eta abar, eta kamiñoz, eldu nintzan Zulaibarrera eta gure etxera, arrasti beranduan.

An aurkitu nintzan koadro larri samingarri bategaz: eritxia edo sospetxa gendun lez, bonbardeo ori gure auzunean be izan zan.

Lelengo ikusi nebana, gure etxea zati andi bat apurtuta; bada teilletutik sartu zan obus bat; eta orrela, aita bera be zaurituta egoan orkatillean zauri bategaz, orkatillea eta bernea zauritu ta bendatuta. Baiña zauria andia ez zan lez, bere bei eta burdiagaz urten guran, burdia trastez beteten aurkitu neban, nora joan jakin ez arren, bidean jarteko erabagia artuta; bei bi buztarrian eta beste bei bat burdiaren atzean, iges egiteko gertuta; neba-arreba gazte biak Areatzako ospitalean egozala zaurituta esan eustan, ta aita jarten da bidean tipi-tapa.

Gure etxea apurtu eban
kañoi madarikuak,
baita aita ta anai ta arreba
metrallakaz zaurituak.
Gauzok ez ziran izango bada
zeruan ontzat artuak,
nai-eta izan abaden batek
kañoiok bedeinkatuak.

Aitak baita be esan eustan, gure auzoko Esteban Aztondoa il egin ebala eurak zauritu ebazan bonbak.

Gure etxe ondoko artilleria, Baratzarrerantza begira egoan. Alkar izketan gengozala aita ta ni, ondoan egoan artillero bat agertu zan. Suertez, artillero au izan zan, oraindik urtebete ez zala, Zaragozan soldaduskan nigaz batera egon zana.

Bai ordu onean alkartzete au! Esan leikean aingeru jagolea oraindik gure auzoan egoala. Bada guk, neba-arreba guztiok, beti esaten gendun, gu guztiok, umetan be, aingeru jagole orrek zaintzen ginduezala; bada txiroak giñan, errentadoreak, eta guk erabilten genduzan lurraldeak txikiak ziran, naita oso lur onak eta gozoak izan, artoa beintzat ugari kosetxetako. Baiña nik, seigarren jaio nintzan onek, iru urte neukazala, etxea erre. Goian zerua eta bean lurra. Nire urrengoak, Jesusek, urte bete eukala jazo zan ori, eta oraindik beste neba-arreba bi etorri ziran. Ordura artekuoi zain egiten euskun aingeru jagoleak; eta gero berak zainduak izan giñan lenagokoak eta geroagokoak. Gure esker ona emon bear dautsagu ezer kobratu bako eta neurri bako laguntza orri.

Lengoari jarraituz, aitatu dodan soldadu lagun izan zan onek salbatu nindun egun areitan, aingeru jagole ori gure gain egaz ebillela. Bada, soldadu lagun zan au bitarte zala, artu neban laguntza, ta bearbada bizia salbatu be bai.

Bada, lelengo, berak eta bere lagun batek lagundu euskuen burdia betetan.

Artillero lagun orrek esan eustan, Zeanurin be, andik kilometro batera, abade bat eta erriko kon-

tzejal bat komunistak-edo fusilatu egin ebezala, eta errekako sasitzara bota.

Ni ez nintzan joan errira, plazara, bada neiko neukan etxean aurkitu nebanagaz.

Gero, aitak urten eban orduko, gaba eldu zan eta lagundu egin neutsan bide alditxo batean; kilometro erdi edo olan.

Aita an doa burdiarekin
desterratuen antzera,
gau illunean Jainkoa lagun,
noiz etorriko atzera?
Nora aillegauko dan ez daki
baiña adorez aurrera,
itxaropenez ori zala ta
askatasunan bezpera.

Euskadin gerra amaitutean
barriro etxeratu zan,
beste kurutz bat leporatuta,
lengoa neiko ez bazan.
Oraindik bera alargun barri,
lau seme lau kartzeletan,
fedeak ez dau iñon azkenik
or ez bada akabetan.

Seme gazte ta illobatxuak
bere arduran artuak,
lau seme eta suiñe frentean,
gero kartzelaratuak.

Istorirako fede, pazientzi,
baeukan bein Job santuak,
aren antzeko asko zirala
ortik atera kontuak.

Erretirada bildurgarri bat izan arren be, frentea Baratzar, Altun, Gorbaie eta abar gelditu zan, gure auzunetik amar kilometro inguru. Frente ortan egon ziran asturiano ta komunistok, porrot egin eben, eta erretiradan ilte ta asalto ta barrabaskeriak egin ebezan. Eta naita frentea urrin egon, asturianuok errefuertzozkoak artu ebezan gau aretan.

Errefuertzuzko frenterantza gure auzunetik bidez-bide etozela, nire bizia ari baten ikusi neban. Bada aitari bide apur baten laguntzen lenagoko farol bategaz joan nintzan, eta non egiten dodan topo asturiano konpañia bategaz; eta ni, malezi barik, farol orregaz kamiñotik nire ezagun artillero orrengana, eura-kaz batera gaba pasetako; eta bertan:

– *¡Alto! ¡Compañía, alerta! Parece que estamos cerca.*

Eta kapitan edo teniente edo nagusi egiten eban orrek badiñost:

– *¿Quién es usted? ¿Qué hace usted con el farol encendido? ¿A dónde va?*

Nik egia:

– Ni etorri naz nire aitari ta etxeakoai laguntzen, geure etxean au ta ori jazo da ta. Or ikusiko zenduen gizon bat burdiagaz, eta ori da nire aita. Frentetik etorri naz eurai laguntzen. Lau anai gagoz frentean beste alde baten, eta anai bat kapitana be bada.

Baiña farola piztuta euki neban lez, gogor artu nindun. Itxuraz uste izan eban teniente orrek frentea bertan egoala edo ez dakit zer, eta seiñalaren bat egiten nengola beste aldekoai.

Eta jakiñik erriko parrokoa ta bere loba kon-
tzejala il ta beste gauza negargarri asko egin ebezala,
liburu au beteteko beste pentsamentu pasa ziran nire
burutik une labur orretan. Orduan esan neban:

– Galdua naz! Ilgo nabe!

Baiña aita bere burdiagaz aurkitu eben lez, eta
esanik barriro be zer jazo zan gure etxean eta aitari
laguntzen etorri nintzala, ta anai bat kapitana neuka-
la ta beste ainbat errazoi, azkenez itandu eustan ea
auzo aretan edo inguruan baegoan nire errespon-
tsable agertuko litzakenik iñor. Orduan nasaitu nin-
tzan apur bat:

– Au dok, au!

Artilleri orretatik ur egon giñan lez, esan neutsan
baietz, bertako artilleroak ezagutzen ninduela; eta
orduan bai, indartsu eta nasai dei egin neutsan nire
lagun orri:

– *Oye, Pérez: soy Pujana. Ven, por favor, para
que des razón de mí.*

Bertan agertu zanean, teniente-edo orrek itandu
eutsan:

– *¿Ustedes qué hacen aquí?*

– *Somos artilleros y estamos en la batería.*

– *Pero éste ¿qué hace con el farol encendido?*

– *Es que viene de su casa, a dormir con nosotros.*

Orrela salbatu nindun mutil ta lagun zintzo arek. Baiña milla balaren durundua baiño bildurgarriagoa izan zan niretzat une ori.

Gero, gaba artilleroakaz pasatu neban, lo apur bat eginda; eta goiz aretan ni joan nintzan Pérez lagunarekin gure etxera. Obus batek jo ta zati bat jausita egoan lez, berak lagundu eustan zerbait etxeko tresnak salbetan: ormako erlojuari eta leioetako kristal batzuei paperak ipinten, danak apurtu ez eitezan; baita be ontzi, bajilla, kubiertoak ta beste zerbait gari artera solora eroaten eta abar.

Batalloira barrero joateko nengoala, non ikusten dodazan iru autobus Zeanurirantza; eta bertan, gure anai Erremundo kapitan dala, Arratiako konpañia osoa.

Ori izan zan, gero jakin neban lez, bezperan eta gau aretan Arratiako erriak eskatu eutsala eusko gudarozteari, lenbailen bialdu egiala Arratiako mutilen konpañia. Bada Arratiakoa, eta batez be Zeanurikoa, izan zan asalto, biolaziño, fusilamentu, lapurreta eta sinistu ezin leikean arrasamentu bat. Oso apurtuta eta oso bildurtuta egoan geure erria.

Nik, nire etxean bakarrik egon nintzan lez, ez neban askorik jakin. Baiña gero ikusi neban sinistu ezindakoa.

Anai kapitanak, geure etxeari begiratu be egin barik, geure etxera, neregana, bialdu ebazan bost gudari, neu be gero eurakaz Zeanurira joateko, kilometro bat bide.

Eldu giñan plazara bost gudari lagunok eta ni. Konpañia *Arratia* Zeanurira allegatu orduko, parro-

ko eta ildako guztiak kanposanturatuta egozan, Beretxikortakoak izan ezik. Eta andik, anaia non zan jakin ta gero, joan giñan bera beste gudari batzukaz egon zan tokira.

Au izan zan il eben parrokoaren etxea, edo izan zana, bada arek ez eukan etxe baten itxurarik be. Errira sarreran ikusitakoa, bezperako eguna, eta geroago ikusi genduna, ez ziran izan mundu onetakoak.

Bai; egun batzuk geroago izango zan Gernike erretzea. Aurretik Durungokoa, Otxandiokoa eta beste ainbat erritakoa be oso arrigarriak izan ziran. Baiña neure etxe ta neure erria era aretan ikustea, nire barruan artzeko edo sinisteko beste indar, pazientzi eta erresinaziño ez eukan neure izateak, naita fedea eta itxaropenak iñon azkenik ez euki. Zelan edo alan esan al izango ete dot. Nire barrua irikiten eta nire buruan ikusten nebana ezin sinisturik nengon. Eta neuk ezin sinistu dodana, zelan sinistuko dauste irakurleak? Dana dala, noian aurrera, esan al badot.

Anai kapitanagana eldu giñan. Parrokoaren etxe-ko gela baten egon zan, teniente Artetxe, Arantzazuko Olarra auzunekoa, eta lau gudariakaz, diskusiño gogor baten komunista komandante ta bere lagun batzukaz.

Une ori ez zan izan txantxetakoa. Bada, lelengo, komunista orreik ziran geure errian agintari eta jau-be.

Gure kapitanak agertu eutsan eusko gudaroztearen agindu bat, Zeanuriko plaza artzeko, defenditzeko eta ordena jarteko, esanik komandante orri:

– *Traigo orden de ocupar esta plaza.*

Baiña komunista orreik ez eben itxi gura, eta euren komandanteak erantzun eutsan nire anaiaren berbari:

– *Pues yo no tengo ninguna orden de dejarla.*

Eta zirt eta zart, eta *sí* ta *no*, ta ez ta bai, komandante orri, esanak esanda, nire anai kapitanak, eka-
rren papel ori erakutsirik, onela esan eutsan:

– *Usted todavía no la habrá recibido, pero esa orden ha salido de Bilbao y la recibirá pronto. Pues la orden que yo traigo ya ve que está en regla; y aunque sea muy a pesar nuestro, tenemos que cumplirla. Tanto es así, que como no nos esperábamos esto, y en la confianza de que ustedes tendrían conocimiento de ella, nosotros, como conocedores de esta tierra, porque somos hijos de aquí, hemos desplegado el batallón –guzurra– en los puntos más estratégicos.*

... eurak be baeuken errazoia, eta euren komandanteak esan eban, eurak artzen eben orduan plaza itxiteko, beteko ebalá ordena ori. Andik ordu bat edo bira konpondu zan. Baiña ordura arte gauzea larri egon zan, bada berba gogorak be alkarri esaten asi ziran. Ta eurak be, Erremundori entzutean indarra bere tokietan zabalduta eukala, zer pentsa eukien. Eta, ganera, euren indar geiena erretirada ostean zabalduta eta zerbait lokatuta, ez eukien oraindik ordenatuta.

Guri, gudarioi ez, baiña kapitan eta tenienteari iskindu eutsezan kopa batzuk; eta koziñatik, eskaratzetik, ekarri euskuen gudarioi be salda eta bokadillo

bana andrazko bik; bada komunista orreik ez eukiezan gizonak koziñero, emakumeak baiño.

Koziña ori zerbait ikustean, bazan an aragia *-ternera-*, oillokia ta abar, janari ugari. Baiña bertan asi giñan desbarajustea ikusten: parrokoaren liburute-gia, geiena, eskilaretatik bera botata; bere sotana eta soiñeko ta abar, lurrean zear. Bakarrik egozan osorik edo itxuraz komandante orren gela eta koziña.

Tira, bada: azkenez ixil-ixilik aldendu ziran komunista orreik, eta orduan urten gendun eta asi giñan erria ikusten. Erria bistan egoan; baiña ez etxe barruetako iskimilia, nastea eta apurketa; eta oraindik etxe barruetan bai egoan batenbat be.

Erri guztia apurtuta egoan; frontoia be bonbakaz zulotu ta teillaz beterik; bide eta kale guztiak kablez edo alanbrez kurutzetuta, ezin ibili be.

Erritar bat edo bi agertu ziran, guztiz arrituta, eta zelan edo alan azaldu euskuen aurreko egun orreitan zer gertatu zan: bildurgarrizko ta ordena bako erretirada egin ebela komunista orreik geienak, *Perezagua* batalloia ta abar; aurrez ekarri ebela dana; Beretxikortako pastorea fusilatu egin ebela bere txakur ta guzti, ta bertan bera itxi; parroko, don Benito Atutxa, eta bere loba Leon, erriko kontzejala, jarri zirala bidean esateko edo esaten erruki apur bat artu egie-la, ikusirik erritar guztiak bildurrez igesi, guztia bertan bera itxita. Bada komunista orreik, uriola baten antzera, guztia ekarren aurrean, len esan dodan lez: gizon, emakume, zar, gazte eta ume, abere, tresna eta balio eban guztia. Eta, erruki eukiteko esaten aurrez jarri ziranean, bide bazterrera eroan biak eta

bertan fusilatu ebezala, Txopoeta deitzen jakon tokian, San Isidroren ermita ondoan, eta erreka aldeko sasitzera jaurti.

Ori jazo zan, konpañia *Arratia* joan baiño egun bi lenago.

Erritar orreïn esateetatik, lelengo joan giñan Don Pablo abadearen etxera, eta an be beste ainbeste: sei edo zazpi komunista, denda andi baten baiño janari geiagogaz. An ez egoan goserik. Oneik be esan euskuen *Estado Mayor*'ekoak zirala, parrokoaren etxean egon ziranen lagunak.

Gero, andik Don Eustakio abade sakristauaren etxera. Bada, jakiñik abadearen aurka egin zirala barrabaskeriok, lelengo ori jakin gura zan. An be beste atopellu bat: etxe guztia aidean; eta formak, gero kotsagratzekoak, ainbat eta ainbat lurrean eta eskilaretatik. Sinistu eziñekoak, eta bildurgarri eta arrigarriak.

Komunista orreik, guk ezer jakin barik, kamioneta bat eta kotxe bitan aldendu ziran.

Gero, baserritarrai be lagundu bear euren etxetara joaten. Don Pablo abadea be, gu an gengozala jakiñik, agertu zan laguntza eske, eta lau gudarigaz Orozko aldera joaten lagundu. Don Eustakio abadeari bere lagundu jakon, eta gero, gerra amaituta, ondo portatu zan, anai Erremundori informe onak emonez.

Areatzara be joan giñan seziño bat, baserritarrai laguntzen, eta an be jazo zan baserritar bategaz, zelan preguntetan eban baserritar batek ea non egoan kapitana, berak be laguntza bear ebala ta:

andrea ta abere guztiak etxean eukazala, ta berari be laguntzeko.

Nire anai kapitan ori, orduan be, egin bearrak beteteko oso zintzoa ta gogorra zan, eta badiño:

– Zu, zu, eta zu gizon onegaz.

Urteten dau bera gizon ori ezagutzen eban gudari batek, eta:

– Ez, ez, ori erreketea da ta.

Eta dirautso kapitanak:

– Zu ixilik eta egin!

A izan zan desbarajuste bat. An ez egoan ez frenterik, ez ordenarik.

Baiña an be jazo zan, askotan jazoten dana. Len esan dodan lez, gu ara, Zeanurira, joan baiño egun bi lenago jazo ziran don Benito ilte eta abar; eta, gerra amaitu ta geroago be, askok uste izan eben guztiaren errudun izan zala konpañia *Arratia*, kapitana buru zala. Ori geien be izan zan informadore partikular bat joan jakola nire anai kapitanari, Areatzan gengo-zala; eta anaiak erantzun:

– Egin bear asko ta saltsa askogaz aurkituten nazen lez, nik ezin neikio erantzunik emon orri; eta, ganera, nik ez dot ikusi. Bada gu Zeanurira etorri orduko izan ziran jazoera orreik.

Guk naita ezertxu ez jakin, ortik etorriko zan gu etxeratu ta gero entzun genduna, Don Benito abadearen senide, eta beste batzuk be, Arratiako konpañiari leporatuz egia ez zana, edo guk eurakaz zer ikusirik ez genduna, bada ilteok egun bi lenago izan ziran.

Sasiak bere ez dau itotzen
egiak daukan indarra,
eta inoiz be ezin amatau
bere argi ta txingarra.
Bada egia dogu betiko
argitan dagon izarra,
eta bera da gizon zintzoak
giatzen ditun iparra.

EUBA

Gu Arratiatik izan giñan bitartean, gure batalloi *Ibaizabal* Ermutik alde egin eta, beste batalloi askoren antzera, orden andi barik ibili zan, Trabakutik Uribarri bitarte inguru, Oiz mendi aldean.

Arratiako konpañia egun batzutan Zeanuritik Gorbaiera be igon zan, Padura batalloiari laguntzera, Gorbaietik Murgira bitarte dagon Berretin mendiko frentera, Padurako mutillak oso nekatuta egon zirala ta. Ganera, edurra, euria, otza ta guzti, oso egualdi gogorak egin ebazan egun batzutan.

Gernikako bonbaketaren barri Gorbaien jakin gendun, bada batenbatek jaso eban egunkaria, eta gauzak guretzako zer pentsatu emotekoak ziran.

Gorbaietik jatsi baiño len edo jatsikeran, Arratiako konpañi ori guztiz alabatua izan zan, bere kapitana aurre zala, eusko gudarozteko nagusi batzukgandik, Gorbaien azken egunak edur ta euri otzak eta gogorak izan ziralako, eta alan ta guztiz be ondo bete ebalako gudariaren egin bear ori. Orreta-

rako ziran asko artzainak; eta, esaera dan lez, «Arratiako zekorra, txikia baiña gogorra».

Eta bertso au kantatu be:

Gorbai ganeko kurutz santua
ain kurutz maitagarria,
gure asaben itxaropen ta
fedearen oiñarria.
Zure azpian asetzen dogu
goi-maitasun egarria,
zaindu egizuz eusko gudari
ta gure Euskalerrria.

Zerbait ordenetako, indar barriak artzeko, bata-
lloiaz alkartzeko, bildu giñan egun bira edo olan
Bilboko Anejako kuartelera, eurak be etorri ziran
da.

Egun bi edo iru atsedeen artuta, maiatzaren lelen-
goetan, joan giñan Eubara, *cota* 333'era. Armero bi
joan bear giñan lez, Jose Arzelai eta ni izan giñan
batalloiaz. Bada erreleboa egiten gendun zortzi
egunetik zortzi egunera, aldi bakotxean bi.

Zarraparrada itzala tokatu jakun zortzi bat egu-
nean. *Cota* ori, 6, 7 edo 8'an galdu egin eben *Larra-
ñaga* batalloikoak, sozialistak. Gure brigadako bata-
lloia izan zan, eta barrero lortu bear zala ta *Ibaizabal-*
ek ataketako ordena Zornotza aldetik, beste aldetik,
Ibarruri ta Ajuria aldetik, enlaze egiñik *Larrañaga*
batalloiaz.

Gu, armero biok, gelditu giñan Zornotzako zubi

ondoko baserri baten, geure tresnakaz eta amairu kaja muniziño gorderik geunkazala.

Gabaz atakatu eta barriro lortu zan *cota 333* ori. Gabaz artu, egunez galdu, bi aldiz egun bitan segiduan. Ikaragarrizko burruka erreketete, militar eta moroen aurka. Konpañia Arratiari tokatu jakon zatirik gogorrena. An jausi ziran iru arratiar, Igorreko bi eta Dimako bat: Igorrekoak, Zaldibar eta Urkijo; eta Dimakoa, Zuazo, sarjentoa.

Uste dot maiatzaren 9^a izan zala: mendia artu bai, baiña mutil ederrak galduta.

Egun orretan, eurakaz batera, zauritu eben tiro bategaz gure komandante izan zana, Iñaki Arana, ikurriña ipinterakoan, mendi ori artuta. Eta kapitan Erremundok be, bere paparreko iru izarrok kendu egin ebazan bada ez bada, erreketete ta moro ta guda-riak nastuta ibili ziralako.

Gure komandante Iñaki Arana ori andik lau edo bosgarren egunean il zan, Bilboko San Luis ospitalean uste dot. Bere ordezkomandate jarri zan Luis Erauskin, *Petxo*, ordura arte bere laguntzaillea izana.

Amar egun inguru orretan jazo zanagaz be bada-gero zer esanik, batetik, *cota 333* orretan, goian, gora bidean; eta baita be Zornotzan, gu, armero biok, egon giñan inguruetan.

Bigarren atakea egin zan orduan, mendia lortu ta gero, betiko antzera gabaz artu arren, eguna izaten zan gogorrena, eta ganera egun argia izan ezkerro. Bada egunez euren abiaziñoak oso izurratzen ginduzan; eta, zoritxarrez, egun areik neiko garbiak izan

ziran. Ta bai mendia artu; baiña nork eutsi egun guztian, maiatzeko egun luze areitan?

Abioi alkaueteak esaten geuntsazan bi edo iruk, Zornotzako errepide edo kamiño guztia izurratzen eben Erletxestik Durungoraiño.

Mendian, goian, fusil ta ametralladoren burruka besterik ez zan, bada frente biak ogeitamar eta berrogei metrora egon ziran alkarrengandik. Orregaitik, mendirik ez eben izurratzen ez artilleriak eta ez abioiak. Baiña bertara bideak ebagi egiten ebezan abioitik ametralladorakaz, eta Zornotzako zubia be bai.

Menditik eskea muniziño bialduteko; eta azemilero edo burrero oiekaz bialdu genduzan amairu kaja muniziño, geure kontura euki genduzanak. Baiña ezin allegatu ez muniziñorik eta ez jatekorik be.

Gu egon giñan baserritxu ori kamiño eta trenbidearen bitarte egon zan, eta dago oraindik be. Abioi ametrallador orreik botaten ebezan ogei milimetro diametro ta eun milimetro luze inguruko balak, eta teillatua be zulotu egiten eben.

Eguerdi baten izan ziran abioi ametralladoradunak, bonbardeokoak eta kañonazoak. Gu egon giñan etxe ondoan, kamiñoan, gelditu zan asturianoen kamioi bat bonbardeo orreikgaitik; eta bertako txoferra eta ganean joan zan bat erdibitu egin ebezan ametralladoragaz.

Geu be, etxe barruan egon arren, ikaratu, bildur-tu edo ez dakit zer; eta, zoritxarrez, nire lagun Arzelai, etxe ortatik urten eta trenbide azpiko kantarilla batera joan gurarik, kantarilla orretako aoan egoala,

metralla zati txiki batek jo bularrean eta bertan siku gelditu zan. Gogorra izan zan benetan.

Ez illak eta ez zaurituak ezin anbulantzietara atara; eta oraindik be, batalloikoak, goian egon ziranak, muniziño eske. Baiña ez geunkan geiagorik eta ezin bialdu.

Onetan, errekearen beste aldean egon zan lez gure batalloiaren brigadako *estado mayor* ori, ez dakit zelan jakin neban an egoala, eta joan nintzan, amabosgarren batalloia zelan egoan muniziño eske esaten, ta nondik edo zelan bialdu leikean. Eta bertako kapitana batek esan eustan:

– *El camión de la brigada está con municiones a la entrada de Amorebieta, en el kilómetro tal.*

Zelan edo alan joan nintzan eta ez neban ikusi ez kamioi eta ez ezer. Baneukan sospetxa ez zala egongo, ze kamiño ori gogor atakatuten eben abioiak.

Barriri joan nintzan *estado mayor* orretara, eta ganera asarrez: an ez egoala ezer eta zerbait ebatziteko, bada batalloiak ez eukala muniziñorik.

Lelengo, lengo kapitana aurkitu neban, eta gogorturik esan neutsan, asarrez, zer jazoten zan. Orduan, gelako atea idiki ta agertu zan Pérez Prieto, brigadako jefe edo nagusia, ea zer jazoten zan. Ate ori zabaldu ebanean, ikusi nebazan lau edo bost ofizial, maiaren ganean kopa koñak eta abar. Esan neban nire barrurako:

– Arraioa! Ona ez dok sartu kañonazorik?

Barriri esan eutsan Pérez Prieto orrek lengo kapitanari:

– *Vaya usted con el muchacho e indíqueme dónde está el camión de las municiones.*

Urten gendun biok kamiñorantza, eta zubi ondorra urten bear zan kamiñoan sartzeko, eta zubi ori izurratzen eben zazpi t'erdiko kañoiak. Kañoi txikitxu batzuk ziran orreik. Geu zubi ondoan gengozala, *danba!, danba!*, bi edo iru kañonazo zubira bertara. Zubi ondoko ormatik erreka bazterreko solora salto egin neban nik, eta kapitan orrek ez dakit errekaraz ez baeban egin be, bada geiago ez neban ikusi.

Naita txarto igaro edo ondo igaro, erlojua aurrera joaten dan lez, eldu zan gaua, gure gerrako lagunik andiena eta onena, bada gabaz ez egoan gerrarik, bean beintzat.

Baiña illak eta zaurituak menditik kamiñora ekarri ta illak kanposantura eta zaurituak ospitaletara eroan bear. Gabaz ekarri zan gure konpañiako Urkijoren gorpua be, egun guztian deskubiarta baten, egun argiz ezin erretiratu zan tokian, egon zalako.

Bai; ildakoak ixilik egon ziran. Baiña zaurituak? Ene Jaungoikoa! Ezin sinistu be guztia:

– Ai ene! Ez naizue mogitu! Itxi egidazue geldi! Ai, ama!

Guztia orroia ta dana illunean. Anbulantzietan kabitu ez; eta joan ta barriro etorri arte, ainbat ordutan, kuratu barik, eta asko ta asko odol asko galduta.

Eubako *cota* 333 orretatik aldendu eta Zornotzako Etxanorantza joan giñan, atsedean artu eta gosea be kenduteko. Bazkari eder bat egin gendun. Zekortxu bat ipini eben koziñeroak. Oneik gipuz-

koarrak izan ziran. Aurreko egunetan oso janari gitxi eukien lez mendian, aragi eta arroz betekada bat egin gendun.

Bai egon zan arraiña be. Esku bonba bota erreka-
ra, eta barboak be batu ziran ainbat. Ori guk egin gendun, armeruok.

Bazkari orretan entzun zan esaera bat, popular egin zana. Bada, egun batzuk gosez igarotean, arratiarrak esaten eutsen Erremundo kapitanari gose andia eukiela; eta, bazkari janaritsua egon zanean, esaten eutsien kapitanak:

– Jan, jan! Ez esan gero ez dala jan!

Batalloia oso nekatuta ta baja askogaz, eta betetu eta atsedeen apur bat artzera, Bilbora erretiratu giñan, Anejako kuartelera.

Anejako kuartel orretan il zan, formatuta gengo-
zala, Gillermo Ugarte, Areatzakoa, mutil gazte, ondo egiña ta argia, jolas antzeko ezbear baten. Fusilakaz olgetan antzera ibili eta lagun bateri fusila disparatu, eta bertan jausi zan siku.

Ugartetarrok be, gu lau anaion antzera, lau anai ziran konpañia Arratian; eta jazo au jazotean, zailla edo gatxa izan zan, euren anaia jausita ikustean, beste anaiak trankilizatzen. Ganera, guztiok egon giñan bakotxa bere fusilagaz.

Au ez zan jazo Eubatik etorri ta gero, ezpabe ze aurretik egon giñan aldi baten baiño.

ARTEA TA ZEBERIO BITARTEAN

Bilboko Anejako kuartelean egun bi edo iru atsedeen artuta, urrengo urteera egin gendun Gallo-Erletxesko *cinturón de hierro* esaten jakon inguruetara, ikusi eta zerbait esamiñetako geroari begiratuta. Baiña au izan zan gure gudari forma ez galzteko eta esperientzirako, bada oraindik Lemoatxa be geuregan egon zan. Au izan zan maiatzaren 26'a edo olan.

Egun areitan izan zan, nik lan egiten neban Ituar-te Bilboko taller militarizatuan, esplosio itzal bat. Taller orretara bonba zarrak be ekarten ziran esamiñetako, eta bertako langille batek esku artean onetarikoko bat euki ebanean, lertu egin jakon; eta lertuketa orrek beste bonba geiagori be lertuazo eutsen, eta orrela ia ondatu egin zan taller guztia. Egunkarian irakurri gendun zelan sei edo zazpi langille bazirala ildakoak, eta euren artean tallerreko enkargadu nagusia, niretzako maisu ona izan zana. Niri *Mutil* deitzen eustan beti.

Eta nik neuk bear egiten neban tornuan bearrean egoana, Marino mutilla be, il zan bertan.

Aingeru jagoleak lagunduta-edo, beti ibili nintzan ni arriskutik igesi.

Orduan esan neban nire barrurako, mundu onetan, urtebete barruan, galdu nebazala iru argi nituana, nire gidari onenak eta maiteenak: ama, etxeke izarra; enkargadua, laneko izarra; eta erriko parrokoa, bideko izarra.

Baiña gerreak ez eustan ori sakon pentsatzeko asti andirik emoten, orreik guztiok eta ganera bizia jokutzen ogeitairu urtegaz. Baiña noian aurrera gure gerra orretan.

Gallotik joan giñan barriro Arratiara, Arteara, eta an izan giñan egun batzuk, frente fijo barik, Arteako kanposantu aldetik Lamindaorantza urteera batzuk egiñez ta abar.

Andik aldendu giñan Saltzola alderantz. Artea ta Zeberio bitarteko gana da ori. An gengoza izan zan Lemoatxako atake edo burrukaldia, eta ikusten gendun Lemoatxa ori sutan antzera, bada abiaziñoak sutan ipini eban. Bonbak atxetan jo eta sua ataraten eben, eta gure aldetik ildako asko ta zauritu asko ta asko.

Saltzola ganean gengoza, zurrumurru baltzak izan ziran; bada, Lemoatxa jausi ezkerro, zinturoira joiazala zuzenean.

Bagillean artu genduzan ametralladora barriak, lau *Hokis* edo olango izena eukienak, 350 kartutxoko zintekaz; eta orduan be, Goitia ametralladoretako

kapitanak eskatuta, konpañia orregaz joan bear nintzala.

Lelengo egunetan eurakaz joan nintzan. Zeberio inguruko baso baten egin genduzan lelengo probak. Ametralladora orreik izan ziran oso onak. Sinistu be eziñekoak. Zazpi pieza edo zati bakarrik eukezan zerrojo ta mekanismoan; desmontatu edo soltatu be errez egiten ziran; eta, katalogoari begiratzuz, beingo baten artu gendun euren martxa.

Pago bateri blanko egiñez egin genduzan lelengo proba orreik, eta pago ori ia ebagi egin gendun. Baiña pagoa ez zan izan erreketete edo moroa, eta ori oso erreza izan zan.

Naita arma orreik asko ez aprobetxatu, beintzat moral andia emon euskuen.

Zeberio alderdi orretan gengozala, bagillaren 13'an, San Antonio egunean, alango odei illun baten antzera etorri zan: *cinturón de hierro* ori apurtu ebe-la, ta gau aretan erretirada egin bear zala, Ubago edo Miraballes aldetik.

Orduan be beste burutaziño batzuk burutik pasata, lau ametralladora orreik eta abar kamionetan artu ta, Bidebieta ta Boluetan zear, ordena izan zan Santo Domingora joateko.

LAIÑOMENDI

Konpañiako sarjento ta gudari batzuk geugaz joan ziran kamionetan, eta ia gau erdirako Santo Domingora, Artxandara, eldu giñan. Batalloia noiz etorriko zain egon giñan ordu bat edo bi.

An egon giñan bitartean, beste gerraren zati samin tamalgarria ikusi gendun: gure baserritarrak euren burdi eta tresna guztiakaz, edo al izan ebezana-kaz, Begoñarantza edo bakotxak al izan eben lekurantza.

Goizaldean etorri zan abisua geu be Begoñako plazara jatsiteko, eta an aurkitu gendun gure bata-lloia, oraindik autobusetatik jatsi be egin barik.

Unbera joan bear zala ta aruntza joan giñan guz-tiok. Alde orretara urreratzean, Laiñomendira joan bear zala agindu euskuen, eta egunsentirako, eguz-kiko goizeko laurak ingururako, an giñan posiziñoak artzen. An egin gendun ametralladora barri orrein bateoa.

Laiñomendi dauka mendi orrek izena; eta, ori

egiztatuteko, goiz aretan be laiñoa egon zan. Orduan be izan zan *Larrañaga* batalloiagaz enlaze egiteko; eta, Eubako antzera, *Larrañaga*'rik an ez zan egon, gu joan giñanean. Bestetik, laiñoa, ta mendi goian erreketek egon ziran.

Komandanteak aginduta, konpañi bi alde batetik eta beste bi beste aldetik, gora joan bear zala, *compañía de ametralladoras Astarloa* beste bien erdian, atzeragoan, zala. Jarten gara martxan eta, mendi ganera eldu baiño len, «Gora Euskadi!» ta «¡Viva España!»-ka, laiño artean gudari ta erreketek.

Guk beingoan artu gendun ordena, goiko tontorrera ametralladorakaz sua egiteko, gure konpañi bi ia kopatuta zirala ta. Mendi punta ta laiño ta abar, iñor ez gendun ikusten, baiña egin gendun su ori eta zinta bat osoa utsitu. Andik lasterrean etorri zan enlazea, gure komandantearena, ez egiteko su geiago, bada erreketek ta gudari nasturik egozala ta.

An zauritu zan Arratiako Fernando Egileor, tenientea. Laster osatu zan.

Astarloa'n, *compañía de ametralladoras*'ean, bae gozan mutil onak eta indartsuak. Batez be bat, Abadiñoa. Ez dakit bere izenik. Egon giñan lekutik atzeko mendian gorago enplazatu bear zirala ametralladora orreik. Aldatuteko, kendu egin bear zirala tripodeak, pisu gitxiago izateko; bada guztiz berrogei ta bost kilo pisetan ebezan makiña orreik. Baiña Abadiñoa mutil onek diño:

– Ez desmontatu! Neuk eroango dot!

Bere lepoan jaso eta txirikilea lez eroan eban, eroan bear zan lekura, bat beintzat.

Eguna aurreratzean ixildu zan guztia. Baiña bitartean, Urduliz aldetik, frankotarrok kostal aldetik aurreratuten etozan.

Illuna etortean, Laiñomenditik apur bat atzeratu egin giñan, eta 14'etik 15'erako gaua Unbeko kantarra zar baten igaro gendun; eta goiz partean, Loitutik zear, Artxandako Berriz auzune aldera joan giñan. Baiña tiro bat bota barik.

Ango baserri baten esnea ugari euki gendun, bada Bilbora egunero asko eroaten ebela, baiña egun aretan ezin eroan. Orrela, esnez beintzat ondo bete giñan. Au izan zan 15'etik 16'ra.

BILBO

Gero Deustora jatsi giñan. Emen, ametralladorak ipini bear zirala-ta, sartu giñan alako txalet antzeko baten. Baratzduna izan zan. Ate ta leio zarratuta egon ziran, baiña deitu gendun.

Emakume batzuk idiki euskuen atea, eta zer nai gendun itandu. Esan geuntsien ametralladora bat ipini gura genduala teillatuko leio baten, eta erantzun eben:

– Bai; egin zeuek nai dozuena.

Eta bertan ipini ametralladora bat. Gaua eldu zan eta bertan egin gendun lo be, eta ondo tratatuak izan giñan. Lau emakume izan ziran, eta esan euskuen euren neba ta senarren bat be frentean zirala.

Eta gudariak guardi egin da guzti. Nik ez neban egiten guardirik; bada kapitan Goitiak eta tenienteak oso mimatzen ninduen, naita ain gizon andia ez izan ni.

Gero, 17'an, beste etxe batera aldendu giñan, eta balkoi bitan jarri genduzan ametralladora bi. Ez gen-

dun tiro askorik bota, naita ordena euki Artxandako erretirada salbatzeko. Bada egun orreitan izan ziran Artxandako burruka nagusiak. Ainbat eta ainbat, eundaka asko, illak eta kontatu ezin zan beste zauritu. Baiña guk ezin gendun gauza andirik egin, bada ordenak be ez genduzan artzen garbi edo sua egiteko eran. Begiak itxita ibilteko nastuketa nazkagarri ta negargarri izan zan egun ori.

18'an, gabarrakaz eginda egoan zubia *Euskalduna* astilleroen inguruan, eta Olabeagara joan giñan, orma aundi batzuk eukazan jauregi batera; eta ango ormetan zuloak egin eta alderdi artatik eutsi egiteko etsaiari, errekea, Nervión, bitarte zala. Orretarako apurtu ziran zubiak eta Unibertsidade aldeko petri-llak edo ormatxoak, guztiak.

Jauregi aretan aurkitu neban nigaz lan egiten eban tornero lagun bat. Au komunista zan eta *Orden Público*'ko tenientearen izar ta guzti ebillen: jantzi urdiña, korreaje ta oso apain. Berak esan euskun, kapitan eta guztioi, jauregi ori prezintatua egoala, bada egun bi aurrerago *quinta columna*'k sua egin ebala etxe artatik; eta, jauregi au okupatzean, kapitán asturiano bat, ganbaran ostonduta egon ziran *quinta columnista*-k il egin ebela be, eta orregaitik egoala prezintatuta.

Baiña egun aretan, gu ara joatean, ez egoan ez legerik, ez agindurik eta ez arraiorik beteteko eperik, eta bai kontuan artzen ebela *Orden Público*-ko orreik be. Guretzako, izan be, jauregia bera baiño garrantzitsuagoa izan zan jauregi inguruko orma.

Arrasti aretan, 18'an, lau zulo orma orretan egin

eta ipini genduzan poliki-poliki lau ametralladora orreik. Lelengoa ipini gendunean, tirakada batzuk probatzeko egin genduzan Unibertsidadeko teillaturantza. Teilla areik aidean botatzen genduzan, eta esan gendun:

– Erreka au ez dau pasako Napoleonek be, naita Europa guztiagaz etorri!

Gaueko amaikak ingururako ipini genduzan lau ametralladora orreik, eta jauregira joan giñan, afaldu eta lo egitera. Jan gendun ondo –jauregian egon zan jana–, eta esan eustan teniente *Orden Públiko*-ko orrek:

– *Arrati* –bada laneko lagunak neri deitzen eustien tallerrean Arrati–, *hará mucho tiempo que no habrás dormido con sábanas y en cama.*

Esan neutsan:

– *Sí. Ya casi ni sé lo que es eso.*

– *Pues hoy estas chicas te ponen la cama y dormirás con sábanas.*

Eta neskatoak, bertan neskame egon ziranak, izarra garbi ta plantxatuakaz oia ipini eta nasai-nasai etzun nintzan, gaueko amabiak inguruan. Logura andia neukan, baiña kosta jatan loak artzen. Ezin sinistu be non nengoan, eta itxarrik egon nai izan neban, oian eta izara garbitan nengoala saboreatzeko. Alan ta guztiz be, lo gozo batek menperatu nindun.

Baiña amets bildurgarri baten antzera, eta sinistu ezin leiken lez, *tan!, tan!*, atea.

– Nor?

Baiña nor esanarekin batera, kapitan Goitiak, bera etzun be ez zala egin eta:

Baiña nor esanarekin batera, kapitan Goitiak, bera etzun be ez zala egin eta:

– Pujana, artu lau ametralladora orreik, ipini kamionetan eta eguna argitu baiño len Kastrejana pasatu bear da, Alonsotegi ta Soduperantza. Baiña oso bizkor!

Goizeko iru ta erdiak inguru izango ziran. Izara barruan nengoan lez, prakak be erantzi lo egiteko, eta gero jantzi be egin bear; eta, erdi lotan, ez nekian praka orreik atzekoz aurre jantziten banebazan be. Baiña ez egoan denporarik galduteko eta «*jmanos a la obra!*». Kargatu ziran ametralladora orreik eta beste al izan genduna, ta jarri giñan bidean egunsentian, erdi lo, erdi itxarrik.

Ospital osteko aldetik jarri giñan martxan. Ordu-rako, ospital ondoan egon ziran koziñak, eta kamionetan artutako kantinplora nagusiak, batalloi guttirako goizeko kafesnea eukienak. Bai; gu erdi lotan joan giñan, ta bai beste guztiak be.

Kastrejanarako bide guztia edo kamiño guztia beterik egoan gudari askogaz, Bilbori agur egiteko denpora ta umore asko barik; eta oraindik baserritarren batzuk be bai euren burdiakaz, ganaduakaz eta abar, igesi egin gura ebenak. Eta kustiñoa da gure kamionetak, ta beste batzunak be bai, ez eukien leku andirik joateko. Gudariz betea kamiñoa, len esan dodan lez, eta guztiok nekatuta eta erdi lotan.

Orduan an be bildur apur bat pasa gendun. Bada gure kamionetaren kartolagaz jo ta bota egin gendun bat; eta, gudari guztiak fusilagaz ziran lez, ori egiñik, bildur izan giñan, eta ez zan gitxiagorako une aretan.

ENKARTAZIÑOAK

Sodupe baiño lentxuago aurkitu neban nire osaba Pedro, gure aitaren anaia, bere burdi ta asto bategaz, asto-otzaran bederatzi-amar urteko alabea lotan eroala.

Esan eustan, gure aita be bezperan joan zala Zaldura, Sodupe eta Gordexola ondora, bada Zaldun bizi zan gure lengusu bat, eta beragana.

Soduperantza urreratuta, itxaron gendun apur bat, batalloia oiñezean etorrelarik, batalloi ori agertu arte. Baiña ez etorren batalloi ori eta, alkartzeko tokia Gueñesko plaza zala-ta, jarraitu gendun kamioiagaz Gueñesera.

Ia eguerdi arterarte antxe egon giñan, baiña batalloia ez zan agertzen, eta arduratzen asi giñan batalloi orri zerbait jazoko jakola-ta, agertu ez egiteko. Kamionetari gasolina depositua ia utsitu ta zerbait erabagi bear gendula.

Arduratu giñan, bada guk, gudariok, geure gudarri lagun artean ez gendun bildurrik ezerenik eta iño-

renik be. Baiña asturiano ta erdaldunai bildurra baiño terrorea geuntsen.

Gure bildurra izan zan, batalloia zeozegaitik Bilbon gelditu edo bidea zarratuko eutsiela frankotarrok, Pagasarritik aurreratuta Alonsotegi aldera, edo olango zerbait jazoko zala. Len esan dodan lez, arduratzen asi giñan, eta batez be gasolina faltagaitik.

Gueñesen ez egoan gasolinarik; eta, ganera, ez geunkan balerik be gasolinatarako; bada, komandante intendente ta guztiak falta ziran balea emoteko; eta Gueñesen emon gura ez edo atxakia eukien, ez egoala gasolinarik esanda. Baiña gasolinako orreik esan euskuen, Somorrostron egongo zala.

Bada entzutea zan Somorrostroko zelaiada baten kanpo abiaziño bat zabaltzeko zala –ori geuk be jakin gendun–, eta an egoala gasolina abioientzat, naita oraindik depositoetatik atera barik egon.

Alan, joan giñan inpernutik pasaeran baiño bildur edo urduritsuago, baiña guztia jokatzeke adorez. Eldu giñan Somorrostrora, gasolinagaz justu-justu bertara aillegatzeko.

Kanpo abiaziño edo antzerako zelaiada ori aurkitu gendun, eta gasolina ori atarateko bonbak edo iturriok oraindik ipini barik eukezan. Erregu, negar eta guzur batzuk esan eta azken baten emon euskuen gasolina ori; eta, ganera, depositua ganezka bete arte.

Barriro Gueñesarantza. Arratsaldeko irurak inguru izango ziran, eta Galdamesen gelditu giñan, janari zerbait topetan bagendun. Bada, naita goizeko

kafesnea batalloi guztiarentzat euki kamionetan, besterik ez geunkan; ogi apur bat be ez.

Eta, Jaungoikoak estutu bai baiña ez dabela itozten esaten dan lez, suertatu jakun jazoera itzala. Nire soldadu lagunak salbatu nindun Zeanurin, gure etxe ondoan, iltetik an; ta Galdamesen antzerako bat gertatu jakun gosea kentzeko. Bada alango taberna antzerako batera joan giñan, eta sei bat gudari antzeko egozan korreaje ta guzti.

Asko fijatu barik, eta mostradorera barik barruko kozinerea aurkiturik, itandu neutsan janaririk baeukan, eta bereala erantzuna:

– Bai. Gertuta daukazue jantokia.

Eta jantokiko atea idikirik, badiño:

– Jezarri eta beingoan daukazue bazkaria.

Platerak eta guztia prest egoan, eta nire artean diñot:

– Arraioa! Au ez dok guretzako!

Buelta egiñik, topo egiten dot bertan egon ziran gudariakaz. Bazkari ori areintzako izan zan.

Baiña sorpresarik andienagaz, euretariko bat neugaz soldadu egondako bat, *Gordexola*, *Muñatonnes* edo olango batalloiko tenientea. Besarkada bero bat alkarri emonda, egun areitan eurai ta geuri zer jazo jakun berba egin gendun; eta orduan esan eustan bera angoxe bertako semea zala, eta bere lagun batzuekaz bazkaitera joan zala; bazkari ori guztion artean jango gendula eta jezarteko inbita induzan.

Baiña nik esanik zelan batalloitik galduta genbil-

tzan, eta bokadillo bat edo zerbait euki ezkerro ondo gengozala eta neikoa zala, beingo baten egin eta emon euskun bokadillo andi bana. Bazkari ori salbatu gendun; eta beste besarkada andi bategaz eta esker emonez, jarri giñan bidean Gueñeserantza.

Baiña Gueñesen ez egoan gure batalloia, eta zer egin? Barriro Galdamesarantza, buelta egin. Baiña nora? Gelditu giñan zerbait erabagiteko. Onela esan gendun:

– Batalloia ez badogu aurkituten, zertara jokatu bear dogu?

Beingo baten pentsatu gendun bildurgarriena:

– *Bueno*, emen ikusten dogunetik, batalloia Bilbon gelditu da; eta, datorrena datorrela ta jazoten dana jazoten dala, Bilbora joan bear gara!

Joko arrisku andikoa; bada, bearbada, linea bi pasa bearke zirala; ta, ori jakiñez ganera, suizidio bat zala; baiña a edo ori zerbait jokatu bear zala. Azkenez, begiak itxi ta erabagi gendun iru armero ta txoferrak –au segundako karnetagaz baiña oso atrebidea, Zorriketa, Usansolokoa–, ea bada nola egin azaña ori:

– Lau ametralladora daukaguz. Jarri daiguzan sua egiteko gertu: bat aurrera begira, beste bat atzera begira eta beste biak, bada ezpada, albo banatara, kamioneta barruan, toldoarekin tapatuta.

Akordua onartuta, jarri giñan bidean kamikaze japonesen antzera, erresponstabilidade eta suertea geure lepoan artuta. Zer bururatu jakun erabagi au artzeko, linea bi pasatu ta gauzak eta bidea libre ez

baegozan? Bada auxe, len esan dodan lez: asturia-noen artean jaustea; ori zan ardura ta bildurrik andiena.

Jarri giñan martxan, aitaren egin eta *Nire Jesu-kristo jauna* errezatuta. Aurrera! Baiña kilometro bi igaro orduko, Gueñestik aurrera, motorista batek Euskadiko gobernukoak, bada oneik ezagutzen genduzan euren jantzi ta korreajeakgaitik, *alto* bota euskun.

Gelditu giñan eta itandu euskun zein batalloiko giñan. Eta esanik *Ibaizabal*-goak giñala, diñosku *Ibaizabal*-ek eukala ordenea gau illuntzerako Somorrostron alkartzeko; bera zala zatituta egozan batalloiak non alkartu esateko ordena eukana.

Bada, len esan dodan antzera, gure sospetxa jazo zan. Bada, Pagasarri eta Ganekogorta aldetik aurre-ratu zirala arerioak, eta Erretuerto aldetik sartu bear izan eban batalloiak Somorrostrorantza.

Orduan, lengo planak apurtuta, barriro biurtu giñan, Gueñes ta Galdames zear, Somorrostrora. Egunaren argia illuntzen asi zanean eldu giñan Somorrostro orretara, eta laster egin gendun topo batalloiaz.

Eurak eta guk zerbait alkarri esanik, zelan igaro gendun eguna, euren arteko nobedadea izan zan, komandantea Bilbon gelditu zala, eta mutik be egin barik. Bakotxak bere eritxiak eukazala; ta, naita guk ontzat artu ez, irunsi gendun barri illun ori be.

Guk orduan ez gendun jakin zergaitik izan zan gure komandantea Bilbon gelditze ori. Baiña nik, liburu au egiterakoan, laguntza edo komentario ba-

tzuk egin dodaz Pablo Beldarrain adiskide onagaz, eta berak azaldu eustan aldi aretan sekreto moduko izango zan gauza ori, zelan jazo zan esanez.

Len esan dodan antzera, Deuston egon giñan egunean, Artxandako erretirada ta desbarajuste nagusia izan zala, orduan Madrilitik etorritako Nino Nenotti italiano militar gorriak, agindu eutsan gure komandanteari Artxandara joateko; eta gure komandanteak, ori suizidio antzeko bat izango zala ikusirik, onela erantzun eutsan:

– Ez! Ni ez noa nire batalloia otsoaren aora eroaten!

Orduan, Nino Nenotti orrek amenazatu egin eban il egingo ebalta, eta ordena emon be bai gure komandante ori detenitzeko. Baiña bera ostondu egin zan Bilbon, ez frankotarren bildurragaitik, bestela fusilatu egingo ebelako baiña, baiña gorriak eurak.

Autobus batzuk an egozan gertu, Somorrostron; eta, ni ta lagunak naita nekatuta ez egon –batalloia, egun guztia oiñezean eta janari gitxigaz igarota oso nekatuta egoan, kerezaren batzuk janda bidean zear–, ederto etorri jakezan autobus orreik, Montellanora joan bear zalako gaua igaroten.

Alkarri danok begiraturik zer izango ete zan aurrerantzakoa, an gaua aretan ez zan lo askorik egin, naita oso nekatuta egon.

Eguzkiaren lenengo brintzak itxartu ta bizkortu ginduzan Montellano ortan. Gu guztion aurpegiak esaten eben zer gauza arrigarri jazoten zan.

Lelengo, apur bat geu be jarri zirkunstantziari

erantzuteko eran, eta asi barrero antolatzen edo aurrerantzarako gertuten.

Ni, olango gauza guztietan-edo asko sartzen nintzan lez, nire anaia kapitana zalako, orduan kapitan bi konfiantzazko neukazan: bat, anaia; eta Goitia, ametralladoretakoa, bestea.

Goizetik gosalduta, ogi zuriagaz eta guzti, lelen-go, batzarra kapitan eta teniente guztiak edo geienak egin eben, komandante barri bat edo ordezkari bat jarteko; eta, kontrako barik, akordioa izan zan kapitani-eta zarrena izateko, eta aurrerantzean al danik-eta tirorik gitxien botatzeko alegin guztiak egiteko; eta konpromiso andirik be ez gendun euki, alegiñak be orretarako egiten genduzan da.

SANTANDER ALDEAN

Uste dot egun bi bakarrik egon giñala Montellano orretan. Gero, Sopuerta edo ez dakit nondik zear, Guriezo ta abar igarorik, lasterrean joan giñan Carasako errira.

Erri txiki bat da, Colindrestik lur barrurantz. An egon giñan iru bat aste, ta uste dot Jaungoikoak bakarrik ekiala gu non gengozan; bada ez gendun artzen ez soldatarik eta jateko askorik be. Intendentziatik eusko gudarozteak bai, jakin eban; baiña Santanderko *estado mayor*'ak, ez. Guk, beintzat, olan pentsatzen gendun. Orduan zurrumurrua izaten zan gure artean, erreserbako batallonia giñala.

Arroza, barbantzua, atun latakoa, txokolatea ta *leche condensada* ez zan faltatzen; eta, geure kontura erosita, ekarri ziran zekor bat eta bei bat, aruntzagoko erri baserri San Pantaleon eta Padiernigatik.

Ez gendun iñor ikusten gerran zer ikusirik eukanik. Atsedenaldi ederra artu gendun erritxo orretan.

Bost edo sei etxe ziran erri barru, eta elizatzxo

polit bat be bai. Baiña elizatxo au utsik, eta eliza barru guztia apurtuta, ta santuen irudi guztiak be apurtuta, ta kanpora botata egozan, Santander edo beste leku batzutako Elizaren aurkakoren batzuk eginda.

Gu ez gengozan olango gauzak ikusten oituratuta, baiña bai entzunda; eta, naita odola piztu ta biotza tristetu, irunsi egin bear guztia.

Carasako erri ondoraiño eltzen zan itxasoko ura be, Colindresko zubiaren azpitik. An, itxas kolkoan, muble asko egoten zan eta, esku bonba bat bota ezkerro, arraiña ugari izaten gendun. Baiña arrain klase au oso latza da, eta gose andi barik jatekoa ez da izaten.

Egun baten joan giñan Colindresko zubi alderantz txanela baten. Marea nola egoten zan jakin bear, bada aldikada batzutan korronta andia egiten eban itxasoko urak, berantza joaten zan orduan. Baiña txanelaren ugazabagaz joan giñan, ta ondo gietan eban, Juan Sebastian Elkanoren antzera.

Colindresko zubi albora aillegatzean, bertako zerbait ikusteko jatsi giñan, eta itxas baztarrean aurkitu genduzan, itota, gizon bi, alkarri lotuta.

Ikara egin eustan era aretan, erramal bategaz lotuta, ikusteak. Naita aurretik ildako asko ikusi tiroz edo metrallaz, niretzako ala iltea ez zan bardiña. Dana dala, guztia, datorrena datorren lez artu bear eta aurrera, fedeari eta itxaropenari indar barriak emonda.

Gero, despistatzeko edo *táctica guerrera* edo ez dakit zergaitik, aldendu giñan, garagarlearen 22'an

edo olan, Rasinesera. Santiago egunez, beintzat, Rasines ortan egon giñan. Bada gure ama il zan urteurreneko meza izan gendun, gure kapellau zan don Juan Aldekoak esanda.

An egon giñan denporan, konturatu giñan kontrolatuta gengozala, bada norteko *estado mayor*'ak bota eban agindu edo ordena bat, ofizial guztiak jakin bear ebela zaldi ganean ibiltan, eta egiten ebezan Don Kijote eta Santxo Pantzaren antzerako ibilketa batzuk ango zelai baten gure batallouko ofizialak.

Nik ez dakit nortzuk edo zeintzuk izango ziran Santxo, baiña agindua bota eban nagusi ori izango zan Don Kijote, bada ikaste orrek ez eukan, aldi aretarako beintzat, ez buru ta ez oin.

Zaldi orreik oso astiro ibiltan ziran. Baiña, alan ta guztiz be, nire anai kapitan ori jausi egin zan, eta geiago ez zan igon zaldi lepo orretara.

Zoritxarrez edo onez, ez eban iraun ikasi bear orrek, bada abuztuaren 10'ean barru aldera jo gendun. Solarestik eta Vargastik zear, Ontaneda ta Alzedara joan bear zala; gero, andik gora mendi batera igoteko.

Gu, armeruok, betiko antzera, ametralladora ta guzti, kamionetan. Solarestik Vargasera bitartean, bederatzi abioi ebiltzan gure ta beste guztien ganean; eta alako baten, gure ondorantza agertu ziranean, esan gendun gelditu egin bear giñala. Baiña, suertez, gelditu giñan baserri baten ondoan.

Guk ez genkian ezer, baiña alako kanpo abiazio guzurrezko bat egoan toki aretatik ur samar, eta

Solaresantza etorri zan kotxe bat gelditu ta txoferrak diñosku kanpo abiaziño bat egoala antxe bertan, eta andik alde egiteko, bada abioneta batzuk be baegozala ta.

Baiña baserriko gizonak diñosku abioi orreik, lurrean egozanak, egurrezkoak, olezkoak zirala ta Francoren abiadoreak baekiela guzurrezkoak zirala, ta tokirik seguruena bera zala, bada baten bonbardeatu ebela, baiña geiagorik ez.

Alan zan, izan be, baserritar orrek esana: bera zala lekurik seguruena eta baketsuena; bada, an ez eben bota ezer.

Abiaziño orren sustualdia igaro ta jarri giñan barriri bidean Bargaserantza; eta, bertara aillegatzean, bide kurutz artan oker artu ta joan giñan Sierra Pando alderantza; eta, konturatu orduko, neiko aurrerata giñan bide edo kamiño artatik.

Anis fabrika bat aurkitutean gelditu giñan, informatu edo orientatzeko. Botilla batzuk artuta –anis Cazalla–, ez dakit erdi debalde ala debalde izan baziran be, baiña kustiñoa da zerbait artu gendula.

Joan giñan bide aretatik etorri giñan Vargasera barriri. An informatu eta artu gendun Ontanedarako bidea.

Gure batalloia an egoan, gu baiño lenago aillegatuta. Ontanedako balnearioan legortatu giñan batalloi guztia, eta beste batalloiren bat be bai.

Gu, armeruok, aurreko zelaiadan, arbola arte baten jarri giñan, toldoa kamionetatik arbola bitara zabaldua, baiña goitik, estaltzeko. Bea, lurra, oso siku ta ondo egoan. Manta edo zerbait botata,

deskantsatu oso ondo egiten gendun. Batez be, goizaldeko itxartuera atsegingarri izaten zan; eta ganera gozoa, goizeko freskura ori, batez be, arnasa sakon ta lasai artzeko.

Baiña bakeak eta gauza onak gitxi irauten daben lez, zortzi bat egun edo ola bakarrik izan ziran an igaro genduzanak.

Andik urrean egoan Alzeda. Au be balneario erria zan, eta erreka be oso ur indartsu ta garbiagaz. Amorrañiak ugari egozan. Bat edo beste atrapatu ta jan be egin genduzan. Bada, an egon giñan egunetan, denpora asko izan gendun sobra ta libre.

An gengozala, egun baten, agertu zan Felix Areitio, Ermuko pelotari bikaiña. Au zan nire armero lagun Emilio Areitioaren lengusu karnala. Eta, berak jakiñik Emilio an egoala, berarekin berba egin eta despeditzera etorri zan, bere familiari esateko, erarik baeukan, zelan gertuta eukan, barku merkanteko kapitan bategaz, Mejikora iges egiteko. Baiña oso ixillean.

Ordurako, gerra asi baiño len, ikusita neukan pelotari. Otzaraz jokutzen eban, eta Bilboko *Euskalduna* frontoian. Mutil andia, altua ta indartsua, larogei ta amar kilotik gorakoa, baiña oso ajilla ta saltolaria. Bada, pelota atrapatzeko, egiten ebazan metrotik gorako saltoak. Ola ipini eutsien izena, edo sarri askotan beintzat gazetariak esaten eutsien: *El Canguro*.

Gero jakin gendun, Mexikon be, berak beste lagun bategaz iru pelotariren aurka jokutzen ebala, bi berarentzako gitxi ziralako.

Urrena, gerra amaitutakoan, etorri zala; eta gero, urte batzuk pasata, Gasteizen ikusi giñan alkarrekin, eta bizitzan ondo martxan egoala esan eustan. Ta andik urte batzutara jakin neban il egin zala, ez-bearren batekin. (G. B.).

Baiña jarrai deiodan deabruak ostutako urteetan igaro nebazanak kontatuteari. Ontanedan be, gugandik ez zan aldendu gure aingeru jagolea; bada, beste leku askotan antzera, frenterako edo mendirako ordua etorri baiño len, frente ori apurtu ebela frankotarrok eta eutsiteko gauza txarto egoala; ta barriro, lengo bideetatik, Bargas, Solares ta abar, ostera Kastro aldera joan bear zala.

Orrein aurreko egun batzutan, Los Tornos frentera be igon zan batalloia, Burgos aldera. Illuntzean izan zan, baiña igerten jakon oso altuan gengozala, arnasa artzerakoan.

An be, sarritan lez, ez gendun orden edo patxada andirik gerra irabazteko. Bada Santander ta ortikoak esaten baeben be guk Euskadi galdu gendula meza entzuten denpora galtzearren, eurak galdu eben orixe berori be ez ta ezertxo be ez ebelako egin; bada guztiak ziran tiestoko gerreroen antzerakoak.

Jeneralen batek esan ebala, Bilbo artu ezkeru, Santander telefonoz artuko ebala. Ori baiño erreza-go zan Santander artzea. Bada, Los Tornos orretan izan zan lez, frankotarrak sartzeko bidea alfonbra ta guzti egoan; eta jeneral orrek telefonoa artu baiño len Santanderrera joiala esateko, Santanderren egon ziran.

Guk, Euskaditik urten da ez gendun bota tiro

askorik. Baiña gure Euskadi izenak bakarrik, eta tiro barik, bildur geiago emoten eutsen arerioai, santanderinoen korrea je ta andi itxureak baiño.

Eta egite orren edo euren odol otzagaitik, Los Tornos orretan be larri aparta giñan alkarrengandik, tiro otsean asi ez giñanean eurakaz.

A izan zan frente bat, iñoiz tirorik bota ez ebena; eta oso apain eukezan oraindik ardi errebaiñu ta beste abereak, eta intendentzia ta gauza guztiak. Frente orrek ez eukan gerra itxurarik. Guztia zan bizimodu normala.

Gure batalloikoren batzuk atrapa ebela ardi bat, eta bosteun ardi egozan mendian. Igerrri edo jakin urrengo egunerako falta zala, eta gu izango giñala ardi ori il da jango gendunak. Eta ango *estado mayor*'a mogitu, ori egin ebenak detenitu ta *consejo de guerra* egiteko.

Eta Euskadin jazo zana? Batez be Zeanurin? Mendiko abere guztiak, batzuk frankotarrak eta beste guztiak santanderino ta asturianoak il ebezanak? Ardi bat jan ebela euskaditarrak? Ez dago ondo eginda. Baiña ardi bategaitik orrenbeste nasketa gerra baten, egia izan bazan be?

Baita egun orreitan jazo zan, frenterik be ez egoan lez esateko, intendentziako lokalak be guardia barik; eta arantza joan ziran gure batalloiko *Bizkaigane* konpañiakoak, bilbotar batzuk, ez eben lez ikusi iñor intendentzia ori zaintzen, eta usterik abandonatuta egoala, zerbait janari edo olako artu ta gero atrapaturik, oso larri ta estu izan ziran, *consejo de guerra* ori egin da bertan fusilatzeko be. Bada orduan

gure batalloi osoak parte artu ez baeban, gure komandantea aurretik zala, gauzea larri egongo zan.

Eta orreik geienok jazo ziran, ordurarte tiro bako gerra euki ebelako, eta gerra zer zan ez ekielako.

Frente orretan frankotarrak tiroka asi ziran orduan, gu andik aldentuta gengozan; eta, guk meza entzuteko ordu erdi bear bagendun, eurak ordu laurenean Santanderren egon ziran.

Gure gerraldia amaitutera joiala-ta, zurrumuruak asi ziran, gu Frantzira eroateko pakto edo zer-baiten batzarrak egiten zirala ta abar. Gure gerraren amaiera ausnartzen asi giñan; eta, naita itxaropenik iñoiz ez galdu, kokotean azka egiteko egunak izan ziran.

Castro aldera eldu eta Castro Alén edo olako baten batalloiak tiro batzuk-edo bota ebazala. Ni neu ez nintzan joan araiño. Armeruok ametralladora bi kamionetan genduzala, beste biak *Astarloa* konpañiak eroan ebazan.

Liendo erritxoan gelditu giñan egun batzutan. Eurak izan ziran gure gerraren amaierakoak. Bost edo sei geienaz be.

EL PONTARRON

Castrotik atzeratu eta El Pontarrónen atrin-xeratu zan gure batallioia. Gu, armeruok, egon giñan ondoan, Liendon, beratxuagoan, eta artu gendun ordena ametralladora bi orreik artu ta El Pontarrón ganera igon bear zala. Ordurako beste ametralladora nagusi biak El Pontarrón goian eukezan *compañía de ametralladoras Astarloa*'k; eta gure batallioiak artu eban ordena, gure gudari guztien salbaziñorako, iru egun El Pontarrón'en eutsiteko italianoai; eta batallioi osoaren erantzun bakarra onen antzerakoa izan zan:

– Naita Napoleon etorri mundu guztiko soldaduakaz, iru egungaitik eutsiko deutsalagu.

Ori izan ei zan, gero jakin zan lez, italianoakaz armistizio edo pakto –edo traiziño– ori iru egun orreïn barruan firmatzeko.

Egun orreïtan etorri jatan anai kapitana, Erremundo, illuntze baten, ea kamioian, edo kuarteltzat Liendon geunkan etxean, baegoan beretzako moduko oiñetakorik edo zapatarik. Bada, soiñean ekarri

ebazanak, zoruak edo zapata azpiak apurtuta eukezan, eta joan bear eban jefe andiakgana, armistizioa firmatzen.

Joan giñan baserriko kortara –gure kuartela–. Gure batalloikoak ez ziran, baiña asi giñan zaku ta paketeai buelta emoten, eta urten eben zapata batzuk, korreaje, katalejo ta abar. Jantzi ebazan eta ondo eukazala.

Baiña artega, urduri asmatu neban, eta esan eustan:

– Gaur euk bakarrik jakingo dok. Baiña biar arte beintzat ez egiok esan iñori. Eusko gudaroztetik artu joagu ordena, batalloiko kapitan bi, gazteenak, El Portarróndik gaur gauean italianoengana joan ta armistizioa firmatzeko. Baiña geiagorik ez dagola, ta, gauzak diñoen moduan badira, iru edo lau egun barru Frantzian alkartuko gozak.

Agur egin neutsan anaiari, «alan izan daitela» esanez. Beste kapitan ori izan zan Sabino Egileor, *Iñaki San Migel* konpañiakoa.

Gero jazoak ea idatzi al badodaz, ikusiak eta batalloiko lagunak kontatuak, zer gauzak jazo ziran eta zelan, ordu gutxiren barruan.

El Pontarrónen goian gengoan orduan be atrinxeratuta, lau ametralladora nagusiak eta beste ametralladora *de tambor* esaten geuntsazanakaz, eta agiñetaraiño muniziñoz beterik, mundu guztiko soldaduai eutsiteko gertu ta prest.

Urrengo egunean, illuntzerantz, badatoz kapitan bi orreik, Erremundo Pujana eta Sabino Egileor. Gero istorirako idatzi daben guztiak, idatzi dabe «So-

Alan ta guztiz be, bagendun konfiantza italiano orreikin, bada oso familiarki portatu ziran gudaria-kaz.

Urrengo goizean, El Pontarróngo zubia be alkarrekin konpondu, zigarroak alkarri emon ta abar, eta lagun lez.

Bien bitartean, zerbait ebatziko zala ta, gu guda-riok barkuetan erbesteratzeko. Bai; barku orreik ikusten ziran Laredo ta Castro bitartean, itxasoan.

El Pontarróngo zubi konpontze orretan egon zan gure beste anai Bizente, sarjento zana. Baita Manu Artetxe be, teniente zala, eta umetxu bat baiño poza-go igon eban El Pontarrón ganera, esaten ea oraindik an zelan gengoan porturatu barik, barkuetan joateko.

Ordu bat edo bi barru, ikusi ziran italiano orreik formazio antzera –ori bai, neuk ikusi neban–, El Pontarrón gora.

Guztiok gengoan turdituta lez, sinistu eziñik ikusten genduna; eta badiñosku batalloiko komisario Arrindak:

– Sua egin italiano orrei!

Eta guztion erantzuna:

– Euk egioek.

Eta gure anai Erremundo eta Sabin Egileor kapi-tanak, aurreratu ziran kilometro bat bide inguru, aurreko egunean egon ziran italiano komandanteari esateko ordena eukiela eskatzeko ogei ta lau orduan geldi egoteko.

Eta erantzuna, ezin leitekela ori bete, bada Reinos aaldetik etorri zan kolumna, italianoena, Lare-

don sartzeko urreratuta egoala, ta Laredon biak batera topo egiteko ordena zala; ta ordu aretarako aillegatzen ez baziran, bearbada esango eutsiela kobarde batzuk zirala; alan ta be, ordubete inguru itxarongo ebela, gu gudariok kamiñoratu ta martxan bidean jarri arte.

Orduan anai kapitanak, instruziño ta guztia konpañiarentzat euskeraz egiten ebanak, azken berba erderaz egin eban, eta au zan:

– *¡Esto se acabó!*

Eta bakotxa bere aldetik aurrera, nora giñoiazan ez genkiala.

Orduan gogoratu jatan, lau anaiok gerra asieran esan genduna: laurok batera asi, laurok batera jokatu, eta laurok batera leku baten jausi.

Ni, kamioneta artu ta Santoñara joan nintzan; Jesus, kadete egin ta *estado mayor*'ean egon zana, Santanderren jausi zan; Bizente, Laredon; eta Erremundo be Santoñan agertu zan.

Oraindik, Santoñan be, bageunkan itxaropena, naita askorik ez. 25'eko gaua, Santoñan, guztiok itxarrik igaro gendun. Oraindik ikusten ziran barkuak Santoña inguruan; Ajuriagerra etorri zala Frantziatik; barri onak ekarri ebazala; ofizialidadea salbatu leikela, barkuetara joanda; ez dakit zer, badakit nor...

Baita asi be ofizialok eta kargu andidunok norzuk ziran esaten. Orduan esan neutsan komandanteari, neu be apuntetako gogoagaz:

– I, ofizial guztiak bajoiazak, eta armeroak zer gradu jaukak?

Eta onela diñost:

– Jeneral batena bai beintzat.

Ez eustan grazi andirik egin, baiña bardin izan zan guztiontzako.

Goizaldeko ordubiak inguru desengañatu giñan geienok; eta anai Erremundo, Landa komandante egiten ebana, ta ez dakit besteak nortzuk izan ziran, baiña sei alkartu giñan, motora txiki bat artu ta itxasoz Frantzia arrapatzeko. Motorako gidaria bere ugazaba zan; eta ametralladora txiki bat proan ipini ta joateko prest egon giñan.

Nire lagun armeroak kamionetan gelditu ziran. Armeroetatik ni bakarrik ausartu nintzan arrisku ori jokatzeko, baiña batez be nire anaiagaitik.

Ogei bat motora egongo ziran gure antzera Santoñako portu orretan illunean. Baiña bai zan motorraren durundua! Gure motora be gerturik egoan, motor ori berotuta, bira zirkuloan eta jira zirkuloan.

– Baiña zer da au? Ez goiaz ala?

Andik eta emendik, alan eta olan, eguna argituten asi zan, eta itxaropen guztiak ia galduta. Bada iñork be, motora batek be, ez eban urten, blokeatuta egoala portua ta.

Eguna argitueran, 26'an, tronpetero batek jo eban bere korneta ori; ta jarraian beste batek, muturreko altaboz bategaz, portua abandonatzeko esan eban; ezpabe portura sua egingo ebela.

Nik, beintzat, motora ta ametralladora bertan bera itxi, anaia ta beste lagunak be bai, ta «Jaungoikoak nai dabena izan daitela» esanik, joan nintzan kamioia itxi gendun lekura.

Nire armero lagun ta txoferrak sua eginta, marmitta andi baten esnea –*condensada*– ugari geunkan kamionetan, ta arroza be ugari; eta, arroz-esnea egin eta jaten gengozala, agertu ziran komandantea, anai Erremundo ta besteren bat be bai.

Baiña ez geunkan janari bildurrik. Arroz-esnez bete-bete egin eta, jitanoak karro ondoan egoten diran lez, nasai egon giñan.

Goiz aretan egin neban, edo josi neban, kamilla baten telarekin, mendigoizaleen antzerako motxila txiki bat, zertxobait eroan al bazan; bada Santoñan giñan gudari guztiok eguerdiko ordubietarako formatuta egoteko ordena geunkan.

Agindutako moduan, arratsaldeko ordubietarako an giñan gudari guztiok formatuta. Ta italianoak eta frankotarrak sartu ziran orduan, gudariak ondo portatu ziralako-edo Dueson egon ziran Francoren aldeko presoakaz edo ez dakit zergaitik, erreketete edo itelakoen artean sartu ziran preso egon ziranok kamioneta batzutan gu guztion aurretik; eta, gudariai esker emon gurarik-edo, preso egon ziranen batzuk indartsu esaten eben «*jViva Euskadi!*». Ori be entzun gendun.

Eta jarraian agindu euskuen, Santoñako urteerako zubiondoan arma guztiak bota eta erdi formatuta guztiok Laredora joateko.

Alan egin gendun danok. Guk armeruok entregatu egin bear izan gendun kamioia, ametralladora ta guzti. Baiña nik ez dakit zelan arraio, kamioia utsitu Santoñako urteeran; eta ni txoferragaz, beste armero lagunok bertan itxita, aurrera ta aurrera Bilborantza

etorri ta etorri. Laredo pasa ta Castroraiño etorri giñan.

Castron, italiano batzuk alto bota ta dokumentua eskatu; ta, ez geunkan lez ezer, esan eben:

– *Prisioneros.*

Kamioia kendu ta alango arboladun zelai andi baten pasa gendun gaua. Lau bat milla gudari bagiñan an.

Urrengo egunean, italiano orreik egin eben distribuziño edo banatzea, eta ni kolejio Barkinera joan nintzan.

Bien bitartean, edo bat-batean, gure anai Bizente ta bere lagunak be, Laredon jausi ziranak, Castrora ekarri ebezan. Areik *Corazón de Jesús*'en kolejiora joan ei ziran. Erremundo, Santoñatik Laredora. Eta, andik egun bi-iru barru, Jesus Santanderko zezen plazara.

Begira zein ederto bete zan gure guraria: lau anaiok batera egoteko. Promesa egin eta nai izan be bai, ta laurok lau lekutan.

PRISIONERO

Orain asi bear zan beste era barri bat. Bota genduzan, eta atzean itxi, gerrako tresna guztiak; eta, oesteko pelikuletako abereen antzera, inguru guztiak zarratu ta latigoagaz domatu ondoren –edo ez–, musika ta kantu barriak ikasi eta ganera janari gutxi euki –eskerrak orri, txarra zalako ta ez ona–, geu alimentetako.

Beste asko ta asko geuk mantendu bear: zorriak. Bada gu aste batzuk lenago egon giñan Castron, prisionero jausi aurretik; eta ez zan ezagutu zorririk. Eta, len esan dodan lez, prisionero etorri giñanean, an egon ziran guri iru edo lau urtean, etxeratu arte, lagun egiteko.

Iru edo lau klase ziran: moroenak, italianoenak, alemanenak eta abar; guztirako klaseak. Danak ondo ezagutu genduzan, eta goazen aurrera.

Lelengo iru egunak gogorak izan ziran, bai gorputzarentzat eta bai pentsakizunarentzat be.

Egun batzutan italianoen menpe egon giñan eta,

tratu txarra naita emon ez, tripea janari eske. Baiña beti dago zerbait ona gauza txarren artean be; eta italiano orreik, ofizialak, asi ziran gure egoera ordenetan. Alkartu ebezan gudari ofizialak eta koziñeroak eta abar. Kapitan izan ziranak batez be; eta kapitan bategaz ipinten ebezan eun gudari, ta betetu giñan ogei ta bi euneko. Italianoentzat, *centurias*.

Barkineko kolejio ta bere *campo de fútbol*, frontoi eta ganerakoak, oso leku andiak ziran. Lur santuan egiten zan lo be lelengo egunetan. Gero, kolejio barruan be bai. Baiña bi milla ta berreun pertsonak leku asko bear dabe, ez jan eta egoteko bakarrik, ezpabe ze bere zer egiñak egiteko be. Ori be problema izan zan lelengo egunetan.

Baiña esaten asi naizen antzera, italiano orreik organizatu eben neiko ondo. Bada zenturia orreikaz batera, koziñeroak be alkartu ebezan, eta bakotxari itandu ea nun itxi ebezan azkenez euren tresnak.

Eta ipinirik euren kontura kamioneta ta txoferra tresna orreik ekarteko, zuzendu ebezan katxarro ugari. Koziñatzeko moduan ipini eta beintzat, lentejakaz ta zerbait okelagaz, ez zan faltetan salda bero apur bat; eta zenturia bakotxeko kapitanak, geureak, bananduten eben bakotxari bere erreziñoa.

Bakotxa bere erara konpontzen giñan artzeko ontziagaz. Batzuk ontzirik ez euken, baiña beste batzuk andia; eta, iru edo lau batera jarri. Koillara bategaz be bai lauk edo bostek. Beste batzuk boteetan lelengo saldea zurrut egin; eta, okelarik-edo jausten bazan, eskuakaz be ederto manejatzen giñan, bakotxa bere erara.

Gero jakin gendun beste leku batzutan ez eukiela orrenbesteko suerterik, bada amabost bat egunean egon zirala berorik artu barik.

Gu, gudari prisioneruok, oso txarto egon bagiñan be, gure familiak askoz txarrago; bada alegin guztiak egiten ebezan gu bisitatzera etorten, eta sarritan zerbait guri ekarri gurarik bidealdiak egiñik, sarritan oiñezean, eta goizalde eta gauetan be bai, geuk baiño askoz geiago sufriduten ebela. Oso nekatuta, baiña adorez, euren maiteak ikustera eta zerbait animatzera.

Baiña guztia bear izan zan. Morala ta biotza beti gora jasoak. Baita fedea eta itxaropena be. Bada orreik guztiok bear ziran, eta euki be egin genduzan. Garbi jokatu gendunak orreik eta geiago be bageunkazan geure kontzientzi nasaian. Nire *Egi batzuek aixetaratzen* liburuan dagoan bertso bat, orain oso egoki dator:

Gizonak egin bear dauana
merkantzi txarrik ez saldu,
egiarekin jokatu eta
itxaropenik ez galdu;
egia egi izango da ta
naita guzurak zapaldu,
mendia beti an egoten da
naita laiñoak estaldu.

Orri eskerrak, gu beti alai, bata besteari morala jasoteko.

Kanpo kontzentraziñoko istori asko ezin leizke kontatu, lelengo egunetakoak beintzat, zikiña aitatu

barik beintzat. Eta toki orreitan egon ez zarienok be konturatuko zarie, len zerbait aitatu dot eta. Baiña goazen istori normalera.

Egun batzuk igaro ta gero, jakin neban nire erriko abade edo *Corazón de María*'ko bat kolejio orretan egoala, eta andik eta ortik jo neban beragana ezaupidea emoteko. Baiña beragaz berba egitean, pentsa neban ez zala abade edo Kristoren jarraitzaille benetakoa; bada erderaz eta ganera apurtutzaille baten antzera artu nindun, naita azkenerako zerbait bigundu eta azkenez itandu eustan ea mezea lagunduten banekian. Eta, egia esan, ez nekiala ta agur eginda aldendu nintzan –suerte txarra–, eta geiagotan ez neban ikusi.

Italianoak egun batzuk gugaz egon ondoren, erreleboa egin eben frankotarrakaz, eta orduan asi zan gure purgatorioa.

Amabost egun barru edo olan izan zan, gudari ofizial guztiak eta euren errietatik informe txarrak euki ebezanak, erreketekak fusil eta guzti zirala, Due-sora, Santoñara, oso eskoltatuta eroan ebezan.

Beste guztiok Castron juzgatuak izan giñan, bakotxaren errietatik informeak artu ala. Nik ez neukan informe txar andirik, baiña onik be ez: errejimenaren kontrako propagandista bat nintzala, eta aberetzale sabinotarra.

Eguna etorri, eguna joan, pultsua artu geuntsan egon giñan egoerari ta bertan egin bear zan bizitzari.

Ia ille bi egon giñan bertan, baiña jakiten gendun zelan asi ziran gure gudari ofizialak fusilatzen; eta egu-nero, goizaldeetan, iru, lau, bost fusilatzen ebezala.

Lelengo egun orreitan, Zeanuriko gure lagun ona, Durungoko bonbaketan aitatuten dodana: Jose Mugarza; ta, ez liburu baten idatzita dagon lez, Jose Mugerza. Ta ez Igorreko semea, Zeanurikoa baiño.

Eta olan asko ta asko, Ramon Galarzak –Rafael Garateren izenordearekin idatzitako *Diario de un condenado a muerte* liburuan– diñoan antzera. Galarzak be berak ikusia eta igaroa diño liburu orretan; eta nik, neuk ikusia. Baiña Ramonek eta nik diñoguna, berrogeigaz multiplikatuta be, bearbada labur geldituko gara.

Fusilatuak izan ziranen
ain ordu andi, larria!
Zintzo ziranak sentitu eben
justizian egarria.
Au asetzeko bala zuloko
odolezko iturria;
odol sakraua ixuri zana,
baiña badator barria,
naita erriko gizon danak il
ez dabe ilgo erria.

Pizti zatarren amurrua ta
lupu maltzurren gorputza,
ule puntatik beatzeraiño
guztia bereno utsa.
Alaskan diran izotzarekin
otzituko odol otza,
Aitzgorrin diran arriarekin
moldaturiko biotza,

bestela nola egin legikez
orrenbeste eriotza?

Gizon gaiztoak egin ebezan
krimen ta gauza zikiñak,
esanik danak izan zirala
txarrak ilteko egiñak.
Orrelakorik ez dauka iñon
Jesukristoren dotriñak,
salbaziñorik iñon badauko
kriminal gaizto ziztriñak,
salbatuko dau mundu onetan
txarrágo izan eziñak.

Mundu apur bat daukanarentzat
au da guztiz arritzeko:
indar zantar bat zan jaiki zana
goi argiak ebaitzeko.
Eta ganera jazo ziranak,
kristauak, zenbat olako:
fusilatuak euren erria
maite izan ebelako;
gizonak daukan kontzientzian
orrek lekurik ez dauko.

Nik ikasi dot istoriatik
iltzaille bat zala Neron,
beste batzuen egiñarekin
Neron ez zan urrik emon.
Legeren batzuk aldatuteko
naita errazoia egon,
esaidazue iñor ilteko
errazoi ori non dagon?

ANDALUZIA

Ille bi inguru an, Barkinen, egon giñala, eurentzako garbi samar egon giñanak eta ofizio dunak esamiñatuak izan giñan, bakotxa bere ofizioetan. Bien bitartean, Barkin ori utsituz joan zan, eta *trabajadores especialistas*'era Sebillara joan zan espediziño bat, eta ni ez nintzan izan arteko, naita esamiña ondo egin. Baegoan akatsen bat nire bidean.

Oso gitxi gelditzen giñan lez Barkinen, Santoñara eroan ginduezan, baiña ez Duesora, beste kuartel zar batera, len baiño txarragora, gelditzen giñanok.

Berriozabal Anastasio be, Areatzakoa, arotz ona izan ta guztiz be, nire kasoan egon zan.

Amar egun barru izan zan beste espediziño bat, Sebillarako au be. Ni bertan izan nintzan, baiña zoritxarrez ez Berriozabal, eta gero Duesora eroan ei eben. Ni oso pozik joan nintzan, naita Sebastopolera joan bear izan.

Santoñatik Bilbora trenean abereen antzera, ar-

tzai soldaduak guardia egiten euskuela, baiña fusilakaz, ez makilakaz.

Bilbon egun bi, Institutoan, egin genduzan. Etorri ziran gu ikustera etxeakoak, eta lagunak be, batez be neskato ezagunak, eta iziko Ana be bai. Bada, berak be seme bi eukazan ortik zear, eta negarrez esan eustan bere alabatxo zazpi urtekoak, asko eskatzen eutsala Begoñako Amatxori guztiok ondo etxeratzeko. Orduan nire barruan sentitu neban umetxuai erantzuten dautsiela Ama Birjiñak, eta banekala konfiantza.

Baita be esan eustan gure arreba Madalenak, bere promesa egiñik, ortozik joan zala Zulaibartik, etxetik, Urkiolara mendirik-mendi eta kamiñoz, iru orduko bidean. Sei ordu joan-etorrian. Baiña ortozik, joan bakarrik.

Olango promesak askok ta askok egin ebezan. Nondik atera leiteke orrenbesteko borondatea eta fedea? Biotzeko indarrak ez dauka toperik.

Urriaren azkenetan joan giñan iru gau eta iru egun trenean. Ez giñan konturatzen nondik eta norantza be. Baiña bigarren gauean jakin gendun Meridan gengozala. Baiña ez gendun urten be bagoietatik.

Bagoiok merkantzia eroatekoak izan ziran, zarratuak goi ta guzti, atea ta leioak ol batzukaz josita; eta bear izanak egiteko, bagoiaren salako ol zati bat kenduta.

Alako baten, ordubete inguru geldi itxaron eta jatsi giñan bagoi orretatik Sebillan.

Iru egun ta lau gau zirean
biaje gogor luzian,
uste genduan denpora ortan
eldu giñala Rusian.
Beste batzuek esaten eben:
«Gitxienez bai Asian»,
eta azkenez agertu giñan
or dagon Andaluzian.

Sebilla ortan agertu giñan
ate ta leio josita,
andaluz erreik erruki ziran
gu orrela ikusita.
Ango jenteak eroan eban
ain desengaño galanta,
gu adar barik ikusteagaz
adardunak giñala-ta.

Oraindik aurrera joan giñan, *La Base* esaten eutsien lantoki ta kanpo andi batera. Pabelloi andi batzuk eta tallerrak oso andiak ziran; baiña gure aurretik joan ziranak be oraindik organizatu barik egon ziran, eta amabost egun bakarrik egon giñan gu, azkenengo joan giñan espediziñoa, baiña oso ondo.

Geure orduetan kalean be ibilten giñan, ta orrela ikusi eta ezagutu gendun Sebilla ortako zerbait. Euren artean, *la Giralda* edo entzute andiko ori be bai.

Guk Sebillan ez gendun bearrik egin, eta amabost egun barru Kadizera. Kadiz orretan alkartu giñan beste espediziño batzukaz, eta izan giñan guztiz sei-reun eta sei lagun.

Fábrica de torpedos izena eukan ikaragarrizko fabrikak. Ez egoan oraindik guztiz amaituta, baiña ormigoizko lana beintzat eginda eukan. Beingo baten edo egun gitxi barru martxan egoan makinari guztia: tornu, fresadora, zepilloa, *banco de pruebas*, arotzeriko makina guztiak, txasisak egin ta probatzekoa ta abar. Guztia konpleto, eta guztiok lanean giñan egun gitxi barru.

Makinari guztia izan ei zan Errusiatik Balentziara errepublikako gobernuari bialdu eta itxasoan frankotarrak atrapatutako barkuan etorrena. Ori da negozioa: makinari guztia ostua eta langilleak prisione-roak. Era ortan edozeiñek egin leike; baiña guk ez dogu nai orrela egiñekorik.

Kadizko fabrika ortan nagusi antzera, politiko eta zibil arloan, izan zan kapitan Moreno. Baeukan abildadea gu animatu eta lan eragiñazoteko fanfarroi antzera. Berak esaten euskun gu langille ta mutil onak giñala, eta teniente eta sarjentoai be esaten eutsen guri jateko baba gorriak –babarrunak– eta okelea emoteko, eta jantziteko buzoa eta txapela. Kapitan orrek berak be txapela jantziten eban.

Gero, aparte, baegoan komandante militar bat, eta kapitan injeniero bat be bai. Baiña au aurretik zibilla izana, eta lanerako oso zuzendari ona. Ta baita baziran ausiliarrak esaten geuntsen tallerretako maisuak be.

Batzutan egiten gendun amar orduko saioa egunero. Beste batzutan, zortzi. Arlo orretan burrukak eukiten ebezan komandante militarrek eta injeniero zibillak. Azkenerako asarratu ziran biak, eta zibillak,

zortzi ordu beteten ziranean, joten eban kanpaia, egunari edo lanari amaia emoteko. Eta militarrek barriro jarraitzeko joten eban kanpai ori. Egun batzutan orrela izan giñan. Esan gendun:

– Zer? Erriko jaiak dira, ainbeste kanpai joteagaz ala?

Sei illabete bakarrik egon giñan Kadiz orretan. Baiña sustantzi andia atera gendun bertan; bada, naita lan egin bear izan, apal ostean eta jai egunean beti urteten gendun urira, Kadiz barrura.

Lelengo egunetan, gu kalean zear ikustean, bertako emakume ta gaztetxuak guztiak ezkutatu edo ostondu egiten ziran, bildurturik. Bada eurak izan ziran gutzaz txarto informatuak: oso txarrak, gaiztoak giñala ta. Baiña, nai ta ez, gu guztiok domeketan eta jaietan meza entzutera be joaten giñala ta, Pazkoaldian be eliz jai eder bat egin gendula eta abar, kristiñauak eta gizonak giñala agerturik, irabazi gendun kadiztarren konfiantzea.

Eta Kadiz orretatik Zaragozako *Ciudad Universitaria*'ra alde egin gendun egunean, trenaren geltokia eta inguruak, guztiak jentez beterik egon ziran, guri guztioi eskerdun agur bero bat egiten.

Baiña azken agur au baiño len esan deidan *fábrica de torpedos* orretan jazotako ezbear negargarri bat.

Fabrika ori itxasoko *bahía* ondoan egoan, eta Kadiz barrutik ur; eta, ganera, itxasoko uraren alturan edo nibelean. Orregaitik, komunetako gasak urtete-ko be ez eukien erreztasun andirik.

Komunak be ogei ta amar bat egongo ziran illada bitan, eta ez zuzendari eta ez iñor be ez zan sospe-

txatu be an jazo bear zanagaz. Bada potzu septikoak betetu ziranean, itxuraz eztanda egin eben; eta lelen-go pentsa genduna, gorriak, gure aldekoak, barkoren batek-edo, bonbardeoa egin ebela.

Zer jazoten zan ez genkiala, mogitu giñan ara ta orra. Bada komun orreik beste pabelloi baten egozan, arotzeriko taillerrak ganean eukiezala; eta, bertara urreratzean, ikusi genduzan ikusgarrizko ormi-goizko pilarrak ta bigak aidean jaurtita; arotzeriko makinak lurrera jausita; eta komunak, guztiak zapalduta eskonbroakaz.

Potzua eskonbroz bete eta komunetan egozanak edo barruan suertatu ziranak, bost edo sei bat mutil lagun, salbatu ziran, basatzatik aterata. Baiña beste iru mutil bertan il ziran, bi bertan eta bat ospitalean, egun bi barru. Il ziranok ziran Zarauzko bat uste dot, beste bat Barakaldokoa, eta beste gure lagun on bat Igorrekoa: Sautoa. Au zan egun bi barru il zana ospitalean.

Kadizen egon giñan sei illabete orreitan, naita frenteatatik egon zerbait urrin, beti egoten giñan bulo edo guzur edo konturen bat iñondik agertzen bazan, gure gerra ori zala-ta edo. Bada, naita prisone-ro ta galduta aurkitu, beti egoten giñan zer edo zeren jakin guran. Itxaropenik ez gendun galtzen iñoiz be.

Egun baten jakin zan, kapitan injeniero zibilla, len aitatu dodana, beste aldera joan zala gorriengana. Bada egun areitan desagertu zan eta geiago ez zan agertu. Eta gu guztion listak eroan ebazala, eta gure alde zerbait jazoko zala ta abar. Begira zer dan itxaropena!

Beste bulo bat be sortu zan, Gernikeko Atxa zeri-tzon batek asmatua. Berbera asi zan esaten, Andaluziako frentean gorriak lau egunean laureun bat kilometro aurreratu zirala. Onela esan eutson bere ondoan lelengo egon zanari:

– I: ez egiok iñori esan, baiña gorriak Andaluziako frentean laureun kilometro aurreratu ei dozak.

Eta bigarren orrek ixilik bere barruan artu lelen-goak asmatua. Baiña aldendu zanean, bere urrengoa-ri:

– I: Andaluziako frentean gorriak laureun kilo-metro aurreratu ei dozak, baiña ez egiok esan iñori.

Asmakizun edo bulo orrek, batetik eun edo be-rreunera joan da gero, danak alkarri esanik iñori ez esateko, azkenengoak asmatu ebanari berari onela esan eutsan:

– I: ez egiok iñori esan, baiña gorriak Andaluziako frentean laureun kilometro aurreratu ei dozak.

Eta berak beretzako diño:

– Aiba! Ea egia dan!

Era orretan, amets, ipuin eta guzur, igaroten gen-duzan geure egunak.

ZARAGOZA

Len esan dodan lez, sei illabete igaro ta gero, Zaragozara joan giñan, *Ciudad Universitaria*'n lanean jarteko. Lelengo egunetan, gure izena izan zan *base de recuperación de automóviles, destacamento de Cádiz, Ciudad Universitaria* barik.

Kadizen antzera jazo jakun: edifizioa amaitu barik egoan, eta ormigoi arteko lonja edo pabelloi batzutan jarri giñan, Kadiztik ekarritako makinariagaz.

Ciudad Universitaria au Zaragozako albo aldera egoan, eta leku zabalak eukazan, hipodromo ta guzti. Zelaiada guztiak beterik egon ziran auto ta gerra-ko tresnakaz, bertan egozanakaz eta egun guztietan etorten ziranakaz. Bai egon zan lana neiko; eta, tallerak martxan ipinirik, baegoan zer egin.

Bear asko eragiñazoteko, jaten be neiko ondo emoten euskuen. Ganera, eguneroko alogera zerbait be bai. Askorik ez, baiña neiko, gerra baten prisioneroai emoteko. Kategoriak egon ziran: pezeta bi, amar erreal eta iru pezeta eguneko.

Neiko diru, baiña beti dago baiñaren bat, eta au izaten zan: bada zer edo zeren faltaren bat baegoan, listara faltatu edo laneko orduan kamioiren baten azpian kamioia konpontzen barik siesta botatzen arrapatu, edo jai egunetan arrastia kalean igaro, edo meriendatxuren bategaz edo olan sasoian berotxu joaten giñanean, batzuk lista pasatzean erantzun doiñutik kanpo edo berandutxu eldu listara, olakoren bat jazotakoan, dirurik bitarte izan ez bazan, esango eben:

– ¡A cortarle el pelo!

Baiña jornala egoan lez bitarte, ulea moztu barik jornala moztuten eben, multa botata, eta illerik geienetan eukiten genduzan sarian bajonazoak.

Baiña alan ta guztiz be, oso ondo igaro genduzan Zaragozan egon giñan iru bat urte, bada badiñot: bear edo lan eragiteko, oso tratu ona emoten euskuen tallerretako zuzendariak, bai zibillak eta bai militarrek be.

Begira, bada: egun baten, jai edo domeka arrasti baten, bazkaldu ta gero kanpora, irira, joateko aske izaten giñan lez, geienetan, eta urten baiño len, formatu eta kapitanak, tallerretako ta guztiko nagusi orrek, errebista pasetan eban, ea txukun samar bagengozan, kalera urteteko beste.

Sarjento bat geunkan, militarra, baiña koitadua zalako edo enboskadoren bat zalako, gure sarjento egon zan eta, bere koitadu itxuragaitik edo ez dakit zergaitik, guk deitzen geuntsan *El Campesino*; eta, esan dodan lez, kanpora urteteko formatuta gagozala, sarjento orrek diñotso kapitanari:

– *A sus órdenes, mi capitán. Estos gударis me llaman El Campesino.*

Eta kapitanak:

– *¿Pero y por eso se molesta usted? A mí me llaman el hijoputa tal y me tengo que aguantar.*

Gure kapitan ori *base de recuperación* askotako arduraduna zan, eta ez zan egoten gure basean, *Ciudad Universitaria*'n, ez egunero ta ez astero be.

Baiña guregana etorten zanean –alan egingo eban beste batzutan be–, beti gustatzen jakon gugaz edo gutariko batzukaz broma edo tertuli bat igarotea, gure artean egon ziran kantari edo txistosoakaz.

Bilbainadak be gustetan jakozan. Neskatoak be batzutan ekarten ebazan, bere lagunak edo ez dakit zer.

Gure artean zortzi edo amar kantari, eta gitarrista bat be baegoan. Geien kantetan ziranak izaten ziran bilbainadak. Ni leलगotan ez nintzan joaten, edo en nintzan izaten euren arteko. Baiña an kantetan zana banekian geiena.

Kantu batzuk, *Vamos a formar un gobierno popular*'en doiñuan ziran. Kantu au republikako Bilboko leлengo alkateari kantatu eutsoena da. Udaletxeke eskilaretan itxaronik, alkate ori kotxetik jatsieran, goiz baten jarten dira txinbo batzuk bere aurre, eta esan eutsoen:

– Itxaron apur bat, alkate jauna; bada dedikatu gura dautsogu zeuri, egi ta egoki dan kantu bat.

Eta onela diñotse:

*Salud al ayuntamiento
y al alcalde popular,
y deseamos pedirle
algo de necesidad:
arreglar esos dos puentes,
porque están causando risa;
y, por la marcha que llevan,
no parecen tener prisa.
Así tendrán de Bilbao
respeto y admiración,
pues al pueblo le hace falta
el trabajo y la instrucción.*

Beste kanturen batzuk be oneik izan ziran:

*¿Para qué vamos a hablar
de la cuestión de las modas,
si no hay mujer que apartar,
porque son iguales todas?
Con arreglos de cabeza,
con uñas y labios rojos,
se han depilado las cejas
y sombreado los ojos;
y luciendo botas altas,
con impermeables de cuero
un remo al hombro les falta
para ser un gabarrero.*

*Hemos comprado una jaula,
un bote liga y un gran jaulón,
nos hemos ido a pescar
a la calle la estación.
Hemos cogido jilgueros,*

*muchos pardillos y un berdelón.
Una enredadera en el aire tendida,
cosa concurrida,
Plaza Circular;
aunque el caso parezca tan raro,
hasta López de Haro
tendrá que mirar.*

*A la entrada de Achuri
nos quisieron echar el alto,
por si éramos nosotros
los que comíamos los gatos.
Nosotros les contestamos,
atentos y satisfechos:
«No nos comemos los gatos;
nos comemos los conejos».*

*Este monte solitario
que le llamamos Archanda,
ha de ser testigo diario
de juergas y cuchipandas.
Desde allí se ve la mar,
la mar de cosas;
y también chicas se ven
como las rosas.
Ya no cantarán solitos
los grillos y los clincones,
porque cantarán de noche
a dúo muchos moscones.*

Baiña kapitan orregaz be zur eta adi egoten giñan. Bada, naita juerga gustatu, bere ogia zaintze-

ko bidera jokatzen eban. Egun baten, Gallartako bat, kantari taldekoa, apur bat pasatu egin zan edariz eta mingaiñez, eta an bialdu eban *batallón disciplinario número uno*'ra. Ez genkian geiagorik beratzez. Baiña esaten eban ori zala kastigurik edo zigorrik gogorrenetarikoa.

Gu, an egon giñanean, Kadizen antzera, oso ondo konpontzen giñan. Alkar lagundu, batez be gure animua jasoteko. Bada orretarako giñan eunetik larogei ta amabost euskaldunak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak.

Beti antolatzen zan zerbait kirol be osasunaren onerako eta denpora librea entretenituta igaroteko: palanka jaurtitea edo pelota txapelketa ta abar. Baiña pelota ori izaten zan geien pratiketan zana, eta lagun geiagok parte artzen genduna.

Geientxu ziran batzuk aitatuta, onenak edo onen-txuenak oneik ziran –ez diñot «giñan», bada naita neuk be parte artu, on-ona ez nintzan–: Monasterio, Gernikekoa; Galdona, Zarauzkoa uste dot zala; eta Jose Maria Etxabe, Zumaiakoa.

Ni ez nintzan orreik bestekoa, baiña sustu batzuk emoten geuntsezan eurai be. Ni, nire bertso, kontu ta txiste, euren ustez izaten nintzan *el fanfarrón de Arratia*; baiña pelotari moduan, *Chiquito de Arratia*.

Pelota txapelketa bat izan gendun bikaiña, garrantzi andikoa. Partiduak izaten ziran lana amaitu ta apari bitartean, laneko tenientea joan ta teniente intendentea etorri artean, eta an izaten ziran txalo ta oiu ugari.

Alango egun baten, naita laneko teniente ori

kuartel orreitatik aldunduta egon, txalo ta oiuaq entzutean, barriro biurtu zan kuartelera; eta, gu guztiok apur bat ikaratuta aurkituarren, jakin gura eban zer jazoten zan. Niregana bialdu eben, ni nintzala antolatzaillle bat eta.

Bada, ordurako, edo aurretik, nik neuk egindako kopatxu bi euki nebazan, brontzezkoak, tornoan eginda. Ez txantxetakoak, eta ganera grabatuak, bada grabadore edo burilista bikaiñak be baegozan. Euretariko bat Luis Bergara, *Kamiño*, eibartarra. Onek grabatuak izan ziran, eta *Recuerdo de Zaragoza* ta urtea ipinten eben.

Teniente orri erakutsi eta uste dot sospetxa egin ebala bertako materialagaz egiñak zirala. Baiña tira: bakarrik esan eustan lelengo:

– *Tú eres el doctor Pujana. Sólo te falta la perilla.*

Eta berak ikusirik gu gauza orreikaz atsegin giñala, bildur apur orren ondoren non diñoskun batailloiak emongo ebazala beste kopatxu bi.

Alan, ikusgarrizko partiduakaz txapelketa ori finalera etorri zanean, tenientea bera be egon zan ikusten, eta oso arrituta gelditu zan, alako joko alai eta sanoa ikusiagaz. Oso pozik egon zan bera be, ia-ia turdituta, ea joko klase ori nongoa zan edo olan, bada tenientea bera Zeutakoa zan, eta bein ere pelota jokorik ikusi bakoa.

Finalaren ondoren, batalloiko kopa orreik txapeldunentzako berak banatu ebazan, eta nik egindakoak neuk; eta ni *Chiquito de Arratia* izan eta ni saririk barik.

Baiña nik beste kopa bat niretzako egin eta, naita

txapelketa orretan irabazia ez izan, etxean daukat arein antzeko bat, zidartu ta guzti, eta berak be an diño: *Recuerdo de Zaragoza, 1938.*

Txapelketa orren ondoren, tenientea eta guda-riak konfiantza geiagogaz izaten giñan, eta orrela guztiontzat obe eta eroangarriago.

Guk, euskaldunok, geienok beintzat, Jesukristo-ren Elizan eta bere dotriña barruan, umetxutatik artu gendun oitura, gure erlijjiñoko egin bear guztiak be-teteko. Erreztasunak be bagenduan eta, egin bear ziran lez egiteko, Pazkoaldiko jaunartze ta olango egun seiñalatuetarako, Kadizen be bai eta Zaragozan be bai, beti aurkituten genduzan praile edo abade euskaldunen bat be.

Ortik aparte, domeka ta jaietan izaten gendun gure kuartel edo kanpamentu orretan meza entzuteko era ederra, eta beti entzun patxadan ta errespetoz.

Abade edo kapellau ori kanpotik etorten zan, bada gure artean ez egoan abade egindakorik. Bai, egon ziran urte batzutan seminarioan egondakoak. Baiña, diñodan lez, abaderik ez.

Baiña abadeen antzera egiten baekien laguntzailleak be, eta begira zer jazo zan domeka baten. Zer jakin ete eban gure teniente intendenteak, ez tallerretakoak? Len esan dodan lez, Zeutakoa zan, ta ez da gitxiagorako.

Gu guztiok, meza ordurako, prest edo gertu gengozan kapellaua etorri arte begira, teniente ori buru zala. Baiña ordu erdi bat pasa ta ez zan agertzen abadea; ordubete eta oraindik be ez, altara ta guzti,

laguntzailleak be eurak eta meza esateko gauza guztiak prest zirala.

Alango baten, teniente orri be luze egiñik, badiñotso sakristau edo laguntzaille orreitako bateri berak zelebratzeko, meza esateko beste baekiala ta. Arek pentsa eban zeremonia egiten jakin ezkerero neikoa zala, naita abadea ez izan.

Olango asko izan ziran *cruzada*-ko mandatari edo zuzendari edo ez dakit zer. Orrek, bai, baekian guri guztiori irakasteko beste Jesukristoren dotriña. Gizarajoa!

Dana dala, egun aretan jazo jakun, ordu erdigaz beteta eukiten gendun egin bearra, ordu ta erdi egon eta mezarik entzun ez. Eskerrak gure kontzientziak deskantsatu ebala esaera onegaz: intentziñoa edo borondatea neiko dala.

1938'ko urtean, Pazkoa egunean, Pazko aldia ospatu gendun. Egun ederra, bikaiña. Bada aldi orretarako alkar ondo ezagutu eta konfiantza andia egin gendun.

An Torrero aldean egon ziran marista edo olan-goak, geienak euskaldunak ziran, eta nagusi egiten ebana be euskalduna. Eta ordurako, egun andi ori baiño aurreragotik, eurak buru zirala, antolatu eben gu batalloian giñan euskaldunakaz eta eurakaz orfeoi bat, eta sarritan ensaiatzen gendun; ta naita abots orrein artean ez egoan Gayarrerik, bai baegoan bari-tono egiten eban bat neiko ona. Au zan Ernesto Britz.

Orfeoi talde onegaz oso arro egon ziran prailleok.

Bada jai ospetsuak antolatzen ziran, eta gu oso pozez.

Jose Mari Etxabe, pelotari be egiten ebana, izaten zan gudari artean enkargatua orfeoirako, eta ni be artzen nindun, naita abots kaskarrekoa nazala esan. Bada esaten eustan, aoagaz baiño, gorgalleagaz geiago kantetan nebala; eta nik erantzun, aotik eta gorgalletik ez nebala kantetan, biotzetik baiño, eta ori zala garrantzitsuena.

Larri egon nintzan esateko bera be antzekoa zala. Baiña obeidu eta bera poztu daiten esan nik ez neukala berak beste suerte edo birtute edo altasun, berak bestean ondo kantetako beintzat.

Olako gauzatan kementsua ta langillea zan, eta borondate andikoa. Pozik egiten ebazan lan orreik, eta olakoari ez jako ebagi bear egorik eta muturreta-korik emon.

Dana dala, orfeoi ori bitarte zala, ango kolejio inguruko jentea be etorri zan meza ospetsu ta Pazko aldiko jaunartzea egitera.

Marista lagun orreik eroan eben, meza esateko, Gipuzkoako abadea, erreketeen kapellaua, kapitana. Guk ori ez gendun jakin. Gero esango dot zelan edo nolan jakin gendun. Meza aurretik gitxi ikusi gendun, eta gero be gitxi; bada etzan gelditu gugaz gosaltzen.

Gu guztiok oso pozik eta alai gengoan, lelengoz Jauna artu bagendun lez. Gure artean ez zan saminiñik, etxetik urrun gengozala besterik. Ostantzean, gorputz eta arima munduko gauza guztiak baiño gorago geunkazan. A zan, a!



*Prisionero talde bi Zaragozan. Bekoa, Pazko egunean egi-
ñiko argazkia. Bean, bertako euren kolejioko iru marista eta
kapellau militarra. Gurutzeak, liburuaren egillea non dagon
adierazten dabe.*

Gosaldu marista anaiokaz eta, baimena bageunkanez kuarteleko bazkarira uts egiteko, geure kontura bazkaldu gendun itxurazko janleku baten.

Bazkalondoan, oraindik bazkal lekuan gengoza-la, ni bertso kantetan asi nintzan. Bada nire lagunok, eurak neiko kantatu ebenean, niri zirrika bertso batzuk kantetako; eta nik lagun artean kantatu bear gure euskal usaiñezko bertsoak.

Bertsotan nagola, kafea artu ta gero, non sartzen diran gure egun andi orretan goizean meza esan eban abadea, militar uniforme ta iru izarregaz, eta beragaz beste sei edo zortzi erreketek, oneitako bi edo iru Azpeitikoak zirala.

Orduan ixildu egin nintzan. Bada abadea ezagutu, alde batetik; eta, bestetik, gure artean ziran Azpeitiko bat, Arregi uste dot, eta Azkoitiko beste bat, Doroteo Orbea, erreketek ezagunak zirala-ta, tximista lez iges aldendu ziran. Eta bertso erdi kantatuta, ni ixildu.

Lelengo unea ez zan izan ain segurua. Baiña beti lagun izan bagiñan antzera, giro dezentea egin gendun; eta, bertso batzuk kantatuz, Pazkoa egun andi orri ta Zaragozako ardao onari ez geuntsen kendu euren anditasuna.

Orregaz eta olako alkar aituteagaz, berba eginda eta errazoi eta eretxiak ipinita, aldendu leikez txarto adituak edo asarre guztiak, eta orrela guztiok anai.

Alkar maitatu ezik
guztia aldrebek,

guztiok samiñez ta
guztiak naigabez.
Ori gatx andi ori
kendu geinke errez:
alkar aitu guztiok,
besterik ezer ez.

Olango ta alango askogaz, gerra amaitu ta denporagarrenean, tingili ta tongolo, bizirik urten gendunok etxeratu giñan.

Jaungoikoari eskerrak, lau anaiok alango baten etxean agertu giñan, eta etxean aita ta anai-arreba biak ondo aurkitu genduzan, Jaunari esker.

Lau anaiok alkarren antzera eldu giñan aitaren etxera: oiñetakoak, soiñean ekarri genduzanak; soiñekoak, bardin: buzo bat edo beste, ganetik jantzita; boltsillo gitxi eta danak utsik.

Era ortako egun samiñak
tokatu jakuzan guri,
gu orrela ta gure antzera
beste millaka gudari.
Gora begira, bera begira,
iñon ez ezer agiri,
igaro ez dun iñork ez daki
urrik emon zer dan ori.

BAZKARI BATEN ONDORENAK

Ainbeste neke, samin, zigor artu lau edo bost urtean, eta pozetan etorri etxera. Francok edo deabruak, ez dakit nok ezarritako zigor guztiak ordaindu eta erriratu.

Guk uste gendun, Francori ordaindu ezkeru, frankotarra be ordaindu geuntsiela. Baiña, ikusi zan lez, olan ez zan izan, eta ordaindu bear izan geuntsen frankotar guztiai be banan-banan eta nai eben beste aldiz. Beti faktura pagetan.

Ez ete da neiko zor dana bat-baten pagatea, zorra bada? Lege orretan ez beintzat, eta ori izan zan aldi aretako legea. Ordaindu eta ordaindu. Francoren guztiak ordaindu eta Neronen semeak aurkitu errian. Ori izan zan biotzean golpe gogor barri bat.

Gerra amaitu eta andik denporagarrenean, asi giñan anai guztiok etxeratuten. Lelengoa ni izan nintzan. Gero, anai Bizente. Ta andik urte betera-edo, Jesus, Puerto de Santa Mariatik.

Batek edo bestek esan dausku, nire anai orri es-

kerrak irakurten eta eskribiduten ikasi ebala kartzela orretan. Bada anai Jesus, ordurarte be, eskola maisu izan zan, eta orrela dediketan zan eskolarik ez ekienai edo gitxi ekienai irakasten. Orregaitik deitzen ei outsoen *El Maestrillo*.

Gero, jarraian, anai au Francoren ejertzituan serbitu bear ebala-ta, aurretik ez ebalako serbitu, barriro joan bear ebala; ta 36'ko kinto zalako, ganera joan bear trabajadoreetara; eta, orra joan ez egitearren, apuntatu zan lejonarioetan. Gero an beste iru urte.

Ia lau urte kartzelan egon da gero, 1942'an, etorri zan edo etxeratu zan anai Erremundo, amasei illabete denpora orren lelengoetan *pena de muerte*'gaz egon zana.

Egun batzuk barru-edo laugarren semea etxeratu-ko zala esan eutsan gure aitari erriko lagun jaun batek, eta erantzun eutsan:

– Kortako zekor bat ilgo dot, ori zelebretako.

Eldu zan egun zoragarri ori; eta, beragaz batera, Erremundogaz, egon ziran beste lagun asko, *libertad condicional* edo olan emonda. Euren artean akordio bat egin ei eben, kartzelatik urten baiño len, bako txaren errietan jaiak ziranean, erri areitan alkartu eta bazkari bat edo olango bat egitea alkarregaz.

Olan jazo zan, ba, lelengo jaiok Zeanurin zirala, San Isidroetan: San Isidro maiatzaren 15'ean, eta urrengo eguna, 16'a, domeka; eta egun orretan ospatu gendun San Isidro.

Antolatu zan bazkari andi bat. Guztiok pozez ganezka, eta aita be bai. Zertan esan be ez! Preso

lagunak, osabak, senideak, laguntzailleak –kartzelako denporetan–, berrogei ta amar bat lagun guztira.

Laguntzaille oneik ziran, aldi areitan kartzeletan egon ziran guztiai, gudariai beintzat, laguntzeko egon ziran batzorde edo lagunak alkartuta, batez be emakumeak, lan asko ta ona egin ebenak; eta oneitariko batzuk be baziran bazkari orretan.

Etxe barruan ez egoala guztiontzako lekurik eta zelan edo alan konpondu giñan etxe aurreko soloan bazkaltzeko, naita gure aitarentzat oso sakratuak izan soloak olan erabilteko, gure aitak oso maite izaten ebazalako, bada berari gustetan jakon mundu onetan tokatu jakozan gauza guztiak ondo zaintzea eta tratatzea.

Jai ta bazkari bikaiña: txistulari, aureskulari eta ni bertsolari, geuk gerra irabazi bagendun baiño alaiago. Eta egia, izan be: naita armazko edo izkilluzko gerra ori galdu, gizontasunezko gerra geuk irabazi gendun, eta ori izan zan ospatu genduna, danok etxeratze miragarri orregaitik.

Ainbeste ta esandako guztiak igarota, ezertxuren zauririk eta ezbearrik euki barik lau anai etxeratuta, lau edo bost urtean etxez kanpo igarota, konbaterik geienetan eta gero kartzela gogorretan ibilita, ez zan gitxiagorako.

Bai; bazkari ori edo dijestiño ori oso luzea izan zan ango amairu lagunentzat, eta baita bazkari orretan parte artu gendun guztiontzat: bada, urrengo egunean denuntzia bat izan zala-ta, an izan giñan guztiok tarteko giñala.

Gure aitaren aurka izan zan edo etorri zan denuntzia ori; eta, gure aitak orduan irurogei ta amabi urte eukazan lez, anai Erremundok urten eban erresponsible.

Bazkarian egon giñan guztien izenak emon gura ez ta emon ebazan amairurenak, eta aurrera joan zan denuntzia ori.

Izen orreïn tartean, gizon errespetagarriak ipintearren, inpresio ona egiteko-edo, malezi edo intenziño txar itxurarik ez eukienak lista orretan ipini ebazan anai Erremundok: gure lengusu batzuk eta lau osaba zar, eta lauretatiko osaba bat abadea; eta bera, ganera, gure familian egoan frankotar amorratua.

Eta anai Erremundo tarteko zala, amairu orreik Larrinagako kartzelara. Osaba abadea bera be bai.

Orduan be, nire anai Erremundok ez eban nai ni eurakaz joaterik. Bada, batenbat gelditu bear zala kanpoan, kasu ori defendiduteko.

Olan gelditu nintzan, eta olan asi giñan lelengo kontsultak egiten; eta asi bear zala ea nor edo nortzuk izan ziran denuntziante orreik.

Lelengo artu genduzan kontseju edo egin bearrak izan ziran, San Isidro Zeanuriko jaia zala ta erriko udalean eskatzeko zertifikatu edo garbitasun bat, eta orregaz agertu leitekela bazkari ori izan zala jai orregaitik, San Isidro gure errian jai zala-ta, eta ez *una concentración de capitanes y comandantes rojos*, denuntziak esaten eban lez; udaleko agiriagaz batera, osaba abadearen informe bat; eta, bearbada, orixe guzti ori neiko izango zala.

Baiña ori egin orduko, pasa ziran iru egun, eta ordurako amairu gizon Larrinagako kartzelara; ta denuntzia ori militarretara aillegatuta egoala, ta zibil arloan ezin zeitekela ezer egin, eta orduan apatxak mogitzen asi bear zan; eta Zeanuriko Errotaetxetar familira jo gendun lelengo; bada, oneitatik anai bi ziran Francoren gobernukoak: bata Don Jesus, itxa-soko ministroa; eta bestea Don Antonio, gobernuko *ingeniero de montes*; eta oneik, naita kargu orreitan egon ta erregetarrak izan, Zeanuri ta zeanuritarrak oso maite izan ebezan. Gizon oso errespetagarriak, monarkikoak. Onein aita zan ejertzitoko jenerala, Don Ramon.

Nik ezagutu neban orduan, jubilatuta ta erretiratu-ta egoan. Baiña nire lagun zan Jose Mari Artetxek eta nik bertsotan gazterik egiten gendun lez, gugaz egiten ziran jaietara be sarri agertzen zan; eta ara non, soldaduskara joan bear izan gendunean, esan euskun guri biori:

– Joaten zarien lekuko jefe ta ofizialen izenak bialdu, nik zuen alde zerbait egin gura neuke ta.

Nik beintzat bialdu neban eta, jeneraletatik goitik asi zan lez, ia iru illabete tardatu eban, ni egon nintzan konpañiako kapitanaganaiño aillega orduko. Baiña azkenez destinu oso eder bat neukan: *ayudante del sargento de limpieza*. Ezertxu be ez neban egiten.

Baiña Errotaetxetarrok gizon zeatzak eta oso langilleak, len esan dodan antzera. Lelengo, errian geientxu egoten zana Don Antonio izan zan lez, beragana jo gendun, eta ardura andia artuta asi zan lanean kasu orretzaz.

Andik egun batzutara esan euskun informatu zala Gobernu Militarrean, eta denuntzia ori oso gogorra zala ta gauza ori oso zaila egoala; ganera, *libertad provisional* ori be galdu leikiela eskartzelatuak, gure anai Erremundok eta bere lagunak, eta or ipini eban interes guztia grazi ori mutillak galdu ez egien.

Orduan, etxe askotakoak giñan lez, ezaupide guztietara jo ta ezagun guztiak konprometitu genduzan, arlo orretan laguntzeko.

Asko balio euskuna, gure auzoarena be izan zan. Bada eurai be deklaraziñoak eskatzen eutsezan; eta, guk gero be esaten gendun lez, auzo oneik be eta osaba abadeak be bardin esaten eben lez, bazkari ortan ez zala jazo ezer denuntzirik egitekorik, guztiak artu eben ardura edo interes andia kasu ori argitu eta ebatziteko.

Francoren emazteaganaiño be aillegatu ziran mo-jaren batzuk, Don Antonio Errotaetxeren ezaugarritz edo olan. Bizkaiko gobernadoreak esan ei eban urrengo bazkarira joango zala bera be, inbitetan baeben; bada, ikusten zanetik, bazkari normal bat izan zan.

Kasu ori oso zaratatsua izan zan; eta, esan dodan lez, Don Antoniok eten gabe lan egiten eban.

Baiña illabete pasa, bi, iru, lau ta bostgarrenera –dijestiño edo eioketa luzea bazkari batentzat–, eta begira zelan eztanda egin eban guzurrezko denuntzia orrek.

Len esan dodan lez, auzoak be ondo portatu ziran. Jose, auzoko errotaria eta *jefe de la vía* izan zan Don Antonioren konfiantzazko testigua, gizon mo-

deratua. Bada Don Antoniok, nik esaten neutsan guztia uste dot ez eustala sinisten. Orregaitik esaten eustan berak, kartzelan egozanak deklaratzean esan egiela egi dana. Ta bai; gora Euskadi ori esan ebela; baiña mozkorragaz esan ebela eta berak defendituko ebazala guztiak.

Baiña auzoko Josek be esaten eutsan ezetz; an ez zala jazo olangorik.

Orduan, abuztuaren azkenetan zerbait juizio izango zala-ta, anai Erremundok errekadua bialdu eustan: laster izan bear ebala juizioak, eta Areatzako guardiazibillen sarjentoa aldatu egiten ebela, eta sarjento barriarengana aillegatzeko, informe ona emon egian; bat edo bestegaz berba eginda, egoteko gertu informe orreitzaz.

Eta orra or non egiten daben bonba orrek bere lerketa edo eztanda. Domeka goiz baten, joan giñan Jose auzoa eta ni Areatzara, ango frankista bi ikusteko asmoz, euren bitartez sarjento orri zerbait esan ta ea zerbait egin al balei orretzaz.

Jo gendun lelengo bertako jerarka batengana, eta bere erantzuna: bai; egun areitan etorri zala sarjento barri ori; baiña berak ez ebala egin barbarik be; entzun ebala bat edo bestegaz perretxiko meriendaren baten egon zala, baiña besterik ezer ez ekiala.

Tranbia etxerantza artzen giñoiazala, tranbi ori minutu batzuk ariñago edo lenago joan zala ta ordu-bete gendun lez urrengo tranbirako, eta Don Antonioren ama Areatza orretan bizi zan lez, uste izan gendun amaren etxean egongo zala Don Antonio ori, eta joan giñan otelera, beragaz egoteko gogoagaz.

Baiña ez gendun aurkitu etxean. Bere lagun baten etxean egongo zala esan euskun.

Orretan, bidean gentozala, non datorren urrengo tranbi ori. Baiña geltokira eldu baiño len gelditu zan. Bada aldatz apur bat egoan, eta tranbiok oso zarrak ziran lez, eta alanbreetan indar gitxi eukien lez, edozein aldatzetan porrot egiten eben, eta orrela gelditu zan tranbi ori. Eta, gu urreratzean tranbi au artzeko, tranbi ortatik non jatsiten dan Arratiako *jefe comarcal* edo ez dakit zer egiten ebana, maletatxo bategaz. Bada, naita Arratiako *jefe comarcal* izan, Bilbon bizi zan, eta Jose errotaria be baten baiño geiagotan ikusia, ta ganera informeak sarri berari eskatzen eutsazana kasu orretzaz be. Ta aldi aretan, gose urteetan, uruna be sarri emoten eutsana.

Alkar izketan asita, non diñotson maleta ori zala zerbait jateko eroateko; eta orduan esan eutsan Josek:

– *Dame la maleta y ya te la llenaré con algo.*

Irurok egon giñan, baiña ni ez nindun ezagutzen itxuraz, eta non itanduten dautsan Josek:

– *Y ¿qué es del caso de los comandantes y capitanes mis vecinos?*

Eta bertan asten da rolo ori kontatzen, pentsaturik neu be euretarra edo frankotarra nintzala:

– *Pues de eso nada. Ahora resulta que los dos chicos firmantes de la denuncia se han enfadado, y uno de ellos dice que él no supo ni lo que firmó y que él no va a seguir manteniéndolo. Pero que el otro le decía que por eso les iban a meter en la cárcel y tal.*

Ori amaitu nai izan eban mutil gazte ori ei zan famili abertzale bateko alabaren ezkongaiia; ta kontzientzian arturik kalte andia egiten egoala, neska orrek eta beste batzuk itxuraz ipini eben erabagi ori artzeko.

Nire artean diñot:

– Au dok, au!

Damutu zan mutil ori beste alboerrikoa zala, eta esan eutsan nire aurrean Joseri nor ta non bizi zan be; eta Josek berak be ezagutzen ebala mutil orren familia be.

Etixeratu giñan Jose ta ni, baiña nik ez neukan astirik ezetarako; eta bueltan tranbi ori artu ta bakarrrik joan nintzan, ea Don Antonio ikusten baneban, goizean entzuna kontetako.

Oraingoan aurkitu neban eta entzun neban antzera kontatu neutsan; eta orduan, bere begiak indar guztiagaz zabaldurik eta arrigarrizko gauza bat ikusi baeban antzera, au esan eustan:

– Ez da izango egia!

– Bai, jauna. Olantxe da.

– Eta beste iñork entzun al dau?

– Bai. Nigaz batera egon da Jose errotaria, eta berak be bai.

– *¿José, el jefe de la vía?*

– Bai, berbera.

Eta esan eustan berak, Don Antoniok:

– *Bueno*, ordubete barru edo lelengo datorren tranbian joango naz errotara, Josegaz berba egitera.

Ni orduan oiñezean joan nintzan etxera, kilometro t'erdi inguru, eta esan neuntsan Joseri:

– I, Don Antonio etorriko dala lelengo datorren edo bigarren tranbian, eta emen egon al bagara. Bada zerbait esan jautsat goizean jefe komarkalak esan dabena, eta jakin gura jok ea egia dan.

– *Bueno* –diño–. Bai; itxarongo dautsagu.

Bigarren tranbi orretan badator. Ia Joseren etxe-ko atadian eukan geltokia, eta badiñotso Don Antoniok nik au ta ori kontatu neutsala, eta ea egia zan. Beragandik be, Josegandik, jakin nai ebalá.

Eta erantzuna:

– Bai; olan edo antzera da nire aurrean esan dabena.

– Eta zuk ezagutzen dozula mutil baten familia ori be?

– Bai. Eta, kasualidadez, emen errotan daukat euren zorrotxu bete arto garauna eioteko.

– Joango giñake famili orrengana, denuntzia orretzaz berba egitera?

Orduan estraperlo denpora zan, ta:

– *Bueno*. Zorroan dagon arto au eio eta biar edo etzi botako dautsat errekadua, etorteko urun zorro onen billa.

– Bada esaiozu ea mutilla etorri al bada nire etxera, Areatzara. Eta zer ipinten eban jakin barik denuntzia firmatu baeben, ori orrela bada, erresponsabilidade andia dala; baiña eurak ez baekien zer ipinten eban denuntziako papelean, eta ak edo orrek

esan baeutsen firmatzeko, nasai egoteko; berak defendituko ebazala-ta, naita delitua izan.

Denuntzia izan zan, erreketek batek egin eta guardia-ibilak idatzi ta kurtsoa emon, mutil gazte biri firmatu egiñazota.

Eta, Don Antoniok zortzi-amar egunean guztia konponduta, San Migel inguruan etxeratu ziran guztiak.

Eskerrak Don Antonio Errotaetxeri. Ostantzean, gaur be bearbada kartzelan egozan. Eta orrelan, martxa barri bat artu ta aurrera.

Batek aitari esan semeok
laster etxean zirala;
ta erantzuna, zelebrazteko
zekor bat ilgo ebalá.
Bazkari ori egin gurarik
danok geunkan poz itzala,
amets gozo au lortu zan eta
kartzelara bereala.

Baimen bagarik banketerikan
ezin zala-ta inñolan,
barriro bere bost illabete
Larrinagako eskolan.
Errotaetxek, bai, egin eban
ateratzeko neiko lan,
jaun au bitarte izan ez bazan
oraindik gaur be kartzelan.

AMAIA

Naita batzuek ez nai
erri istorian,
orra nire egiak
argi agirian,
jarriko ez ziranak
liburu garbian,
igaro ez banitun
nire aragian.

ARKIBIDEA

Zerbait egin gura	9
Nola edo zelan idatzi	15
Lelengo egunak	31
Elgeta	37
Ibaizabal batalloia.....	43
Billarreal	49
Ermua	57
Durungoko bonbaketa	65
Zeanuri	69
Euba	83
Artea ta Zeberio bitartean	91
Laiñomendi	95
Bilbo	99
Enkartaziñoak	105
Santander aldean	113
El Pontarrón.....	121
Prisionero	129
Andaluzia	135
Zaragoza	143
Bazkari baten ondorenak	157
Amaia	169

ORAINDAIÑOKO LIBURUAK

117'garrenetik aurrera.


- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).
135: *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*)
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*)
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*)
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*)
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*)

- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*)
- 151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*)
- 152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
- 153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.
- 154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.
- 155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.
- 156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
- 157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.
- 158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)
- 159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
- 160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
- 161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
- 162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)
- 163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
- 164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.
- 165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.
- 166: *M. Manterola*: Lore apal bat.
- 167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
- 168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
- 169: *Basarri*: Kezka-giroan.
- 170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
- 171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
- 172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
- 173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
- 174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, I.
- 175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, II.
- 176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
- 177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
- 178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
- 179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.
- 180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, I.
- 181: *Ataño*: Zigorpean.
- 182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
- 183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, II.
- 184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.
- 185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.
- 186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.
- 187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
- 188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
- 189: *Ataño*: Eltzaorra.
- 190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.
- 191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
- 192: *Ataño*: Odol-kutsua.
- 193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
- 195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
- 196: *Ataño*: Etorkizuna.
- 197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
- 198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzapenak.
- 199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
- 200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
- 201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
- 202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
- 203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
- 204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
- 205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
- 206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
- 207: *Ataño*: Aztia usnari.
- 208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.
- 209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.
- 210: *Beñat Karrika*: Armendaritze haur begiez.
- 211: *Basilio Pujana*: Deabruak ostutako urteak.



1051048
G-128/70



AUSPOA
LIBURUTEGIA